

ASTELEHENEOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-01-17  
ASTELEHENA  
305. ZENBAKIA  
7. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



## "Elikadura-arazoak dituen gaixoa guregana dator hondo jo duenean"

Agurne Juldain | Psikologoa | 8

Ford Mugarrik ondo irabazi zion Soraluze BK Eri, derbian | 24



Asier Gutierrezek saria, moto gainean egindako lanagatik | 26

Bergarak lehen zatian egin zituen etxeko lanak, lau gol sartuta | 21



## "Danbaka irabazi ostean kantu berriak egiteko gogoz gaude"

Ondarroako Xarma taldeak irabazi zuen, egubakoitzean, Danbaka musika lehiaketako laugarren edizioa. Eta, Bergarako Lord Witch taldea izendatu zuten ibarreko onena. Zapatu arratsaldean patxada handiagoz izan ginen irabazleekin | 29

Danbaka irabazi ostean, zapatuan, Soraluzekeo gatzetxean kontzertua egin zuten Xarmako lagunek; argazkian taldekideak, Soraluzekeo zubian. | JULIO CALLEJA

### Lizarralderen film laburrak ikusmina piztu zuen Oñatin | 13

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |  
IRITZIA 7 | EL KARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22  
| KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 |  
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 |  
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

goienakluba



Liburu sorta bat opari.  
Nahi?

Zoaz 12. orrialdera



dks'10  
debagoieneko  
III. kirolsariak

Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 21 ostirala  
Aramaioko Kultur etxean | 19:00



egin zure proposamena!

www.kirolsariak.com

# Itxura ederra ari da hartzen apurka Urkulu ingurunea

- ▶ Ingurua biziberritzeko prozesuak aurrera dihardu
- ▶ Asteon bidegorriaren zati batekin amaituko dute
- ▶ Irurikoan ostalaritza zerbitzurako esleipena egin dute

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Urkulu ingurua biziberritzeko planarekin aurrera dihardute. Azkenaldian hainbat proiektu egin dituzte horren harira; dagoeneko agerian daudenak. Azpiegiturei dagokienez, bidegorriaren bigarren zatia oso aurreratuta dago eta Aretxabaleako alkate Inaxio Garrok jakinarazi digunez, asteon amaituko dituzte lanak.

Sasoi eraikuntza enpresa dabil han lanean azarotik, 125.560 euroren truke. Etxaluze baserri ingurutik, hau da, urtegiko ibilbidearen sarreratik, Areantza auzoko bidegurutzeraino doa. Urtegi ondolik doa eta hori dela-eta, errepideari zati bat kendu behar izan diote. Bigarren zati horrek 335 metro luze ditu, eta zabalerrari dagokionez, 2,60 metrokoa da.

## Panelak eta eserlekuak

Bigarren zati horrek eginda dagoen lehenengo zatiarekin bat egiten du. Hortik Goroeta auzoraino doan tartearen obrak uda partean egin zituzten eta oraindik hainbat eserleku, seinale eta argibide panel jarri barik daude. Azken horiek Urkulu inguruaren gaineko informazioa eskaintzeaz gain, han dabiltzan landaretzaren eta hegaztien berri ere ematen dute. Egu-

notan ari dira jartzen; seinale batzuetan fotomuntaketa ederrak ere ikus daitezke.

Lehenengo tarreak 513 metroko luzera du. Kasu horretan ere Sasoi enpresak izan zuen 230.000 euroko aurrekontua zuten lanen ardura. Zati nagusia 364 metrokoa da eta lau metroko zabalera du. Komunitaria igotzeko arrapala bikoitzak, ostera, hiru metro zabal ditu; azken horrek gurpildun aulkian doazenak ondo igotzeko bideak gehienez %8ko aldapa du.

## Irisingarritasun unibertsala

Horren harira, gogorarazi behar da orain arte egindako bidegorri zatiak gurpildun aulkian doazendako eta itsuendako daudela egokituta. Horretarako, bide guztian egurrezko bi baranda jarriko dituzte; bata, itsuendako gida-lagun, eta bestea, gurpildun aulkian dabiltzanendako. Gainera, itsuen bastoiari lagun egiteko beste gida bat jarriko dute baranden azpian.

Bidegorriaren lanak ez dira hor amaituko, hirugarren zati bat egiteko asmoa dago-eta. Etxaluze baserriatik Aozaratza auzoraino doa hori. Garrok azaldu digu proiektua "erdi eginda" dagoela baina, bideak jabetza pribatuko lurra-

dituela, eta hortaz, baserriekin "adostu" beharra dagoela.

Bestalde, Urkulu biziberritzeko prozesuan ostalaritza edo hotel-industria jarduerako zerbitzua egitea dago aurreikusita Irurikoa baserrian. Eguenean egitasmo horretarako alokairurako lizitazioa argitaratu zen bigarren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Alkatearen esanetan, "lehenengo deialdian udaletxean interesatuta zeuden lau dei eduki genituen; baina proiektuak aurkezteko epea amaitzean, ez zen inor agertu. Gogorarazi nahi dut jarduera hori naturarekin edo ekologia bezalako kontzeptuekin lotuta egon beharko dela derrigorrez".

Irurikoa baserria Aozaratza auzoan dago, eta udal jabetzako baserri bat da. 222 metro karra-tuko azalera dauka, eta hiru solairu ditu. 5000 m<sup>2</sup> inguruko larreak dauzka baserriaren ondoan.

## 40 urteko ustiapena

Baldintzen plegua ez da aldatu. Besteak beste, aurreikusten da alokairuan izango den baserriaren ustiapen epea 40 urtekoa izango dela gehienez, alokairu kontratua hobetu eta baserria erabilgarri den egunetik hasita. Aldi berean, ostalaritza eta hotel-industriarako erabiliko den baserriaren berritze lanak, oinarritzko proiektua onartzen denetik hasi eta 18 hilabete-tan egin beharko direla dio. Horren gaineko proiektua kontratua sinatu eta hiru hilabete epean aurkeztu beharko da.

Horrez gain, pleguak dio berritze lanen prezioa, esleipendunaren kontura izango dela, esleipendunak egin beharreko inbertsioa konpentsatu egingo delako ustiapen epean eskaintako erabileren ustiapenarekin.

Eskaintzak Aretxabaleako udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu behar dira lizitazioaren



Gutziz amaituta ez badago ere, jendea dabil gora eta behera bidegorriko bigarren zatitik.

iragarkia argitaratu zenetik hurrengo egunetik hasita hiru hilabete epean. Postaz ere aurkeztu ahal izango dira eskaintzak; baina hala eginez gero udaletxera bidalitako fax bitartez adierazi beharko da.

Aretxabaleako Udala eta Naturgintza fundazioa 2008 urte-

tik dabilta elkarlanean, esandako ingurunea biziberritzeko. Egin beharrekoak zehaztu eta horren gaineko proiektuak lantzen ari dira. Zeregin horretan, joan den urtean, Urkulu aldean milioi euro bat inbertitu zen. Alkateak jakinarazi digu aurten 650.000 euro inguru bideratu nahi direla: "Herri-



Ibilgailuek "tarifatxoa" ordain dezatela aztertzen dabilta. | MIRIAN BITERI

## Urtegiko aparlekuetarako tarifa

Mugikortasunarekin lotuta, Inaxio Garro alkateak azaldu du Otalako aparkalekua indartu nahi dutela. Alkatearen esanetan, "debaldeko aparkalekua izango da hori; urtegi bertan dauden bi aparkalekuan autoa utzi ahal izateko, berriz, tarifatxoa ordaindu beharko da. Pertsona bat edo bi egongo dira trafikoa kontrolatzen eta tarifa kobratzen. Kontua ez da dirua ateratzea, autoak hortik ateratzea baizik. Baina, oraindik zehazteke dago guztia".

## ESANAK

**"Herriko kiroldegiaren lanen ostean, egin nahi den inbertsiorik onena da Urkulu inguruneak"**

INAXIO GARRO | ALKATEA

**"Iraeban baserriaren erabilera zehazteke dago. Lehenengo Irurikoa finkatu dugu"**

INAXIO GARRO | ALKATEA



| MIRIAN BITERI



Urkuluri buruzko panelak jarri dituzte. | M.B.



Iraeban baserrirako erabilera zehazteke dago oraindik. | M.B.

ko kiroldegiaren lanen ostean, egin nahi den inbertsiorik handiena da Urkulukoa".

Aipatutakoez gain, Iraeban baserriari ere "erabilera zehatza" emateko asmoa dute; baina, alkatearen esanetan, "zehazteke dago oraindik. Lehenengo Irurikoa finkatu nahi dugu eta ondoren, horre-

kin indarrak bideratuko ditugu beste baserri horri".

#### 4.700 zuhaitz kimu

Plan horren oinarriak ez dira baserrietara eta azpiegiturera mugatzen. Alkatearen arabera, "utzita zegoen Urkulu berreskuratuko dugu. Landaretzaren biodi-

bertsitatea bermatzeko, garbiketa lanak egin dira eta 4.700 zuhaitz kimu landatu dira. Mantentze-lanetarako lagun bat hartzeko lanean ere badihardugu. Faunarekin lotuta, bestalde, hegaztiendako habiak jarri dira".

Aisialdiari ere garrantzia eman nahi diote. Horren harira, Udalak

Topogida argitaratu berri du. Gida-liburuxka horrek bidezidorrak ezagutzeko, mendi itzuliak egiteko eta 25 kilometroko BTT zirkuitua egiteko aukera eskaintzen du. Guztira, 2.200 ale egin dituzte; 1.300 euskaraz, eta gainerakoak, erdaraz. Topogida hiru euroren truke saltzen da kultura etxean.

#### Begiratoki panoramikoa

Horrekin batera, urtegiko presatik gertu, egurrezko begiratoki panoramikoa egokitu dute egunotan. Alkatearen esanetan, "oso polita den bazter batean jarri dugu, panoramika ederra da handik. Gainera, eserlekuak jarri dira, jendeak lasai ikus dezan dena".



**AVELINO MUNAIN**  
ERRETIRATUA

"Oso ondo ikusten dut Urkulun egiten ari direna; ordua zen, nahiko utzita zegoen-eta ingurunea. Arrasatekoa naiz eta askotan etortzen naiz paseatzera. Autoa iturrian utzi eta pare bat buelta ematen ditut".



**CONCEPCION SANCHEZ**  
LANGILEA

"Oso ondo dago. Aspaldi ez naizela etorri eta ikusi dudanean harrিতa geratu naiz, oso aldatuta dago-eta. Lehen ez zegoen batere prestatuta; paseatzea arriskutsua zen, ez zegoen segurtasun neurririk".



**ELISABETH PEREZ**  
LANGILEA

"Primeran ari dira uzten. Lehen utzita zegoen eta orain oso polita ari da geratzen. Umearekin ibiltzeko eta korrika egiteko aproposa da; askotan etortzen naiz eta gozamina da. Naturaz gozatzeko toki paregabea".



**CLAUDIO BLAZQUEZ**  
LANGABEA

"Bidegorriarekin oso pozik nago; lehen nahiko arriskutsua zen bidea, errepidetik joan behar ginelako; baina orain oso ondo ari dira uzten. Ingurunea biziberritu behar dela iruditzen zait".



**ANDONI JIMENEZ**  
LANGILEA

"Oso ondo ikusten dut guztia. Errepidetik ibiltzea ez da batere segurua eta horrelako gauzak egitea beti dago ondo. Paseatzeko eta bizikletan ibiltzeko egokia. Gainera, eserlekuak jartzen ari dira".

## Saharako gatazka Eskoriatzako kontzejupean berbagai izan dute

Urteroko janari bilketaren orde, aurten ekimen berezia antolatu dute Eingeinako gazteek

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eingeinek antolatuta, Saharaz luze jardun zuten zapatuan Eskoriatzako kontzejupean. Lehenik eta behin, Mundubat Gobernu Kanpoko Erakundearen *Un grito desde el Sahara* dokumentala ikusi zuten han batutakoek. Desagertutako saharar eta okupatuta

dagoen Saharan giza eskubideen alde lan egiten jarraitzen dutenen omenez da hori. Adi ikusi zuten filma 35 lagun inguruk, tea beroa hartzen zuten bitartean.

Jarraian, Ormaiztegi Garaiz Hach Embarekek hartu zuen hitza. Egungo egoera politikoaren berri eman zuen eta jendearen

galderei erantzun zien. Haren esanetan, "gatazka ez da konpondu. Atxiloketekin jarraitzen dute aurrera; egunerokotasun bizitza ez da berera bueltatu. Azarotik hona jipoiak eta torturak egon dira; etxe guztietan norbait dago kartzelan edo desagertuta. Egoera ez da aldatu; ez da inongo aurrera pausu praktikorik eman".

Berben ostean, euro eta erdiren truke, kontzejupean bertan gertatutako burrunzi-pintxoak dastatzeko ordua iritsi zen; baita Nubi elkarteak jarritako materiala erosteko ere.

### Erakusketa Aldatzen

Bestalde, zapatuko ekitaldiaz gain, Mendebaleko Saharako gatazkaren gaineko erakusketa jarri dute Aldatz tabernan.



Momentuan egindako tea banatu zen zapatuko ekitaldian. | MIRIAN BITERI



**LAKHLIFA AZAOUI**  
SAHARRA

"Ekitaldian tea gertatzen eta banatzen ibili naiz. Oso ondo ikusten ditut horrelako ekimenak; jendeak egoeraren berri izan dezan aproposa".



**GARAZI HACH EMBAREK**  
HIZLARIA

"Saharak bizi duen egoeraren berri eman dut. Gauza asko ez dira garbi esaten eta hori argitzera etorri naiz".



**MIRIAM ISASMENDI**  
ANTOLATZAILEA

"Janari bilketaren orde, beste zerbait egiteko beharra ikusten genuen, herrialde horretako gaur egungo egoera berezia delako".



**IBAI GOROSARRI**  
IKUSLEA

"Interesantea iruditzen zait horrelako ekimenak herrian egitea; gehiago egin beharko liriteke. Sahararen harira informazio falta dago".



**XABIER GARRO**  
IKUSLEA

"Eingeinek mugimendua sortu du herrian eta hori eskertzea da. Sahararen gaia oso aproposa da ekimen baterako".

## Motorzaleendako segurtasun neurriak jartzen dabilta egunotan GI-627 errepidean, Arrasaten

Motor gidariendako segurtasun pantailak jartzen hasi da egunotan Gipuzkoako Foru Aldundia; hain justu, Arrasateko saihesbidean dabilta langileak lanean. Pantailak ez dira Arrasatera bakarrik mugatzen; guztira, Leintz Gatzagako, Eskoriatzako eta Aretxabaleako eta Arrasateko 40 puntutan doaz horiek. Proiektua garatzeko aurrekontua 321.000 eurokoa da.

Moto gidari eta ziklistendako errepideetan dauden babes hesiak oso arriskutsuak dira. Istripua izanez gero, moto gidari askok lesio larriak eta anputazioak jasateko arrisku handiak dituzte. Segurtasun pantaila horiekin esandako segurtasun falta konpondu nahi du Diputazioak.

## Tomas Fernandez Ezker Batua utzi eta Alternatibara pasa da

Tomas Fernandez, Aretxabaleako Ezker Batu-Berdeak alderdiko zinegotzia Alternatibara pasa da. Alderdi berrian, "ezker ezberdinen bategitearen" alde lan egingo duela eta herritarrekin "hartutako konpromisoa" eutsiko diela jakinarazi du igorri duen prentsa oharrean.

## Enpresagintzan parte-hartzearen gaineko jardunaldia dago asteon

M.B. | OÑATI

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzak antolatuta, enpresen barruan egoten den parte-hartzearen gaineko jardunaldia izango da eguaztenean, hilak 19, Ibarrako campusean. *Parte-hartzearen formak enpresan: esperientzia desberdinak munduan zehar* du izenburua, doakoa da eta guztioi dago zabalik.

### Izena aurretik

Interesatuek aurretik eman behar dute izena honako telefonoan: 943 71 80 00. Jardunaldia 17:30ean hasiko da eta ordu eta erdi inguru iraungo du. Hiru kasu azalduko dituzte han, eta parte har-

tzen dutenen artean aztertuko dituzte horiek. Azken horrekin lotuta, hiru hizlari izango dira. Marta Gomezzen hitzaldia *Argentinako enpresa errekuertuen fenomeno: krisiaren aurrean erantzun jasagarri bat* du izenburua; Rafa Altunarena, *Mondragoneko kooperatibismoaren klabeak eta erronkak*; eta Fred Freundlinchena, *ESOP: modelu estatubatuar bat*.

Horiez gain, Enpresagintza-MIKEko irakasle eta ikertzaileak eta Argentinako Neuquen probintziako Cooperatiba de Trabajo de Salud Ados kooperatibako arduradunek ere parte hartuko dute jardunaldian.

## ELA sindikatuko ordezkariak Oñatin

ELA sindikatuko 200 ordezkari bildu ziren egubakoitzean Oñatin, hilaren 27rako greba dela-eta. Langileen asanblada egin zuten lehenengo. Pentsioen erreforma Espainiako Gobernuaren eraso dela salatu zuten han, eta gaineratu aldaketa handia suposatuko lukeela erretiro adina 67 urtera atzeratzea eta kotizazio urteak gehitzea. Asanblada amaitzean, Zuazola-Larraña institututik herriko plazara joan ziren. Bidean, Ertzaintzak identifikazioa eskatu die eurretako batzuei.



AMAIA TXINTURRETA

20tik aurrera  
EGIN TXOTX!!  
Bertako sagardoa



## Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio  
945 445 385 685 721 593  
iturriasagardotegia.blogspot.com

# Erretzen ari denaren aurrean euren eginbeharra zehazki zein den jakin gura dute gure ostalariek

- ▶ Debekua iragarri ostean, erretzen dutenen aurrean nola jokatu jakiteko arau "sinple" bat gura dute
- ▶ Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak batzarra egin zuen Lasa jatetxean, kezka eta iradokizunak jasotzeko

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

15 egun pasa dira tabakoaren kontrako lege berria indarrean jarri zenetik. Gurean, Mikel Aiestaran Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak kudeaketa arduradunaren arabera, "normaltasunez" ari da errespetatzen.

Gipuzkoako ostalariek bada-kite tabakoaren kontrako lege berria hobea izango dela osasunarendako, baina euren bezeroen alde egin behar dute: "Erretzaileak eta ez-erretzaileak diren bezeroak ditugu eta terrazarik ez duten ostalariak batez ere, erretzaileak diren bezeroak galduko dituzten beldur dira", dio Aiestaranek.

## Neurketak egiteko "goizegi"

Tabernara joateko ohitura oso zabalduta dago gurean, hori ukatzina da. Bada, Aiestaranen arabera, lege berriak bezero kopuruan eragin duen esateko "goizegi" da oraindik: "Batzuek esan digute igarri dutela jende gutxiago dabilena, baina datu horiek emateko apiril edo maiatzera arte itxaron beharko dugu".

## Arau-hauslearen aurrean, zer?

Eguenean batzar informatiboa egin zuen Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak Lasa jatetxean. Helburua zen ibarreko ostalariak legea zehatzago azaldu eta euren kezkak jasotzea. Ondorio garbi bat atera zuten: gure ostalariek ez dakite nola jokatu behar duten, tabernan



Ibarreko hainbat ostalari bildu ziren Lasa jatetxeko batzar informatiboan. | AMAIA TXINTXURRETA

erretzea debekatuta dagoela iragarri ostean, araua hausten duenarekin: "Erretzea debekatuta dagoela iragartzeko kartel eta pegatinak jarri behar direla dio legeak eta ez-erretzaileendako erreklamazio orriak izan behar ditugula, baina ez du zehazten zer den araua hausten duenaren aurrean egin behar duguna", dio Aiestaranek. Izan ere, tabernari gehienek argi dute ez dutela poli-

zia lanetan ibili nahi: "Legebiltzarrari eskatu diogu arau sinple batekin arautu dezan 'erantzukizun solidarioa' deitzen duten hori". Ezustekorik ezean, otsailean ezarriko da legea EAEn eta isunak ebitatzea da nahi dutena.

## Espanian eta hemen lege bera

EAEn legea zorrotzagoa izan behar zela zioten, baina ez da hala izango, legea bakarra izango da denon-

dako. "Logikoa" da, Aiestaranen ustez: "Legea ezberdina izateak nahasmena sortuko luke, besterik ez". Beraz, elkarte gastronomikoetan erre daiteke, oraingoz. Hala ere, ostalariek ez dute begi onez ikusten: "Espainiako legeak ez ditu tabernak eta elkarteak bereizten, elkarteena hemengo errealitate delako. Eusko Legebiltzarrak arautu egin beharko luke, baina tabernetan erre ezin

## ESANAK


"Legeak ez du zehazten zer egin behar den araua hausten duenarekin; zer egin behar dugun jakin nahi dugu"

"Batzuek igarri dute jende gutxiago dabilela, baina goizegi da datu horiek emateko"

MIKEL AIESTARAN | GIPUZKOAKO OSTALARIEN ELKARTEKO ARDURADUNA

daitekeen moduan, elkarteetan erretzea debekatuta egon beharko luke".

Bestalde, gauean arazoak izango direla uste dute ostalariek: "Gauean jende eta mugimendu gehiago dago eta 23:00etatik aurrera ezin dira tragoak kalera atera. Horrek bizilagunen kezka ekarriko ditu eta arazo eta kezka berriak izango dira". Azkenik, tabakoa ez saltzea erabaki dute batzuek; Aiestaranen ustez, ostalari bakoitzak erabaki beharko luke saldu edo ez. Hori bai, tabakoa ez saltzea "logikoa" dela deritzo; kaxa bakoitzeko 15 zentimo irabazten dute.



JOKIN BEREZIARTUA

## Gernikako Akordioa, esku-eskura

2010eko irailaren 10ean Euskal Herriko hainbat alderdi, sindikatu eta eragilek sinatutako Gernikako Akordioa herritarren eskura heltzeko asmoz, eskuorriak banatzen dihardute gure ibarreen. Joan den egunean, esaterako, akordioaren aldeko herritar batzuk Arrasateko Seber Altube plazan izan ziren eskuorriok banatzen. Gainera, hilaren 25ean Kulturaren ekitaldi publikoa egingo dutela iragarri zuten.

# Urretxu eta Bergara lotuko dituen autobia tartea bidesaria izango du

Deskargan jarriko dute; bidesarian ordaindu beharrekoa zehazteke dago oraindik

J.B. | BERGARA

Eneko Goia Azpiegituretako diputatuak halaxe ziurtatu du asteon: Urretxu eta Bergara lotuko dituen autobia erabilteagatik ordaindu egin beharko da. Kamioiek zein autoek ordaindu beharko dute, beraz, Zumarraga, Urretxu, Antzuola eta Bergara lotuko dituen autobia erabili ahal izateko.

Goiak adierazi duenez, Deskargan jarriko dute bidesaria, 680 metro izango dituen tunelaren aurretik -tunel horrek Deskargako mendatea zeharkatuko du, eta horrela Gipuzkoako errepideetako puntu beltzetako bat arinduko da-. Bi dira bidesaria jartzearen arrazoiak: batetik, autobia eraikitzeak gastuei aurre egiteko jarriko dute; eta, bestetik, autobia berria

kamioiendako atzeko ate bat izatea ekidin gura dute. Izan ere, Urretxu eta Bergara arteko autobia doakoa jarritz gero eta 2012an Etxegaraten kamioiendako bidesaria jartzea aurrekusi dutela aintzat hartuta -autoendako ere jartzea ez dute erabat baztertu-, Frantziara

doazen kamioiek Etxegarateko bidesaria ebite dezaketela ondorioztatu dute adituek. Nola? Bada, AP-1etik joanda, Urretxu-Bergara autobiatik aldentu eta N-1era bueltatuz, Beasainen. Goiaren ustez, "ondorio kaltegarri" hori ebitatzeko modua da Urretxu eta Bergara arteko tartea ordainpekoa izatea. Gainera, Urretxu-Bergara autobia "gaitasun handiko errepideen" artean kokatzen da Goiak eta "soilik" zergen bitartez finantzatu denez, ordainpekoa izan behar duela uste du.

## Hamar kilometro: 170 milioi

Gipuzkoako errepide garestien artean kokatzen da autobia. Hamar kilometro eskas egiteko 170 milioi euro gastatuko dira. 2013an zabaltea espero dute.

DATUA

10

KILOMETRO LUZE

Hamar kilometro izango ditu Urretxu eta Bergara arteko autobiak. Inbertsio handia da: 170 milioi euro kostako da egitea.



Argi izan behar da beharapenak prezioetan direla, ez kalitatean. | JOSETXO ARANTZABAL

## Urtarrileko aldapa leuntzeko, zentzuz eta neurrian kontsumitu

Aholku batzuk jarraituz gero, prezioen igoeraren eragina gutxitzea posible da

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Urtarrilaren 1az geroztik, argindarra %9,8 garestiagoa da; gas naturala, %3,9 garestiagoa; eta butanoa %3,13. Erregaei dagokionez, hamabi hilabetetan gasolinaren prezioak %18 egin du gora eta gasolioarenak, %13.

Igoera horien guztien eta gehiagoren ondorio da hain eza-guna den urtarrileko aldapa. Berau leuntzeko, hainbat dira argitalpen espezializatu eta kontsumitzaileen elkarteek egindako gomendioak. Hauen artean leudeke, esaterako, behar ez diren gastuak ekiditea

(erabiltzen ez ditugun kreditu txartelen kuotak, esaterako), eta etxean jatea edo lanera jana etxetik eramatea.

### Beharapenetan, tentuz

Gabonak amaitzearekin batera hasi zen neguko merkealdia eta bertan murgildu aurretik, hainbat pausu jarraitzea komeni da. Hala, gomendagarria da erosketak egitera irten aurretik benetan behar ditugun gauzen zerrenda egitea, baita presarekin kontuz ibiltzea ere: lehen egunetako estutasun eta bultzaderek inpultso

bidez erostera eraman gaitzake. Gogoratu behar da baita ere, beharapenetan prezioak apalagoak izan behar direla, baina kalitate berebean.

Erosketa arruntei dagokionez, marka zuriak erosita ordainduko duguna gutxiago izango da. Promozioekin argi ibiltzea; erosketak bakarrik eta sabela beteta dugula egitea; eta denboraldiko produktuak erostea ere aintzat hartzekoak dira. Menuak aurretik zehazteak eta denda ezberdinen arteko prezioak alderatzeak ere lagunduko digute aurrezten.

### Berogailua neurrian

Berogailua erabiltzen dugunean ez da komeni tenperatura oso altuan jartzea, igotzen dugun gradu bakoitzak eragina izango du eta fakturan. Termostatoa jartzen badugu, hobeto kontrolatuko dugu etxe barruko hozberoa: gomendagarria da ez gaintzea 20° C. Kontuan hartu baita ere, berogailua piztu beharrean, gehiago janztearekin nahiko izan daitekeela askotan.

### Autoen erabilera egokia

Gidatzeko orduan aurrezteko, komeni da gorpilen presioa fabrikatzaileak gomendatutakoa izatea eta baita errepidean mar-txa egokian gidatzea ere. Ibilbide motzetarako autorik ez hartzea eta motor abiarazte eta balaztatze zakarrak ekiditeak ere lagunduko diote gure pol-tisikoari.

## Argindarrarekin ere, argi bili

Arrasateko Milar-Elkoro dendako Jesus Mari Elkorok hainbat aholku ditu igoerari aurre egiteko.

### TARIFA EGOKIA

Azken Aukerako Tarifari aplikatu zaio igoera. Komeni da, telefono mugikorrarekin egiten dugun legez, ondo informatu eta gure beharrei gehien egokitzen zaion tarifa aukeratzea.

### ONDO AUKERATU

Beharren arabera kontsumo baxuko bonbillek aurrezten laguntzen dute. Argia denbora luzez piztuta izatekotan, argi halogenoek asko kontsumitzen dute, ez horrela fluoresenteek. Etxeko tresna elektrikoetan, linea zurikoek (hozkailu eta garbigailuek esaterako) etiketak dituzte makina bakoitzaren eraginkortasun energetikoa adierazteko; hau gero eta handiagoa izan, orduan eta gutxiago kontsumituko du.

### EGOKI ERABILI

Ordenagailua etengabe piztuta izateak edo telebista martxan utzita gelatik irteteak alferrik igotzen dute faktura. Gogoratu beroa sortzen duten tresnek (ile-lehorgailuak, xigorgailuak...) kontsumo handia dutela.

## Iaz ERE baten eraginpeko langile kopuruak %48,5 egin zuen behera

35.426 langileri eragin zieten iaz enplegu erregulazio espedienteek

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saitetik jakinarazi dutenez, 2010ean, aurreko urtean baino %48,5 gutxiago izan ziren enplegu erregulazio espediente baten eraginpean egondako langileak. Hala, 2009an 68.772 baziren egoera horretan zeuden langileak, 2010ean kopurua 35.426ra jaitsi zen. Dena den, iazko datuak 2008koak baino askoz handiagoak izaten jarraitzen dute: orduan, 12.794 langile zeuden enplegu erregulazio espediente baten eraginpean.

Enplegu erregulazio espedientei eurei dagokionez ere, 2009tik 2010era egon da alderik: iaz 1.846 espediente onartu zituen Jaurlaritzak, 2009an aldiz 2.535 izan ziren. Jaurlaritzatik azpimarratu dute bai 2009ko eta baita 2010eko enplegu erregulazio espedienteetan adostasun

-maila altua izan dutela ezaggarri. Emandako datuen arabera, adostasun-maila hori %89koa izan da batz bestea.

### Abenduan, 249 espediente

2010eko abenduan 249 enplegu erregulazio espediente onartu zituen Jaurlaritzak, 2009ko epe berean baino 61 gutxiago. Sektorera, horietatik %4 nekazaritza eta arrantzan onartu ziren; %61, industrian; %11 eraikuntzan eta %24 zerbitzuen sektorean.

Abendua amaitzean, denera 939 ziren aktiboan zeuden enplegu erregulazio espedienteak, eta 16.995 lagun zeuden eteteko edo lanaldia murrizteko espediente baten eraginpean. Gaur egun aktibo dauden espedienteetatik 579 aurreko espediente bati jarraitzen ematen dioten espedienteak dira, eta guztira 15.604 langile hartzen dituzte eraginpean.

### DATUAK

# 939

ESPEDIENTE

Abendua amaitzean 939 espediente zeuden aktiboan eta denera, 16.995 langileri eragiten zieten.

# %89

ADOSTASUN-MAILA

Jaurlaritzatik diotenez, adostasun-maila altua izan da 2009ko eta 2010ko enplegu erregulazio espedienteen ezaugarria.

## Munduko 100 onenen artean jarraitzen du Eroskik

lkerketa baten arabera, banaketa enpresen artean 81.a da eta supermerkatuetan, 28.a

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Deloitte aholkularitza-enpresak egindako ikerketa baten arabera, Eroski Taldeak munduko 100 banaketa-enpresa garrantzitsuenen artean egoten jarraitzen du; 81. dago. Deloitte nabarmentzen du supermerkatuen arloan dela bereziki indartsua Eroski Taldea: hain zuzen, 28. postuan kokatzen du.

Ondorio horiek ateratzeko, mundu osoan 250 banaketa-enpresa handienek azken jardunaldian egin dituzten salmenten bolumena hartzen du kontuan, eta sektorea, aurreikuspenak eta joerak ere aintzat hartzen ditu Deloitteek..

### Liderra, berdina

AEBetako Wal-Mart taldea da beste behin zerrendako lehenengoa. Hurrengo postuak hauek

izan dira: Carrefour (Frantzia), Metro (Alemania), Tesco (Erresuma Batua) eta Schwarz (Alemania). 28. postuan kokatzen du.

Hego Euskal Herrian presentzia duten Espainiako enpresak ere zerrendan agertu dira. Postu onena Inditex taldeak lortu du (36); gero, Mercadonak (39) eta El Corte Inglesek (43). Inditex taldeari dagokionez, Deloitte esaten du mundu osoan moda arloko bosgarren enpresa handiena dela, eta Europako lehenengoa.

### Irabazi handiagoak

Munduko 250 banatzaile handienek gehiago irabazi eta gehiago saldu zuten 2009ko jardunaldian: %2,4 eta %3,1 arte gehiago irabazi zuten, eta %1,2 gehiago saldu zuten.

## ZABALIK



MIKEL LEZAMIZ  
'http://goiena.net/iritzia/'

## Politikarien pentsioak

Lotsagarria. Egunotan Aznar eta Felipe Gonzalezen pentsio publikoak eta enpresa pribatuetan kontseilari bezala diru mordo pilaketa hartzeak jakin ditugu.

Legeak dio Gobernu presidentetek betiko pentsio bat izan behar dutela, eta ez die ukatzen enpresa pribatuetan edota euren kontura lan egitea eta irabaziak gehitzea. Urteko 80.000 euro kobratzen ditu bakoitzak eta harrigarriagoa da lanean dagoen Zapaterok baino 2.000 euro gehiago kobratzea.

Pentsiotik aparte auto ofiziala daukate, bi langile Estatuak ordainduta, muebleak alokatzeko eta bulegoko gastu asko ordainduak, eta hil egingo balira beraien alargunek ere %100eko irabaziekin jarraituko lukete; gure kasuan Gizarte Segurantzak %52 bakarrik ematen digu.

Endesa eta Gas Natural enpresa pribatuek (beraiek pribatizatuak eta orain Gobernuak utzi diena energiaren kostuak %10 igotzen) fitxatu dituzte kontseilari bezala eta Aznarrek 200.000 euro gehiago irabaziko ditu eta Gonzalezek 126.000 euro gehiago. Zergatik ote da fitxaketa hau, aurreko mesedeak ordaintzeko?

Eta egoera hau ez da bakarrik gertatzen bi politikari hauekin. Ministro eta kontseilari askorekin ere berdina gertatzen da. Alderdi politiko batzuk hasi dira komentatzen legea aldatu egin beharko litzatekeela, lotsagarria baita goi mailako politikariak gaurko egoeran etika falta horretan erortzea. Baina ez dute ezer egingo, alderdi askotan horrelako egoerak gertatzen baitira. Euskadira begiratzea besterik ez daukagu antzeko gauzak ikusteko.

Nork ulertzen du Aznarrek eta Gonzalezek soldata hain ederrak izanda pentsioa ere kobratzeko aukera izatea? Nire proposamena garbia da: soldatarekin edo pentsio publikoarekin bakarrik gelditu behar dute, lanean edo kontseilari bezala ari diren bitartean. Beraiek aukera dezatela, eta ea gastu publiko gutxitzen den.

## USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | 'uzen@goiena.com'

## Itxaropenerako denbora

Itxaropenerako denbora. Hitz egin dutenek, intelektual mediaticoen eta politikariek, "gehiago" espero omen zuten. Batzuek eta besteek euren pulpituak edota botere muinotik hitz egin dute herritarren bake egarriari jaramon handirik egin gabe.

Ez zaie askorik inporta azken inkestean arabera herritarren %85 politikarekiko eszeptiko edo ezkor azaltzea. Agian politikariek ez dute konfiantzarik ematen, herritarren arazoak konpondu ordez euren sasi-burutapenetan bizi direlako. Orain dute euren lana errebindikatzeko aukera bikaina. Saia bitez erretrika eta diskurtsoak alboratu eta arazoari irtenbidea aurkitzen. Euren eginkizuna da. Gurea, hori exijitzea..

## KALE INKESTA

## Hasi zara aratusteetako mozorroa prestatzen?



MARIO UNANUE  
ARETXABALETA

"Ez dut ezer prestatu. Azken momentuan etxean dudana mozorro bat hartzen dut. Ez dut taldean mozorrotzeko ohiturarik."



AURORA SASTRE  
ARETXABALETA

"Ez dut mozorrotzeko ohiturarik. Ez zait mozorrotzea gustatzen baina aratusteetan herrian izugarriko giroa egoten da."



JON ZUBILAGA  
ARETXABALETA

"Azken urteetan ez naiz mozorrotu, baina aurten agian bai. Urteko jairik onena da, herriko kulturaren barneratuta dagoen jai eguna da."



MADDI ELORZA  
BERGARA

"Koadrila osoa tiroidarrez jantzi gara. Orain dela gutxi erabaki genuen aurtengo trajea eta dagoeneko hasi gara trajea prestatzen."

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Darwin Altonagarenean

Luis Aranberri Mendizabal  
http://eibar.org/blogak/amatino/

Felix Linaresek hamasei urtez (1995) aurkeztutako *La noche de...* programaren sailerako bat, elkarrekin zer ikusirik ez bide duten pertsonak hiruzpalau urratsez kateatzea da. Honelako zerbait egin du Kepa Altonaga biologoak ere *Darwin geurean* delako saiakeran.

Jakinmina, ikerketa eta ezaupidea behar da gero Charles Darwin naturalista XIX. mendeko zenbait indianorekin lotzeko, duela ehun urteko euskal eruditoak haren soinuaren inguruan dantzan jartzeko edo diktadurapeko *Jakin (17. alea, 1964)* aldizkariaren katakunbetan indusi aztarren bila muturra sartzeko.

Baina, behar-behar, jakinmina, ikerketa eta ezaupideaz gainera, trebetasun nabarmenik ere behar da.

Eta Altonaga ikertzaile on bezain kontalari artez eta trebea da.

*Darwin geurean* (Pamiela, 2010) saiakera (Juan Zelaia Saria 2009) ikaragarri polita

da politik bada, entretenigarria oso, plazer edo laketa hutsa, horietako zertzeladak, iruzkinak eta ipi-apak gustuko ditugunontzat behintzat.

Ez dut nik fikzio premiarik ukatuko, baina daukat euskal liburugintza era honetako zabalkunde-lanen faltan dagoela, literatura-sorkuntzaren, filosofia-pentsamenduaren eta eskola-didaktismoaren arteko distantziakidetasunez.

Ulertu ez dudana: Kepa Altonaga doktoreari esker askoz ere hobeto dakigu orain zein izan den Darwinen nondik norakoa geurean baina, arraro samar iruditu arren, ez dut erabat ulertu, ordea, zertan izan den Darwin Altonagarenean.

Jakingarri bada ere, ez zait egia esan batere harrigarri gertatu Fermin Irigarai *Larreko* mediku onberak apaizei sinestea (1926), Mateo Mujika gotzainak eboluzio materialista dekretuz (1931) ukatzea, Aita Barandiaran patriarka kreaizozale (irazapenzale) izatea (1932), Piarres Lafitte kalonjeak Jainkoaren aldeko apostua egitea edo *Orix* mistika-idazleak eboluzioaren

ateak zerraila eta guzti ixtea (1948). Nekez zitekeen bestela\*.

Ene irudiko askoz ere harrigarriagoa da 1980an biologian lizentzia lortu zuen Kepa Altonagak berak artean gauzak hain argi ez izatea eta, hitzez hitz aitortzen duenez, 1982an François Jacob Nobel saridunaren *La lógica de lo viviente* eta *El juego de lo posible* irakurri arte "osozko eboluzio-zaleen taldera" ez lerratu izana.

Bistan da gero, 1975tik 1980ra unibertsitatean aritu izan zen bitartean, Kepa Altonaga gazteak ez zuela Koldo Mitxelenaekin hainbat elkarrizketa, bazkaloste edo hitzaspertu egiteko aukerarik izan.

Paradoxa bada ere, Leioan biologia ikasi beharrean Gasteizen hizkuntzalaritza egin izan balu, agian dezente lehenago ikasiko zukeen Darwinen berri.

\**Altonaga bezain "basaltotuta" nago, oster, Plazido Muxikak evolucionismo-darwinismo zentzua euskaratzeko egin zuen proposamenaz: darbineria. Eta, ikusi dudanez, ez 1965eko lehen argitalpenean soilik, baita 1981ekoan ere. Hamaika ikusteko jai gin!*

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola  
Zuzendari nagusia Inazio Arregi  
Zuzendaria Eneko Azkarate  
Erredaktore burua Monika Belastegi  
Sailatuko arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtzelai  
Maketaria Kepa Martelo, Imanol Soriano  
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Bereibar, Imanol Elortza  
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate  
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia  
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA  
BERGARA 20570: Ibarra, 6  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 12  
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com  
ARETXABALETA 20550: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Fax: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Fax: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
Harpidetza Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
Lege Gordailua: SS-0088/04  
ISSN: 1697-3542  
Tirada: 5.000 ale.  
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Agurne Juldain, ACABE Elkarteak Arrasaten duen bulegoan. | MIREIA BIKUÑA

**Agurne Juldain** | Psikologoa

# "Elikadura-arazoak dituen gaixoa guregana dator hondoa jo duenean"

- ▶ Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarteak hitzaldia egingo du bihar Kulturaten
- ▶ Debagoieneko bulegoa dute Arrasateko Altamira auzoan, Jose Luis Iñarra pasealekuan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

ACABE Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarteak hainbat hitzaldi egiten dihardu Debagoienean. Elkartearen jardunaz azalpenak ematen dabil Agurne Juldain psikologoa.

**Hitzaldia egin zenuten aurreko astean Bergaran eta hilaren 18an Arrasaten egingo duzue. Elkartearen jardunaz diharduzu berbetan.**

Hala da. ACABE Debagoiena elkartearen egoitza Arrasateko Jose Luis Iñarra pasealekuan dago, Altamira auzoan. Martitzenetan psikologoa egoten da eta astelehenetan bi boluntario daude. Gaixotasuna gertutik bizi duten bi ama dira, eta euren esperientziak kontatzen dizkiete beste gurasoei. Bi egunetan, 16:00etatik 20:00etara egoten gara.

**Debagoiendarrek badakite ACABE-ren bulegoa erabiltzen?**

Normalean, guregana etortzen direnak ez dira anorexia edo bulimia dutenak izaten. Etxekoak, bikotekidea edo lagunak datoz informazio eske. Haiek dira gaixogana heltzeko bide errazena. Gaixoa guregana etortzen direnean hondoa jo dutelako da.

**Ze bide jarraitu behar dituzte zuegana doazanak?**

Alde batetik, esaten diegu etxean bizi duten egoera aldatzen aha-

legindu behar dutela. Halako gaixotasuna dutenen etxean istiluak egoten dira jatorduetan. Beste alde batetik, jarraitu beharreko bide batzuk ematen dizkiegu gaixoa ACABEko psikologoa-rengana eramateko.

**Behin hori lortuta, zer-nolako tratamendua jarraitu behar dute?**

Tratamendua oso gogorra da, eta askotan luzea. Espezialista batek zehazten ditu jarraitu beharrekoak: nutrizionistak, psikologoak, psikiatrak...Guk ACABE-n egiten duguna da tratamendu horren jarraipena, eta laguntza eskaini, bai gaixo dagoenari, eta baita harekin batera gaixotasuna sufritzen dutenei ere.

**"Arrasateko Altamira auzoan gaude, astelehen eta martitzenetan"**

**"Anorexia edo bulimia dutenek tratamendu gogorrak dituzte"**

**Anorexia eta bulimia sufritzen duten guztiak sendatzen dira?**

Adibide bat jarriko dut. Elikadura-arazoak dituztenen kopurua hiru zatitan banatuko nuke, pastel baten antzera: heren bat gutiz sendatzen da, beste heren batek gaixotasuna gainditzen du, baina berriro erortzeko arriskua dauka, eta azken herena ez da inoiz sendatzen.

**Egungo gizarteak duen gaitz nagusietako bat dela esango zenuke?**

Bai, zalantza barik. Egutero esku artean dugun gaitza da, eta, agian egunerokotasun horregatik, ez dugu kontuan izaten. Noizbehinka irteten da hedabideetan. Orain dela gutxi, oso argal zegoen modelo bat hil zen, eta orduan hasi ziren berriro anorexiaren gaia-ekin. Beste adibide bat, iaz arropen neurriak bateratzeko asmoa agertu zutenean, argaltasunaz hitz egin zuten.

**Debagoieneko ACABEren bulegoa 2003an zabaldu zenuten. Zenbat gaixo izan dituzue ordutik hona?**

Datu zehatzak ezin ditugu eman, baina urtez urte mantendu egin direla esango nuke. Urtero etortzen zaigu berriren bat, baina ez dugu izugarritzko gorabeherarik izaten.

**Anorexiak eta bulimiak nortzuegan eragiten du gehien?**

Geroz eta mutil gehiago datoz guregana, baina oraindik ere, neskak dira gehienago. Adinari dagokionez, batez beste, 22 eta 25 urte artekoak dira. Baina ikusi dugu gaixotasuna umeek, nerabeek eta helduek ere sufritzen dutela. Garbi eduki behar dugu 9-10 urteko edo 50 urtetik gorako edonork izan dezakeela anorexia edo bulimia.

**Modak eragin zuzena dauka elikadura-arazoetan?**

Bai. Gaixo dauden neskek modaren eragin zuzena dute. Hedabideetan modelo oso argalak agertzen dira, argalegiak batzuetan. Arropa erostera goazenean, bestalde, neurriak oso estuak

**"Elikadura-arazoak dituztenengan eragin zuzena dute modak eta kirolak"**

**"Gaixotasuna prebenitu daiteke, etxean elikadura orekatua eginda"**

izaten dira, eta horrek ere ez du askorik laguntzen. Mutilen kasua oso bestelakoa da. Batzuek modaren eragina izaten dute, baina gehienek kirolarekin lotzen dute euren gaixotasuna. Kirola asko egiten dutenak dira elikadura-arazoak izaten dituztenak.

**Anorexia eta bulimia prebenitzeko neurriak har daitezke?**

Nik esango nuke baietz. Gaixotasuna sortzeko beste eragin izan dezake egungo gizarteak prebentziorako ere. Hedabideetan ikusten ditugun iragarki gehienetan emakume eta gizon argalak agertzen dira. Nerabeendako haiek dira erreferentzia. Etxean ere prebeni daiteke, adibidez, elikadura orekatuaren aldeko apustua eginda. Baina guztiok oso azkar bizi gara, eta ez dugu jatordurik egiten lasai.

Bestalde, oporren ondorengo egunak arriskutsuak izaten dira. Gabonen eta abuztuaren ondoren, gehiegizko kiloei aurre egiteko, *bikini-operazioa* hasten dute askok, inongo neurri barik.

**ACABE Debagoiena elkartera joan gura duenak zer egin behar du?**

Astelehen eta martitzenetan gaude. 943 79 69 27 da gure telefonoa. Gainera, bihar 19:00etan Kulturaten egingo dugun hitzaldian ezagutu ahal gaituzte.





# Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu

**Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela eta, baliteke Goiena telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea.**

**Ondorengo herrietan bakarrik dute eragina:**

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.

Kasu honetan, zure telebista berriro sintonizatu beharko duzu. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zu zeuk eskuz) Goiena telebista.

**Berriz sintonizatu, baldin-eta:**

- Aipatutako herriren batean bizi bazara.
- Telebista LTD bitartez ikusten baduzu.
- Orain arte Goiena telebista ikusi baduzu, baina orain ikusten ez baduzu.

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Nere Mujika** | EAJko zinegotzia Bergaran (1979-83)

- ▶ Kultura eta jaietako zinegotzia izan zen Mujika, Jose Antonio Zabala alkatearen taldean
- ▶ Oraindik ere urtean behin batzen dira sasoi hartan EAJko zinegotzi izandakoak
- ▶ Bergarako Eusko Alkartasuneko presidentea izan da urtetan

## "Tejerazoak' udaletxean harrapatu gintuen eta tentsio handiko orduak izan ziren haiek"

EDU MENDIBIL | BERGARA

Frankismoaren osteko lehen udalbatza demokratikoan jardun zuen Nere Mujikak (Bergara, 1932). Jose Antonio Zabala zenak gidatzen zuen udal gobernuan bi emakume ziren garai haietan: Luisita Gallastegi (egun Zarautzen bizi da) eta Mujika bera. Oraindik ere urtean behin batzen dira, San Martzial egunaren bueltan, sasoi hartan EAJko zinegotzi izandakoak. Bederatzi lagun ziren eta bi baino ez dira falta, Zabala alkate ohia eta Floren Yarza. Gaur egun gutxi ateratzen da etxetik Nere eta han hartu gintuen egubakoitzean, beti bezain jator.

**Nola eman zenuen politikan has-teko pausoa?**

Javier Ilzarbek, orduko Bergarako EAJko presidentea proposatu zidan zerrendan joatea eta Ferminek, gizonak animatu ninduen; betitik oso *politikeroa* nintzela eta baietza emateko, etxean lagunduko zidala. Udaletxeko kontuetan ez geneukan esperientziarik, jakina, baina ilusioa bai. *Birjinak* ginen nolabait esatearren eta gehiengoarekin gobernatzea



Nere Mujika irakurtzeko etxean duen txokoan, joan den egubakoitzean. | E.M.

egokitu zitzaigun. Hala ere, bes-telako alderdiekin harreman onak genituen. Oker ez banago, HBk bost zinegotzi zituen eta PSE-PSOEk, EMKk eta EEk bana.

Jesus Mari Garitano zen EMKko zinegotzia eta hirigintza kontuetarako sentsibilitate berezia zuen ordurako.

**Eta nolako alkatea zen Jose Antonio Zabala?**

**"Pertsona zoragarria zen Zabala, alkate onena"**

**"Presoen aldeko mozioekin asko sufritzen genuen udaletxean"**

Munduko onena. Pertsona zoragarria zen, denekin ondo kontopontzen eta besteei entzuten zekiena. Familia Donostian zuen eta sakrifizio handia egin zuen herriaren alde. Bere aita, Perico, gerra aurreko udaletxeko azken idazkari demokratikoa izan zen eta Jose Antonio, demokrazia garaiko lehen alkatea. Gerra ostean Ondarretako espetxean egon ziren Perico eta Luis Zabala, gure aita [Markos Mujika], Eustakio Agirre *Prakamotz*, Gracian Agirre eta beste hainbat.

**Agintaldi bakarra egin zenuen udaletxean...**

Bai. Egia esateko, zenbaitetan, bereziki presoen aldeko mozioak aztertzen zirenean, asko sufritzen genuen udaletxean, denetik entzun behar izaten genuen. Norberaren

herrian horrelakoak jasatea oso gogorra da eta nahiago izan nuen politikatik zertxobait alden, nahiz eta gertutik jarraitzen nuen. Zinegotzi jarraitzeari uko egin nion: behin eta nahiko.

**Handik gutxira EAJren zatiketarekin nahiko sufrituko zenuen...**

Bai, 1986an etorri zen zatiketa. Oso kontu larriak gertatu ziren eta argi izan nuen Eusko Alkartasunarekin joatea. Jose Antonio Zabalak, Alberto Bolibar edo Ricardo Otaño orduko zinegotziek ere bide bera aukeratu zuten... Bergarako EAJko presidentea izan naiz urtetan, baina gaur egun politikarekin zertxobait desilusionatuta nago, egia esateko.

**Zuen sasoiaren Bergaran egindako lanetatik bereziena, zein?**

Nahiko gauza egin ziren: Mizpialde martxan jarri, saihebidia (Garaikoetxea etorri zen inauguraziora), Usondo parkea ere sasoi hartakoa da, Rekalde jauregia prezio onean erosi genuen (erdia Bergarako herriari oparitu zioten jabeek), Errotalde herritu zen...

Eta bitxikeri bat: EAJko zinegotziok ez genuen kobratzen eta diru harekin bi plaza txiki egin ziren, Batzoki aurrealdekoa eta Orueta etxearena [Egino Mallea].

**Tejeroren estatu kolpe famatua ere ordukoa da...**

Udaletxean ginen eta norbaitek deitu zuen horren berri emateko. Irrati bidez jarraitu genuen kolpea, Batzokira joan ginen... eta erregeak berba egin zuenean orduan lasaitu ginen. Batzokitik paperak ateratzen hasiak ziren ordurako... Gizonak deitu zidan eta etxera joan ginen gero. Inor ez zebilen kalean. Susto ona hartu genuen denok.



Nere Mujika Zabala alkatearen (eskuman) ondoan, San Martzialen. | ARTXIBOA



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatzu s.p.a.**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

# HERRIAK

## Mari Justaren jaitsiera Uberako San Paulo jaiei hasiera emateko

Mari Justa Beiztegi nolabait omendu nahi dute auzotarrek, Uberari egindako ekarpenagatik

EDU MENDIBIL | BERGARA

Mari Justa Beiztegi Idarraga oso emakume ezaguna izan zen Uberan zein inguruko herrietan eta hura nolabait omendu nahirik, aurrerantzean, Zeledonekin edo Bitorianatzorekin egiten den moduan, Mari Justaren jaitsiera egingo dute Uberan San Paulo jaiei hasiera emateko. Egubakoitzean, hilaren 23an, izango da hitzordua, 20:30ean Uberako frontoian. Baina nor zen Mari Justa? Iñigo Olañetak (74 urte) eta Luis Mari Gutierrez (66 urte) auzotarrek ondo gogoratzen dute. Luis Mari Gutierrezek hitzetan, "Idarraga Azpikoa baserriko maiorazkoa zen eta gure sasoiko ume guztiek ezagutzen zuten, Bergaran eta inguruko herrietan ere bai. Jairik jai ibiltzea atsegin zuen eta Madrilera edo Zaragozara ere joaten zen. Jaiak non, Maria Justa han". Iñigo Olañetak gehitzen duenez, "Mallabiko Pedro Jose Astarloarekin ezkondu zen, baina ez zuten seme-alabarik izan. Bi tapako zestoa eskuan, Elbarrera edo Bergara jaisten zen Mari Justa, baserriko produktuak saltzera eta inor ez zen geratzen Mari Justa agurtzeke".

### San Pauloko kanpai-hotsak

Antza, Mari Justa 1884an jaio eta 1976an hil zen, heriotza datarekin oraindik ere zalantza dezente dagoen arren. Edozein modutan, halaxe jaso dute aurtengo jaien egitarauan. Omenaldiaren arrazoi nagusia zera da: Mari Justak, oinordekorik ez zuenez, auzoari hiru milioi pezeta inguru utzi zizkion, baldintza bakar batekin: haren nahia baserriatik San Paulo elizako kanpai hotsak entzun ahal izatea zen. Horretarako, elizako erloju berria Mari Justaren heriotzaren aurretik jarri zuten. 1980ko hamarkadaren hasieran, berriz, elizaren berritzea egin zuten auzolanean, Mari Justaren dohaintzari esker. Eliza jausteko arriskuan zegoen garai hartan. Idarraga Azpikoa baserriari dagokionez, Rufino Zenitagoia zenak gotzaindegiari erosi zion Mari Justa hil ondoren.

Mari Justa gogoan, esan beazala, jaiak egubakoitzean hasiko dira. Asteburuko ekitaldiez gain, martitzenean, hilaren 25ean, San Paulo Eguna ospatuko dute. Meza-oren ostean salda eta txistorra izango da; eguaztenean ere bai, San Paulo Txiki ospatzeko.



Mari Justa Beiztegiaren erretratu bat, Urbiara bidean, 1960ko hamarkada ingurukoa. | IÑIGO OLAÑETAK UTZITAKO ARGAZKIA

JESUS MARI ELORTZA | UBERAKO AUZO ALKATEA

## "Gure moduko auzoak gainbeheran datoz eta bultzatzea da helburua"

Jesus Mari Elortza (51 urte) dugu Uberako auzo alkatea orain dela zortzi urtetik. Auzoaren egoeraren gainean egin dugu berba Elortzarekin.

### Ikur berria duzue jaietarako.

Bai, inork ez dezala pentsa txantxetan egindako gauza denik. Mari Justak gauza asko egin zituen Uberaren alde eta merezitako errekonozimendua egin nahi diogu. Inoiz ez da berandu...

### Zelan dago Ubera gaur?

Auzoaren kohesioa lantzeko ahaleginetan gabiltza. Itsasmendikoik abian jarritako Bepiztu programaren bitar-

tez eta Udalaren laguntzaz, auzo dinamizatzea da asmoa. Bizpahiru urte darabagu programarekin. Angiozar eta Elosua ere ari dira. Gure moduko auzoak gainbeheran datoz aspaldian eta helburua talde zabala sortu eta ekintzak bultzatzea da. Aitor Larrañaga azkoitiarra dabil dinamizatzaile; hamar bat lagun finkoak gara eta kolaboratzeko gertu daudenak, beste horrenbeste. Urbera auzo elkarte sortu genuen iaz auzoari bultzada emateko. Bloga ere badaukagu: [www.blogak.com/uber](http://www.blogak.com/uber).



Jesus Mari Elortza. | E.M.

### Zergatik Urbera? Ez da izena nahasgarria gertatuko?

Auzoaren izena Ubera denez, arazoak izan genituen elkarteari izen bera jartzeko orduan. Hiru errekek bat egiten dute Uberan: Zezia errekek, Marki errekek eta Intxortak eta ura goitik

### ASTEBURUKO EKITALDIAK

#### URTARRILAK 21

**20:30** Txupinazoa eta Mari Justaren jaitsiera.

**21:00** Afaria trikitilarekin.

#### URTARRILAK 22

**12:00** Salda, txistorra eta sagardo dastaketa.

**12:00** Kukañak eta buruhandiak. Ondoren luntxa txikientzat.

**14:00** Herri bazkaria

**18:00** Musika Manu Iztuetarekin.

#### URTARRILAK 23

**10:00** Diana Bergarako txistulariekin.

**10:30** Meza Nagusia.

**11:30** Alai Taldea eta Moises Azpiazu taldea.

**11:30** Salda eta txistorra.

**12:30** Uberako 2. ugarixo-tiroketa txapelketa.

datorrenez hortik omen dator Ubera izena. Horregatik jarri diogu Urbera.

**Zenbat lagun bizi zarete Uberan?** 130 inguru. Azken hamar urteotan ez da gorabehera handirik egon: 2000. urtean 141 ginen; 2005ean 150; 2007an 143...

**Zer nolako ekitaldiak antolatzen dituzue Urbera elkartetik?**

Adin guztiendako ekintzak antolatzen saiatzen gara: umeendako jarduerak, erretiratuendako irteerak, emakumeendako bazkaria egin genuen martxoaren 8an Jaolatzu elkartearen, San Juan sua kalean eta beste hainbat kultur ekitaldi.

**Zein aurrekontu duzue jaietan?**

Bi mila euro pasatxo. Udalak 1.600 euro eman dizkigu, baina kopuru horretan San Matei ermitako eguna ere sartzen da: berez abuztuaren 31n da baina iraileko lehen domekan ospatzen dugu normalean. Hori ere egun berezia izaten da.

# goienakluba™

Abantailaz betetako kluba!

## URTARRILEKO ZOKKETA



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

### EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA ZIRA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.



### LIBURU SORTA

Bidali KLUBA LIBURUAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.



### UMEENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.



### REALEKO MOTXILA ETA BUFANDA

Bidali KLUBA REALA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.



### ERREMEIXUAK DVD-A

Bidali KLUBA DVDa  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.



## SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

## 26 HAZBETEKO TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Hainbeste dantza eginez, batek baino gehiagok izerdi patsetan amaitu zuen zapatuan dantzaldia. | JULIO CALLEJA

### BERGARA

# Arrakastatsu ekin diote urteari gaztetxoendako DJ jaialdiek

Zapatuan egin zuten Zabalotegin gazteendako urteko lehen DJ jaialdia

#### TXOMIN MADINA | BERGARA

Zapatu arratsaldean Zabalotegi aretora hurbildu zenak, ez zuen betiko areto lasaia aurkitu: aulki guztiak kendu ostean argi distiratsuek, diskoteketako keak eta musika dantzagarriak hartu zieten lekua ohiko antzezlanei eta formatu txikiko kontzertuei. Izan ere, Udalak antolatuta, asteburuon izan da DBHko ikasleendako urteko lehen DJ jaialdia eta gaztetxoek ez zuten galdu gura izan.

18:30ean Zabalotegiko "dantzalekuak" atek zabaldu zituenean, 200 gaztetxo inguru sartu ziren, eta orduak aurrera egin ahala

kopurua apur bat jaitsi arren, giroarekin ez zen gauza bera gertatu.

#### Askotariko musika

Jon Urbietaren izan zen urteko lehen jaialdiko disko jartzailea eta abesti sorta zabala aukeratu zuen gaztetxoentzat: reagetona eta puri-purian dauden erritmo dantzagarriak batzuetan, Ken Zazpiren *Itsasoa gara* bezalako doinu lasaixeagoak bestetan.

Urbietaren lana baina, ez zen musika jartzera mugatu: tarteka koreografiak ere erakutsi zizkien eta neska-mutikoei.

#### Neskak, animatuagoak

Dantzatzeko pistara begiratu bat botata, argi zegoen gorputza mugitzeko orduan, neskak lotsa gutxiago dutela, eta hala, eurak izan ziren gehiengoak. Dena den, baziren *Fama* eta halako saioetan ikasitako pausak errepikatzen zituzten mutilak ere.

Esan behar da baina, dantza eta dantza artean ligatzen den edo ez galdetuta neska-mutikoei baietz aitortu arren, abesti galdetan taldekako dantzak gehiago zirela bikoteak baino. Urterilaren 29an bihurtuko da berriz ere dantzaleku Zabalotegi.



**UNAI ZUBIZARRETA**  
12 URTE, BERGARA

"Dagoenean behintzat, etortzeko ohitura dut. oso ondo pasatzen dut, nahiz eta barruan bero egiten duenez, tarteka kanpora atera behar izaten den. Dantzarik egiten dudana? Bai horixe! Egia da baina, mutilok gehiago egoten garela berbetan, eta neskak, dantzan. Ligatzeko gainera, leku proposa da, nahiz eta abesti motelak ez dituzten hainbeste jartzen".



**GOIZALDE AROZENA**  
13 URTE, ANGIOZAR

"Ondo pasatzen dut eta dagoenean, beti etortzen naiz. Lagun guztiak etortzen dira, beraz eurekin elkartzeko leku ona da. DJak giro dezente jartzen du, eta koreografiak erakusten dituztenean, bere pausak jarraitzen ditugu. Nik neuk gainera, gustukoago izaten ditu abesti *martxosoak* geldoak baino. Hobeto hemen parkean edo tabernetan baino!".



**LEIRE ELKORO**  
12 URTE, ELGETA

"Nahiz eta bero handia egon eta musika tarteka oso gustuko ez izan, lagunekin egoteko leku ona da. Nik neuk nahiago izaten ditut abesti *martxosoak*, eta abestia gustuko badut, dantzara ere animatzen naiz. DJari ari ez diot kasu larri egiten, neure kasa dantzatzeko. Ligatzen den? Dezente! Gomendatzeko modukoa da jaialdia".

ONATI

# Lizarralderen 'Gartzela' film laburrak ikusmin handia piztu zuen egubakoitzean

Kultura etxeko aretoa bete egin zen; ekitaldian 'makin of'-a ere erakutsi zuten


MIRIAN BITERI | OÑATI

Jendez lepo bete zen egubakoitz iluntzean Oñatiko kultura etxeko areto nagusia, Iban Lizarralde zuzendari oñatiarraren *Gartzela* izeneko film laburra ikusteko. Azken momentuan iritsi zirenen-dako zaila izan zen ikuskizuna ikustea, eskaillerak eta goi aldea ere beteta zeudelako.

Hasieran, film laburraren grabaketa nolakoa izan zen azaltzen zuen emanaldia bota behar zuten; baina, arazo teknikoak zirela-eta, azkenean film laburra bera ikusi zuten aretoan batutakoek; tartean, etxeko eta lagun asko. Horren ostean, proiektuan

parte hartu duten hainbat lagun igo ziren agertoki gainera. Lizarraldek azaldu zuen 2007an hasi zela gidoia idazten; lanak hiru urte geroago ikusi zuen argia. Grabazioari dagokionez, irudiak otsailaren 28an eta martxoaren 28an eta 29an Legazpin, Seguran eta Lazkaon hartuak izan zirela ere adierazi zuen.

Lanarekin "oso gustura" geratu direla esan zuten guztiak. Grabazioa "oso ondo" egon zela aipatu zuten, lanean "ordu asko" eman bazituzten ere. Horren harira, lantaldean sortutako giroa nabarmendu zuten. Ekitaldia *making off*-arekin amaitu zen.



Film laburraren egileak Oñatiko kultura etxean, estreinaldia hasi aurretik. | JULIO CALLEJA



**MARI KRUZ ARANBURU**  
LIZARRALDEREN AMA

"Asko gustatu zait emanaldia. Dena dela, film laburra aurretik ikusita neukan; etxean, hain justu ere. Pozgarria da ikustea zure herriko aretoa bete egiten dela, semeak zuzendutako proiektua ikusteko".



**JABI AGIRRE**  
IKUSLEA

"Sorpresa ederra izan da niretako Iban Lizarralderen alderdi hori ezagutzea; ezagutzen dut baina beste alor batzuetatik, eta ez nekien horrelako film labur baten zuzendaritzan sartuta zegoenik. Asko gustatu zait".



**IBAN LIZARRALDE**  
ZUZENDARIA

"Emanaldia oso ondo joan da, jende asko etorri da eta oso gustura nago. Lanarekin oso pozik nago; fase bakoitzak berea dauka, guk filma amaitu dugu eta orain promozioarekin gabiltza eta dena ondo doa".



**IÑAKE IRASTORTZA**  
AKTOREA

"Oso ondo hartu gaituzte Oñatin, aretoa bete egin da eta ematen du jendeari gustatu zaiola. Gustura nago guztiarekin; filmaren gidoia asko gustatu zitzaidan eta jarraian animatu nintzen parte hartzera; gaia gogorra bada ere, polita da".



**PEIO GUTIERREZ**  
PRODUKTOREA

"Ederki ibili gara Oñatin, jende asko gerturatu da eta ikusleen aurpegiak ikusita, ematen du gustatu egin zaiela. Ekoizpen-etxean film laburretan parte hartzea asko gustatzen zaigu; hau proiektu serioa zela ikusi genuen hasieratik".

BERGARA

## Egubakoitzetik zapatara 450 lagunek bisitatu zuten Aranzadiren arte erakusketa

Ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan dago

M.B. | BERGARA

Harrera ona ari da izaten egubakoitz iluntzean Bergarako Aroztegi aretoan inauguratu zen Aranzadi ikastolaren erakusketa;

lehen bi egunotan, 450 bisitari inguru pasa ziren-eta handik.

Egubakoitzeko ekitaldian, 200 bat lagun batu ziren; ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak

gehienak. Antolatzaile lanetan dabilen Justina Elexpurren esanetan, ekitaldi "xumea baina polita" izan zen. Gitarra eta txistu lagun zutela, musika piezaxoa eskaini zuten Edurne Barrutiak eta Begoña Lasagabasterrek. Jarraian, ikusgai zeuden artelanak ikusteko ordua heldu zen.

### 56 artisten lanak

Ikastolarekin lotutako 56 artisten lanak ikusi daitezke han; tartean, Juanjo Altuna eta Manu Munia-tegiandikoetxearenak. Horren harira, Elexpurrek barkamena eskatu du, erakusketa egiterakoan, norbaitekin ez badira gogoratu.

Erakusketa hilaren 30era arte egongo da ikusgai honako ordu-tegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.



Egubakoitzean inauguratu zuten erakusketa. | JULIO CALLEJA



ARETXABALETA

JULIO CALLEJA

## Familia bateratzeko artea

Hamabi familia batu ziren zapatuan Aretxabaletako Arkupen egindako *Dantza familiar*: egizu dantza zure haurrekin izeneko ekimenean. Guraso-haur bikoteek ederto pasa zuten dantza egiten eta jolasean; balea edo otsoa bezalako animaliak imitatzen ere ibili ziren. Ekainera bitartean, zapatu goizetan batuko dira, Magdalena Milano irakaslea ondoan dutela.

# Oñatiko urak Epelera eramateko hoditeria sartzen hasita, gero dator bidegorria

Martxorako Epeleko araztegia oso-osorik bukatu gura du Edar-Epele enpresa elkarteak

UBANE MADERA | ARRASATE

Asteon hasi dira Oñatiko ur-zikinak Epeleko araztegi berrira bideratzeko hodiak sartzeko lanak. Elorregi inguruan dabilta makina hondeatzaileak, trenbide zaharrean, bertatik bideratu behar dituzte-eta Oñatiko urok Arrasateraino, garbitu eta berriro errekaratzen bidaltzeko.

Obra horren pausoak honako hauek izango dira: hodiak sartu, hormigoizko plaka jarri gainean eta gero bidegorria egin, 400-500 metrokoa.

## Bidegorria industrialde atzetik

Bidegorri zati hori Epeleko araztegiraino iritsiko da (Arrasate). Hortik Kataide industrialdera arteko bidegorri zatia etenda dago une honetan, oinezkoen pasabidearen lotura zen antzinako zubia bota egin dutelako. "Zubi hura botatzea aurreikusita zegoen, obrak hala eskatzen zuelako. Baina bidegorria berreraiki egingo dugu: industrialdeko pabiloien atzeko aldetik pasako da, araztegiaren eta errekararen artean. Hilabete honetan bertan gertu utzi nahi dugu hori guztia; dena den, bagabiltza aztertzen Arrasate eta Elorregi (San Prudentzio) artean bidegorria erabili ahal izateko

desbideratze bat sortzea", adierazi dute obra egiten diharduen Edar-Epele enpresa elkartetik.

## Errepideko errebutan lanak

Otsailerako, berriz, beste mugarririk garrantzitsu bat dute obra horietan: Arrasaten AP-1 autobidea baino lehen dagoen errebuta birmoldatzen hastea. "Aur bat zuzendu egin gura dugu errebuta; S itxurako errebuta da, eta helburua da halako norabide aldaketa zakarra beharrean, errebuta soil bilakatzea. Errekari lekua irabazita egingo da konponketa hori".



Makina hondeatzailea trenbide zaharraren Elorregiko zatian dabil lanean, tunel aurrean. | UBANE MADERA

## Bide bakarra itxi

Konponketa horrek, baina, eragina izango du ibilgailuen joan-etorrarian: "Bide bat egokitu egingo da zirkulaziorako, eta bestean egingo da lan. Egia esan, egin beharreko ekintza txikia da".

## Epea: martxorako bukatuta

Bada, hori guztia eta araztegia bukatzeko falta diren gainontzeko lanak (uren tratamendurako "igerilekuak" bukatu, urbanizazio lanak...) martxorako bukatzea dute aurreikusita. "Hala ere, gero

probaldirako sasoiak izango dugu, sei hilabetekoa. Guztia ondo dabilela ikusten dugunean utziko ditugu obrak behin betiko. Izan ere, gero araztegiaren esplotazioa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren ardura izango da".



Araztegiak 2,5 hektarea hartzen ditu, AP-1 autobidearen albo bietan. | U.M.

## Segundoko 848 litro ur tratatzeko aukera

Epelekoa izango da Deba ibai osoko saneamendu sarea biribilduko duen azpiegitura. Segundoko 848 litro ur tratatu ahal izango ditu; hain justu, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko urak garbituko ditu, gero berriro ere Deba ibaira bideratzeko. Uron tratamendurako 11 ur biltegi eta bulegoen eraikina ditu urbanizazio barruan. Guztira, 2,5 hektareako espazioa hartzen du, AP-1 autobidearen irteeraren albo bietan.

Spainiar Ingeñeritza Ministerioak hartu zuen araztegia egiteko ardura, interes orokorreko lanak zirela aitortuta, eta 2007an hasi ziren obrak. Berez, iazko, 2010erako bukatzea zuten aurreikusita, eta araztegia bere aurtengo apirilean lanean hastea. Aldiz, obrak atzeratu, eta aurtengo martxo-apirilerako bukatuko dituzte, eta gero, sei hilabete probaldian izango dute araztegia, guztia ondo dagoela egiaztatzeko. Horren ostean hasiko da funtzionamendua.

## Autobus urbanoa ordu erdiro, erabiltzaileak gustura

UBANE MADERA | ARRASATE

Gustura aurkitu ditugu herritarrek egunotan autobus urbanoari itxaroten. Gustura, batik bat, itxaronaldia iazkoa baino laburragoa delako orain: Errege oatea ezkerreko, Arrasate barruko autobusa ordu erdiro pasatzen da geraleku bakoitzetik.

Autobusak ere desberdinak dira, orain artekoak baino txikiagoak. Eta horrek, adibidez, erraztu egin du gidarien lana: "Mugikortasun hobea dute errebutak-eta hartzeko", adierazi du gidari batek. "Egia da leku txikiagoa ere badagoela, baina horrek abegitsuago egingo ditu".

## 'Overbooking'-a

Hori bai, txikitetasun horrek *overbooking*-a eragingo duen beldur ere badira batzuk, azoka egunean, adibidez, gehiagok erabiltzen dutelako urbanoa.

Eta zerbitzu berriarekin oso konforme egon arren, hobetzeko proposamenak ere egin dituzte

beste batzuek: "Nagusiendako, lotzeka zerbait ipini beharko luke, ze aurrekoan bat erori egin zen-eta; jarlekuak lehengoak baino txikiagoak dira, eta errebuta hartzean gehiago mugitzen da".

Bestalde, gehienek badakite orain Lurraldebus txartela erabili daitekeela Arrasateko urbanoan, eta hori islatu egin da datuetan: 1.157tik 639k erabili dute txartela hasierako hiru egunetan.

## Izenematea zabalik langabeendako jostintzan

U.M. | ARRASATE

Udaleko Enplegu Zerbitzuak jostintza ikastaroa antolatu du, Emaus Fundazioarekin elkarlanean. Helburua da jostintza mekanizatuaren arloan lanerako prestakuntza ematea langabezia daudenentzako, eta, bide batez, Udalak gura du Emausek Arrasaten duen gizarteratze tailerlean lan egiteko pertsonen lan poltsa sortu. Izena emateko epea urtarilaren 24an amaituko da: 9:30-15:30etik 20:30era, urtarilaren 31tik apirilaren 8ra arte.

Eskolak Nafarroa etorbidetan izango dira, Emausen saltokiaren gaineko lokalean, astelehenetik egubakoitzera, 15:30etik 20:30era, urtarilaren 31tik apirilaren 8ra arte.



### JUAN CARLOS SANTANA

"Goiko auzoetakoei mesede egingo digu. Autobus berriak ere ondo pentsatzen zaizkit, baina egubakoitzean, azokarekin handiak ipini beharko dituzte, ze bestela...".



### ITZIAR MARTIN DE OTXOA

"Autobus gehiago dago, ordu erdiro, eta hobe da. Autobus berriak txikiagoak dira, eta batzuek esaten dute karro gutxiago sartzen direla... baina, nire ustez, ondo daude."



### LORENZO GALLARDO PONCE

"Ondo dagoela pentsatzen dut, emazteak erabiltzen du, bereziki, ospitale ingurura joateko. Zerbitzu ona ematen du eta orduan behin ordu erdiro bada, hobe."



### RITA URRUTIA EZKURRA

"Uste dut erretiratuondako oso garestia dela: 1,35 euro. Txartela ateratzeko, berriz, 21 egun behar direla esan didate eta hori ere asko da. Maiztasuna, berriz, ondo dago".

## UNE: Uriarteren ahotsak gidatutako saio atsegina

'Akustikoak eta bestelako uneak' diskoa aurkeztu zuten gaztetxean emandako kontzertuan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hasi dira Kooltur Ekintza taldearen 2011ko *Kooltur ostegunak*. Une izan da urte berriko egitaraua estreina-tu duena eta oro har, saio atsegina eskaini zuten. Bateria, baxu, bi gitarra akustiko, teklatu eta Aitor Uriarte oñatiarraren ahotsarekin irten ziren agertokira.

Hasieratik argi eta garbi geratu zen musika instrumentuekin oso teknikoak direla eta Uriarteren ahotsa emanaldiaren gidaria izango zela. Eta hala izan zen, ia saioaren osotasunean. Hala ere, *gidoia* apurtu zuen sorpresatxo bat ere izan zuen emanaldiak: kontzertuaren erdialdean agerokira gonbidatu zuten saxofoi-jolearen ekarpena gustu handiz jaso zuten ikusleek. Ohio-ko (AEB) lagun bat zen, taldeak orain gutxi ezagutu duena. Bada, haizezko ekarpen interesgarria egin zuen saxofoiarekin, eta berak eragin

zuen, akaso, Uneren kontzertuko une gorena. Gorena, edo behintzat ikuslearekin *feedback* gehien izan zuena: taldea ingelesez abestutako bertsio bat jotzen ari zela, mikroa hartu eta *repeatzen* hasi zen. Argi utzi zuen beste behin ere, azalez beltzak direnek musikarako dohain berezi bat dutela.

### Emanaldi lasaia eta atsegina

Kontzertuan jende gutxi izan zen –antolatzaileek 50 sarrera saldu zituzten– eta ezin esan giroa beroa izan zenik. Musika aldetik saio ona izan zen, atsegina eta lasaia. Euskaraz abestutako kantuek, eta musikalki hainbat abesti oso antzekoak. Aitor Uriarteren ahotsa goi mailakoa da, argi utzi zuen. Erregistro ezberdinetan abestuz saio bikaina egin zuen.

Eguenean Los Carniceros del norte taldearen punk iluna izango dugu gaztetxean (22:00). On egin!



Aitor Uriarteren ahotsak gidatu zuen Uneren kontzertua. | MONDRABERRI

## Urte berriarekin, eskalada eta eski irteerak gazte txokoen eskutik

Erdialdeko gaztegunea "behar bati erantzuten dion proiektua" da, Txatxilipurdikoen arabera

J.B. | ARRASATE

Gabonetako oporren ostean, urtaririlen 11n zabaldu zituzten Arrasateko hiru gazte txokoak: Musakolako, Erguingoa eta San Andreskoa, hain zuzen. Egun horretatik, Lander Juaristi Txatxilipurdiko dinamizatzailearen arabera, "betiko eskaintza" dute aste barruan. Hau da, eurek antolatzen dute gazte txoko bakoitzean izango den aisialdi eskaintza.

Aste bukaeretara begira ekintza bereziak antolatzen dituzte. Zapatuan, esaterako, Urbiara egin zuten mendi irteera. Eta zapatu honetan, hilak 22, eskalada ikastaroa egingo dute. Iaz Markel Mendieta eskalatzaile arrasatearra izan zen gazte txokoetan eskaladaren gaineko oinarriko argibideak ematen eta beranduago Araotzera egin zuten irteera. Hilaren 22rako, baina, asmoa da talde txiki bat sortu eta, eguraldiaren arabera, Arro-kara edo Iruñeko Rockopolis rokodromo erraldoira joatea.

Hurrengo zapatuan, hilaren 29an, eski irteera egingo dute Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuetakoekin batera. Valdezcaraira joango dira; egun bakarreko irteera izango da, goizean goiz irten eta arratsalderako bueltatu. Materiala badutenek 20 euro ordaindu beharko dute eta eskia eta bestelako materiala alokatu behar dutenek, berriz, 40 euro. Nortasun agiria, telefonoa, hankaren neurria eta altuera jakinarazi beharko dira.

### Lekua, mugatua

Bi irteera horietan izena emateko Gazte bulegora edo gazte txokoetara jo beharko dute gaztetxoek. Lekua mugatua da: eskalada irteerarako zortzi pertsonako taldea sortzea pentsatu dute begiraleek eta eski irteerako, berriz, 30 leku egongo dira Arrasatetik joateko. Hori bai, Aretxabaleta eta Esko-

riatzatik lekua soberan balego, gehiagorendako lekua legoke.

### Gaztegunea, "beharrezkoa"

Bestalde, joan den astean egokitzen hasi ziren erdialdeko gaztegunearen gainean galdetu diegu Txatxilipurdikoei. "Behar bati erantzuten dion proiektua" dela uste dute: "Gazte txokoetako proiektuaren jarraipen moduan ikusten dugu, eta bertan ere aisialdi eskaintza euskaldun baten bidez hezkuntza ez formala garatuko dugu, gazteen garapen eta autonomian bidelagun izateko. Nerabeen eta nerabeendako leku bat izan dadila gura dugu".



Iaz eskalada irteera Araotzera egin zuten gaztetxoek. | GOIENA

## Bi atxilotu, GPS eta aparailu elektrikoak osten saiatzeagatik

U.M./J.B. | ARRASATE

42 urteko gizona eta 29 urteko emakumea atxilotu zituen egunean Ertzaintzak Arrasaten. Polizia iturrien arabera, GPSak, esku librekoak eta bestelako aparatu elektronikoak lapurtzera zihoazen. Hipermerkatu bateko segurtasun dispositiboan indarrez zabaldu zuten lapurretan egiteko. 20:00etan izan zen gertakaria; hipermerkatuko segurtasun langileek eman zuten abisua.

### 800 euroko balioa

Emakumea segurtasunekoek harrapatu zuten, eta gizonetako, berriz, kalera irten behar zenean. Herrizaingo Sailaren arabera, metakrilatozko kutxa indarrez zabaldu ostean ahalagindu ziren aparatuak jantzi artean ezkututzen. 800 eurotan baloratu zuten lapurtzen saiatu zirena.

## Dantza flamenkoa eta argazkilaritza ikasteko aukera Gazte bulegoan

Gazte bulegoaren eskutik, dantza flamenkoa eta argazkilaritza ikastaroak izango dira otsailetik Aste Santura. Dantza flamenkoarena Askoa Etxebarrietak emango du eta otsailaren 8an hasiko da. Argazkilaritza digitalarena, berriz, Antonio Murillok emango du, otsailaren 9tik aurrera.

## Arrasate Pilota taldeak gaur zozketatuko ditu Gabonetako bisiguak

Urtero moduan, Arrasate Pilota taldeak zozketa berezi baterako deia egin du Gabonetan: bi bisigu eta angula kilo bat irabazteko aukera izango dute egun horietan euro baten truke txartela erosi dutenek. Bada, gaur jakingo dugu nor den bi bisiguak irabaziko dituen pertsona. Sari "handia", hau da, angula kiloa, otsailaren 5ean zozketatuko dute. Ohitura den moduan, Santa Ageda egunean, hain zuzen.

Zenbaki sarituak ONCE zozketako azken lau digituak izango dira, eta Arrasate Pilota taldearen esku geratuko da sariak diruz trukatzearen aukera. Ekimenak, noski, pilota taldea laguntzea du helburu.

## Udala prebentzio eta gizarteratzeko teknikari bila dabil

Prebentzio eta gizarteratzeko teknikari bat bitarteko funtzionario izendatu nahi du Udalak aldi baterako. Pertsonal Sailak jakinarazi duenez, urtarrilaren 21a da izena emateko azken eguna. Argibide gehiagorako eta eskaera egiteko honako webgune hau bisita daiteke: [arrasate-mon-dragon.org](http://arrasate-mon-dragon.org). Beste aukera bat da Biztanleen Arreta Zerbitzura (BAZ) jotzea.

Egitekoen artean aurkitzen da, besteak beste, ekintza komunitarioko proiektuak egitea, gizarteratean gertatzen diren ezberdintasuneko egoera sozialei buruz.

# Giroaren gainbehera da gutxien gustatzen zaiena herritarrei

Plan estrategikoa diseinatzeko herritarrekin egindako batzarretan azaldu da kezka hori

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

2020. urtera arteko udalerrirako plan estrategikoa herritarrekin batera egiteko prozesua hasi du Udalak asteon. Hain justu, hiru batzar egin dituzte, Elhuyar Aholkularitzako teknikariek gidatuta. Martitzenean egindako lehenengoan, landa eremuko herritarrak batu ziren; eguaztenean egindako bigarrenean, erdigunekoak; eta eguenean egindako hirugarrenean, periferiako auzoetakoak. Batez beste, 30 bat lagun izan dira.

Batzarren helburua izan da herritarrek Bergararen diagnostikoa egitea; hau da, gaur egun herria nola ikusten duten zehaztea. Baina diagnostikoa bukatzeko, bigarren batzar sorta bat ere egongo da urtarril bukaeran. Landa eremuko bizilagunendako batzarra urtarrilaren 25ean izango da; herrigunekoena, 26an; eta periferiako auzoetakoena, 27an.

## Herritarrei dei egiten diete

Udaletik dei egiten diete herritarrei bigarren batzar horretan ere parte har dezaten. Eta azpimarratu nahi izan dute lehenengo batzarrean joan ez arren bigarrenean parte hartzeko aukera dagoela, guztiok dugulako zeresana halako plan estrategikoa diseinatzeko



Erdiguneko bizilagunek eguaztenean egindako batzarra. | M.B.

orduan. Horrez gain, gazteei ere dei berezia egin nahi diete. Asteon egindako batzarretan, batez beste, 30etik 60 urtera arteko herritarrek hartu dute parte. Hala, 18tik 30era arteko gazteek batzarrotan

egotea garrantzitsua dela azpimarratu dute, eurak izango direlako datozen urteetan herriaren motor.

Bada, herritarrekin egiten diharduten prozesua bukatzeko

beste bi batzar egongo dira: bata otsailean eta bestea martxoan. Zeregina izango da Bergara 10 urte barru irudikatzea eta egoera hori lortzeko estrategiak proposatzea.

## Gehien eta gutxien gustatzen zaizkien gauzak

Asteon egin diren batzarren helburua izan da herritarrek Bergara nola ikusten duten zehaztea; hau da, diagnostikoa egitea. Bada, herriaz gaur egun duten irudiarri dagokionez, askotariko iritziak eman dituzte herritarrek, baina badira batzuk beste batzuk baino gehiago errepikatu direnak.

Herriko gauzarik gustukoenen artean, esate baterako, honako hauek azaldu dira gehien: erdigunean berdegune asko dagoela; ondo kokatuta dagoela, tamaina egokia duela, ondare asko duela eta, urtetan kultura bultzatu denez, hainbat arlotan erreferente dela.

Bergarari euren herritik gutxien gustatzen zaizkien gauzen artean, berriz, honako hauek aipatu dira gehien: aparkaleku falta; zirkulazio arazoa; erreferente den kulturarako ekipamendu baten falta; zerbitzu gehienak erdigunean egotea eta auzoetan, berriz, oso gutxi; eta herrian giroa galdu izana.

# Dagoeneko zabalik dago Aratusteetako kartel lehiaketan parte hartzeko epea

Otsailaren 8ra arteko epea dago lanak aurkezteko, kultura etxean

M.B. | BERGARA

Dagoeneko kaleratu dituzte Aratusteetako kartel lehiaketan parte hartzeko baldintzak. Hain justu, lehiaketa horretan parte har dezake Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek.

Horrekin batera, diseinuen kartelak kolore eta teknika librea egin ahal izango dira, eta 40x60 zentimetroko kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Horrez gain, derrigorrezko honako testua ere eroan beharko dute diseinuen: *Aratusteak 2011, Bergara.*

Lehiaketako irabazleak 350 euro eskuratuko ditu, nahiz eta saria eman barik ere gera daitekeen, epaimahaiko kideek gutxieneko kalitaterik ez dagoela uste badute. Bestalde, Udalak egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiakin erakusketa antolatu ahal izango du.



Herritarak mozorrotuta iazko Aratusteetan. | GOIENA

## Otsailaren 8a aurretik

Kartelak kultura etxeko behe solairuan (Errotalde jauregia) aurkeztu beharko dira eta horretarako azkeneko eguna otsailaren 8a da (martitzena), 13:00ak baino lehen.

Aurkezteko orduan, kartelek ez dute egilearen nortasuna agerian utzi dezakeen ezer edukiko. Atzealdean lelo bat dutela aurkeztuko dira kartelak. Gutun-azal itxi baten, leloa kanpoan eta egilearen datuak

(izen-abizenak, nortasun ageriaren fotokopia eta telefono zenbakia) barruan jarriko dira.

Epaimahaia nortzuek osatu duten epaia aditzera ematen den egunean jakinaraziko da. Bestalde, epaimahaiko kideek hartutako erabakia aldezina izango da. Saritutako lanei dagokionez, Udala jabetuko da haietaz eta argitaratzeko, aldatzeko, eraldatzeko, zabaltzeko... esku-bidea izango du.

Saritu gabe geratzen diren lanei dagokienez, erakusketa egiten bada, erakusketa azkeneko egunetik hasi eta 30 eguneko epean jaso ahal izango dira. Epea amaitu ondoren egileek jaso ez badituzte, Udala horietaz libreki baliatu ahal izango da. Era berean, ez da erreklamazio edo kalte-ordain eskubiderik onartuko.

## Baserriko plastikoa hilaren 25ean batuko dute

M.B. | BERGARA

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak baserri ingurunean sortutako plastikoa batzeko zerbitzuarekin jarraituko du aurten ere.

Hain justu ere, urtarrilaren 25ean egingo dute urteko lehenengo batzea. Horretarako, plastikoa arratsaldean atera beharko da, eta esandako ondorengo leku hauetan laga: Ugarrixan, granja parean; Murinondon, granja parean; eta San Juanen, eliza aurreko plazan.

Batze lekuetako bat aldatu nahi izanez gero, telefonoz deitu beharko da honako zenbakira: 943 76 25 47. Bestalde, Elosutik (Santutxun laga behar da plastikoa) pasatzea nahi izanez gero ere, esandako telefono zenbakira deitu behar da.



# Etxeko olioia batzeko edukiontzia jarri dituzte

Olioia bakarrik jasotzeko erabiliko diren poteak ere banatu dituzte etxerik etxe

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak etxeko olioia jasotzeko zerbitzu berria abiarazi du bailaran eta horretarako edukiontzia jartzen aritu da egunotan. Bergaran, esaterako, astelehena eta martitzena bitartean jarri zituzten olioia batzeko edukiontzia, zazpi guztira, honako lekuetan: Osintxun, Angiozarren, merkatu plazan, Matxiategin, Zubiaurren, Bolun eta Ibargarain.

Edukiontzioak jartzearekin batera, olioia batzeko pote bereziak

banatu dituzte etxerik etxe –jaso ez duenak Udaltzaingoan eska dezake–. Hain justu ere, poteak sukaldeko olioia jasotzeko bakarrik erabiliko dira.

## Poteak nola erabili?

Erabiltzaileak egin behar duena honakoa da: ontzian erabilitako sukaldeko olioia bota –ez da olio berorik bota behar– eta behin ontzia beteta dagoenean edukiontzira eraman.

Edukiontzian, dagokion lekuan sartu behar da potea eta makinak

berak beste ontzi huts eta garbi bat itzuliko du.

Olioia batzeko zerbitzu berriaz Eko3r enpresa arduratuko da. Poteak GSM sistemaren bitartez Eko3r enpresarekin konektatuta daude, edukiontzia erabiltzean berri unean-unean ematen dute. Modu horretan, matxura eta betetze mailaren berri izaten du eta %80 beteta dagoenean, Eko3r arduratzen da ontzi beteak jasotzeaz eta mantentze-lana egiteaz.

Batutako olioari dagokionez, enpresako instalazioetan aurre-

tratatzen da, gero baimendutako hornitzaile bati saltzeko. Olioia erregai gisa erabiltzen da, baina etorkizunerako beste irteera batzuk ikertzen ari dira olioaren zikloa Arrasateko egoitzan betetzeko.

Olioia birziklatuta lortzen diren ingurumen onurak asko dira: ura kutsatzen duen hondakinaren deuseztatzea araztutako uraren berrerabilpena, degradazioa murriztea eta dependetzia energetikoa murriztea.

**Puntu Berdea desagertuko da** Edukiontzia zerbitzuak ordezkatu egingo du Puntu Berde Mugikorra. Hau da, 2011n desagertu egingo da. Hala, Mankomunitateak herritarren laguntza eta elkarlana eskatzen du. Hain justu ere, eskatu dute urtarrean olio poteak eta bestelakoak ez lagatzea Puntu Berde Mugikorra zerbitzua eskaintzen zen lekuetan.

DATUA

7

EDUKIONTZI

Osintxun, Angiozarren, merkatu, Matxiategin, Zubiaurren, Bolun eta Ibargarain jarri dute bana.



Olio pote berriak. | GOIENA



Iazko irabazleak. | GOIENA

## Amodiozko gutunen lehiaketan 56 jaso dituzte

Aurten lehenengoz sortutako parte-hartzaile beterakoen mailan hiru lan jaso dituzte

M.B. | BERGARA

Dagoeneko bukatu da amodiozko gutunen lehiaketan parte hartzeko epea eta Jarduneko ordezkariak pozik daude aurten ere izandako erantzunarekin.

Guztira, 56 gutun jaso dituzte, 43 emakumezkoek idatzitakoak eta 13 gizonetzkoek idatzitakoak.

Adinaren batez bestekoari dagokionez, 26 urtekoa izan da eta azpimarratzekoa da aurten lehenengoz sortutako beterakoen sailean hiru lagunek hartu dutela parte.

Gutun gehienak Gipuzkoatik jaso dituzte: 41, hain justu. Horietatik 20 Debagoienekoak eta 11,

Bergarakoak. Horrez gain, Bizkaia, Araba eta Nafarroatik ere jaso dituzte gutunak.

## Epaimahala aukeratuta

Epaimahaiari dagokionez, kultura munduko pertsonaia ezagunek osatuko dute: Ines Osinagak –Gose taldeko abeslaria–, Itxaso Paia bertsolariak, Gari Berasaluz idazleak eta Juan Mari Agirreurreta iazko irabazleak.

Epaimahai gazteari dagokionez, Aranzadi ikastolako Maddi Muxika eta Alazne Murgizuk eta Ipintza institutuko Josu Unamuno eta Nora Txintxurretak osatuko dute.

## Euskal dantzen eta alboka ikastaroak antolatu dituzte

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak fandango eta arin-arin ikastaroak antolatu ditu. Otsailean hasi eta ekainera arte izango dira, eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara, Aranzadi ikastolan. Irakaslea Juantxo Urbieta eta haren taldea (Abarka) izango dira.

Izenematea dagoeneko zabalik dago Jardunen bulegoan eta 943 76 36 61 zenbakian. Ikastaroaren prezioa 13 euro da hilean Jardunen bazkideendako eta 15, gainerakoendako.



Soltean dantzan. | GOIENA

## Alboka ikastaroa

Bestalde, alboka ikastaroa ere antolatu du Musika Eskolak. Otsailaren 2an hasi eta apirilaren 6ra arte izango da, eguaztenetan, 20:00etatik 21:00etara.

Izenematea Musikal Eskolan da urtarrearen 31 baino lehen. Bazkideendako prezioa 40 euro da; 50, gainerakoendako.

## Kalean esne makina jartzeko baldintzak argitaratu berri ditu Udalak eta mugaeguna hilaren 27a da

Irizar pasealekuaren eta Jon 23.a plazaren arteko lorategian baserriko esnea banatuko duen makina jartzeko baldintzen plegua argitaratu du Udalak. Urtarrilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dute proposamena interesa dutenek. Pleguan aipatutako kokapena aurreikusten bada ere, Udalak aldatu egin ahal izango du beste leku bati egoki irizten baldin badi.

## OHARRAK

### BEDELKARKO ZENBAKI SARITUAK

Bedelkar dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteko Gabonetako zozketako zenbaki sarituak dira: 5.761 (500 euro); 6.741, 26.149, 72.254, 76.831 eta 83.401 (200 euro bakoitzarendako); eta 15.366, 23.080, 34.879, 47.236 eta 87.926 (ehun euro bakoitzarendako).

### REALZALEAK ELKARTEKO KAMISETA HARTZEKO

Realzaleak elkartetik jakinarazi nahi diete bazkideei, elkartearen kamisetak dagoeneko jaso ditezkeela Matxiategi elektrizitate-dendan, 10 eurotan.

### MEDITERRANEOAN ZEHAR BIDAIA SAN JOXEPEREGIN

San Joxepe erretiratuen elkarte-kideek Mediterraneoan zehar-kaldia antolatu dute. Grand Celebration itsasontzian izango da eta maiatzaren 16an abiatuko da,

Bartzelonatik. Irla Grekoak, Turkia eta Egipto zeharkatuko ditu. Izena emateko jo San Joxepeko bulegora urtarrearen 31 baino lehen 11:30etik 12:30era eta 17:30etik 18:30era.

### ARANZADIKO DBH-KOEN ZENBAKI SARITUAK

Aranzadiko DBHko 2. mailako ikas-bidaiarako zenbaki sarituak dira: 263 (lehen saria) eta 1.362 (bigarrena).

### TAILA ESKOLAK BATZAR OROKORRA DEITU DU

Gaur, astelehena, egingo dute, Zabalotegi 11n, behean duten egoitzan. Lehen deialdia 19:00etan eta bigarrena, 19:30ean.

### ASKOTARIKO IKASTAROK MIGUEL ALTUNAN

Langile, autonomo, funtzionario eta langabeendako hainbat ikastaro emango dituzte datozen hila-beteotan Miguel Altunan (%100

diruz lagunduta). Hiru alorrekin lotura duten ikastaroak egingo dituzte: mekanika, elektrizitatea eta administrazioa eta informetika. Informazio gehiago eta izenematea Miguel Altunan eta 943 76 70 49 zenbakian.

### IRUDI ERLOJU-DENAKO ZENBAKIA ATERA DA

Irudi erloju-dendako Gabonetako zozketako zenbaki saritua hauxe da: 3.593.



Ahotsak egitasmoan parte hartu duten oñatiarretako batzuen erretratuak. Horiek eta gainerako guztiek jasoko dute omenaldia eguaztenean, hilaren 19an. | KEPA ELORTZA

# Ahotsak egitasmoan parte hartu duten herritarrei omenaldia

Eguaztenean, hilaren 19an, batuko dira guztiak kultura etxean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ahotsak egitasmoan parte hartu duten herritarrei omenaldia egingo diete, etzi, eguaztena. 18:30ean kultura etxean egingo duten ekitaldi irekian, egitasmoaren barruan hiru urtean egindako lana aurkeztuko dute eta, bidez batez, eskerrak emango dizkiete protagonistei egindako ekarpenengatik. Elkarrizketatu bakoitzaren pasarte batzuk entzun ahal dira. Ekitaldia bukatzeko, kafea eta pastak hartzeko aukera izango dute protagonistek.

**Hiru urteko egitasmoa**

Ahotsak egitasmoa azken hiru urteotan landu dute herrian. Udalak emandako dirulaguntzari esker, herriko euskararen gaineko hainbat elkarrizketa egin ditu egitasmoko kide Kepa Elortzak. "Helburua herriko euskara jasotzea izan da. Alde batetik, euskara batua daukagu; eta, beste alde batetik, herriko euskara. Hori horrela, Oñatiko euskara *jatorra* jasotzen ahalegindu gara", esan digu Euskara teknikari Iñaki Akizuk. Hiru urteotan herriko

euskararen 60 lekuko elkarrizketatu, eta 56 elkarrizketa egin dituzte. "Gehienetan banaka egin ditugu elkarrizketak, baina batzuetan binaka. Euren etxe edo baserrietan grabatutako dokumentuak dira", dio Akizuk.

**Irizpide ezberdinak**

Protagonistak aukeratzeko orduan jarraitutako irizpideen gainean honako hauxe esan digu Iñaki Akizuk: "Hiru erreferentzia nagusi izan ditugu: euskaltea, Euskara Zerbitzua eta Kepa Elortza.

Oñatiko euskara jator eta aberatsa menderatzen duten herritarrek aukeratu genituen. Dena den, baserrietako, auzoetako eta kaleko hizlariak ere erabili ditugu".

**Protagonistak sarean**

Ahotsak egitasmoan parte hartu duten oñatiarren izen zerrenda, erretratuak eta elkarrizketak [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) helbidean daude. Euren gaineko informazioa ere bildu dute, eta elkarrizketako pasarteak entzun ahal dira.

DATUA

60

OÑATIAK

Horiek dira Ahotsak egitasmoaren barruan elkarrizketatu dituztenak.

## Protagonistak udal egutegian

Udalak urtero kaleratzen duen egutegia salgai dago Turismo Bulegoan euro baten truke. Ahotsak egitasmoan parte hartu duten 56 herritarren erretratuak dira protagonistak.

## Txaloka ludotekak hainbat berrikuntza jarriko ditu martxan datozen asteotan

Besteak beste, jostailuen mailegu zerbitzua eta 'Gurasoekin jolasean'

M.B. | OÑATI

Txaloka ludotekak berrikuntzekin egin dio ongiatorria 2011ri. Hain zuzen ere, jostailuen mailegu zerbitzua eskaintzen dihardu aste bukaeretan eta, laster, *Gurasoekin jolasean* programa jarriko du abian. Berrikuntzak erakusteko ate irekien egunak egingo dituzte; hain zuzen ere, hilaren 18an, 20an, 24an eta 26an, 16:45etik 19:45era. Deialdi irekia da, baina, batez ere, 2007an eta 2008an jaiotako haurren gurasoak gonbidatu gura dituzte.

Bestalde, urtarriletik ekainera bitarteko matrikulazio epea zabalik dute ohiko ordutegian. Beste berrikuntzetako bat da 2008an jaiotako haurrek ere izena eman dezaketela dagoeneko, irailera itxaron barik, eta 3 urte bete aurretik.



Ludotekako bazkideak jolasten. | TXALOKA LUDOTEKA

**Gurasoekin jolasean**

Jostailuen mailegu zerbitzua ludotekako bazkideendako bakarrik da. Jostailuak aste bukaeran etxera eramateko aukera izango

dute umeek. Bestalde, *Gurasoekin jolasean* programaren helburua da gurasoekin jolasean ipintzea, familiaren arteko hartu-emanak indartzeko asmoz.

## 'Jules Vernereren abenturak' ikuskizunerako sarrerak salgai kultura etxean eta Elkar Hezin

Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak Gorakada antzerki taldearen *Jules Vernereren abenturak* delako ikuskizuna antolatu du hilaren 22rako. Bada, Jules Verne idazlearen gaineko antzez-lana ikusi gura dutenek sarrerak eros ditzakete kultura etxean edo Elkar Hezi ikastetxean euro baten truke. Batutako dirua Maliko proiektura bideratuko dute.

## Sarean hobekuntzak egiteko argia kenduko dute hilaren 19an herriko hainbat kale eta auzotan

Sarean hobekuntzak egiteko argia kenduko dute etzi, 15:00etatik 17:00etara, leku hauetan: Aita Madinan, Aita Mortaran, Ibarra zelaian, Kale Zaharrean, Kanpantxon, Lizaurren, Maiatzaren Bata plazan, Otadui zuhaiztarian, Unibertsitate etorbidean, Zumeltzegin eta Goribar auzoan; Bidebarrieta kaleko 2an; San Anton 8an, 10ean, 12an eta 14an; San Juan kaleko 23an eta 25ean; Garagaltza auzoko 44an; eta Larraña auzoko 34an, 35ean, 36an eta 37an.

## 'Oñati begi bistan' argazki erakusketa ikusgai jarri dute Aker, Guria, Boga eta Ona tabernetan

Ilunpetan argazki taldeak *Oñati begi bistan* erakusketa ikusgai jarri du otsailaren 4ra arte Aker, Guria, Boga eta Ona tabernetan. San Migel jaietan plazan ikusgai egon ziren argazkiak dira. Tabernetan dauden kutxetan utzi beharko da izena, azken egunean egingo duten zozketan parte hartu ahal izateko.

## ESKORIATZA

## Nagusiendako bi osasun parke izango dira laster zabalik Eskoriatzan

Dorleta auzokoa erabilgarri dago eta Olazar kaletik abiatzen den bidegorriari jarri dutena, egunotan

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Herriko nagusiendako osasun parkeak jartzen dabilta Eskoriatzan, eta laster bi izango dira erabilgarri. Dorleta auzoko bidegorriaren alboan egin dutena 2010eko abenduaren zabaldu zuten eta Olazar kaletik abiatzen den bidegorriari –egoitzaren gainaldean– egiten dabiltzana laster zabalduko dute.

Osasun parke horietan hainbat gimnasia aparailu jarri dituzte: goiko gorputz-adarrak lantzeko ariketa tren bat, pedalak, boeler taula bat, eskia, metroa, bailea, eskailera eta bolanteak, beste batzuen artean. Tresna horiek herriko nagusiei zuzenduta daude berez, baina erabileraz libreakoak izango direla jakinarazi dute udal ordezkariak.

### 23.388 euroko gastua

Foru Aldundiak eta Udalak sinatutako hitzarmen bati esker egin dituzte bi parke horiek. Hain zuzen, 2008-2011 aldirako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planean aurreikusi zuten *Osasun parkea* izeneko proiektua burutzeko Eskoriatzan, eta dagoeneko bete dute.

Parkeko lanen kostua 23.388 euro izan da guztira; horietatik 10.500 euro Aldundiak jarri ditu eta gainerakoa, 12.888 euro, Udalak. Nagusiendako egokitutako ekipamenduak 15.046 euroko gastua izan du eta osasun parkeko zoruaren egokitze lanek, 7.157 eurokoa. Horiez gain, beste egokitzapen lan batzuk eta erosketak batzuk ere egin dituzte, jarlekuak esaterako, eta horietarako 1.184 euro erabili dituzte.



Dorletatik pasatzen den bidegorri zatian osasun parkea jarri dute. | MIRIAN BITERI

## Etxe tasatuak esleitzeko oinarriak aztergai daude

M.A. | ESKORIATZA

Udalak abenduaren 21ean egin dako osoko bilkuran onartutako hainbat oinarriren iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dituzte eta horiek aztertzeko epea zabalik dago otsailaren 9a bitartean. Aztertu ostean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dira udaletxean. Epe horretan ez badago iradokizunik, behin betiko onartuta geratuko dira.

### Presoen senideen laguntzak

Batetik, Santa Marina plazako eta Gaztañadui kaleko etxebizitza tasatuak esleitzeko oinarriak daude ikusgai. Etxe horietakoren bat eskuratzeko, gutxienez hiru baldintza bete behar dituzte eskatzaileek: etxerik ez izatea; Eskoriatzan erroldatuta egotea gutxienez 2009ko urtarrilaren 1a ezker; eta Etxebideko erregistroan izena emanda egotea 2010eko abenduaren 15a baino lehen.

Bestetik, presoen senideentzako dirulaguntzen oinarriak dira aztergai daudenak.

### Udal aurrekontua ere aztergai

Bestalde, 2011ko udal aurrekontuari erreklamazioak aurkezteko epea ere zabalik dago. Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzaitza bulegoan daukate ikusgai eta haren aurkako erreklamazioak urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean.

## Kirol zerbitzuetan baja emateko epea zabalik dago, urtarrila bukatu arte

M.A. | ESKORIATZA

Abenduaren 31n bukatu zen kiroldegiko bazkide txartelaren indarraldia. Hori horrela, kirol zerbitzuetan baja eman gura dutenek urtarrila bukatu bitartean dute epea. Kiroldegira jo behar dute horiek, eta bertan jakinarazi; hori egin ezean, beste urtebetez luzatuko diete bazkide txartela.

Bestalde, zerbitzua dirutan ordaintzen duten kiroldegitik pasatu behar dute ordainketa egitera; bestela, zuzenean baja emango dietela iragarri dute. Ordainketa helbideratuta dutenei, oster, hil bukaeran pasatuko diete kontu korrontetik. 2011ko kirol tasa guztiak Udalarren webgunean daude ikusgai: [www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net).

## Hiri hondakin biltzaile egutegia banatu dute

Debagoieneko Mankomunitateak zehaztu du zein egunetan jasoko dituzten zaborra eta hondakin handiak Eskoriatzan, eta egutegia banatu die herritarrei. Iaz legez, martitzen, eguen eta domeketan jasoko dute zaborra eta eguen gauetan –aurretik deituta: 943 71 19 38 – altzari eta etxetresna handiak.

## ARETXABALETA



Errekabarren kalean jarri dituzten farolak. | M.A.

## Sei farola berri jarri ditu Udalak Errekabarren kalean

Agustindarren komentuko hormaren gainean daude, kaleari argitasun handiagoa emateko

M.A. | ARETXABALETA

Errekabarren kalean, agustindarren komentuko inguruan, sei farola berri jarri zituen Udalak urtea bukatu aurretik. Instalazio horren kostua 2.900 euro izan da.

### Herritarren eskaera

Errekabarren kalea ilun samarra zela jakinarazi zieten hainbat herritarrek udal ordezkariari. Udazkenean bertan dauden

platanondoaren adarrak moztuta argitasun handiagoa egon arren, beste zerbaiten premia zuela kaleak erabaki zuen orduan Udalak. Hala, bada, agustindarren komentuko hormaren gainean sei farola jarri zituen oinezkoak pasatzen diren espaloiko argitasuna handitzeko.

Alkateak eskerrak eman gura izan dizkie agustindar mojei, inolako trabarik ez dutelako jarri farolak ezartzeko.



JOXEBI

## UDako otzarak badu jabea

Abenduaren 19an egin zuen Aretxabaleta Kirol Elkarteak Gabonetako otzara dotorearen zozketa, baina 1.275 txartelaren jabea ez da agertu orain arte; hain zuzen, kirol elkarteak jarrita zeukan hilaibeteko epea bukatzeaz zela. Gorka Moras arrasatearra izan da txartelaren jabea eta Antonio Rajado eta Jesus Mari Martinez zuzendaritzako kideen eskuetatik jaso zuen saria eguen ilunkeran.

## Euskal Herriko III. mus txapelketa Urbaltz elkarteak

Hainbat herritan dabilta jokatzen txapelketa hori, eta Aretxabaletan partidak izango dira egubakoitzean (22:00), Urbaltz elkarteak. Izena egunetan bertan eman behar da; 20 euro da bikoteko. Argibide gehiago [www.euskalherriko-mustxapelketa.org](http://www.euskalherriko-mustxapelketa.org) helbidean jaso daitezke.

## San Kanuto eguneko bazkarirako txartelak salgai daude tabernetan

Zapatuan, urtarrilak 22, ospatuko dute San Kanuto eguna Aretxabaletan. Sustar Kalamu Taldeak hainbat ekitaldi iragarri ditu, tartean herri bazkaria pilotalekuan. Txartelak salgai dituzte 15 euroren truke honako tabernetan: Azkena, Urbaltz, Zaraia, Izotz, Arlutz eta Haizea. Erosteke azken eguna eguaztenda da, hilak 19.



Eskolako umeak, iaz lehenengo aldiz, San Sebastian Kofradiako kideei Sarriegiren martxa jotzen. | LZ

## ELGETA

# San Sebastian eguna ospatuko dute Nobleen Kofradiakoek eta eskolako umeek

Udalak, bestalde, pediatria zerbitzua hobetzeko sinadura bilketa kanpaina abiarazi du; hilaren 31ra bitartean batuko dituzte sinadurak udaletxean

### LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bertan dugu urtarrilaren 20a, San Sebastian eguna. Donostian ez ezik beste hainbat tokitan ere ospatzen den eguna da, eta Elgetan ere urteroko ekitaldiak egingo dira.

Elgetako San Sebastian Kofradiako Nobleek urteroko ekitaldia egingo dute. Lehenengo eta behin, Sarriegiren martxa entzungo dute herri eskolako umeen eskutik. Emanaldi hori 12:00etako meza aurretik egingo dute, 11:50 aldera. Elgetako parrokiaren meza entzun ostean urteroko ekitaldia egingo dute Nobleek sakristian. Ondoren, Inaki jatetxean elkartuko dira bazkaltzeko.

Danbor hotsak, esan bezala, eskolako umeek ekarriko dituzte urteroko danborradarekin. Sarriegiren martxa ozen entzungo da egunotan eskola inguruan;

izan ere, umeak entseatzen hasiak dira dagoeneko. Iaz, Nobleen Kofradiako kideek sorpresa ederra hartu zuten eskolako umeak eliza atarian danborra jotzeko zain ikusita. Lehenengo aldiz egin zen saio hori eta kofradiako kide batek baino gehiagok malakoak ere isuri zituen umeen emanaldiarekin.

### Sinadura bilketa

Urte hasiera honetan, bestalde, ekimen bat baino gehiago abiarazi du Udalak. Herritarren artean berriki egingako iritzi neurketak kontuan hartuta, pediatria zerbitzua hobetzeko sinadura bilketa kanpaina abian da.

Pediatra eskasia orokorra da, baina elgetarrek zerbitzu hori mantentzea eta zabaltzea lehentasunezko zatia jotzen dute. Uneotan, asteen behin igotzen da pediatria

Elgetara, eguenetan 13:00etatik 15:00etara. Ohiko kontrolak baka-rik egiten ditu; gainerako kontsultetarako Bergarara jaitsi beharra dute elgetarrek. Zerbitzua hobetzeko eskaria jasoko duen idatzi bat prestatuko du Udalak eta batutako sinadurekin batera Eusko Jaurlaritzara bidaliko du. Sinadurak udaletxean jasoko dituzte hilaren 31ra bitartean.

### Dantza ikastaroak

Eta bi dantza ikastaro hasteari dira. Eguenean, hilak 20, egingo dituzte lehenengo saioak Espaloian. Patxi Monterok gidatuko ditu. Pertsona nagusiei zuzendutako ikastaroa 18:00etatik 19:00etara egingo dute eta dantza tradizionalen ikastaroa 19:30ean hasiko da. Informazio gehiagorako eta izena emateko udaletxera jo behar da.

## LEINTZ GATZAGA

# Hondakinak jasotzeko egutegia banatu du Mankomunitateak

Baserrietan sortutako plastikoa jasotzera etortzeko aurrez deitu beharra dago

### M.A. | LEINTZ GATZAGA

Zaborra martitzen, eguen eta domeketan jasoko dute eta Mankomunitateko kideek gomendatu dute 20:00ak eta 22:00ak bitartean ateratzeko poltsak. Traste zaharrak eta hondakin handiak –altzariak, tehebistak, ordenagailuak, hozkailuak...– eguen gauetan jasoko dituzte. Horretarako, baina, derri- gorrez jakinarazi behar da aurrez 943 71 19 38 telefono zenbakira

deituta. Traste handi horiek Dorletara bidean dauden edukiontzien alboan utzi behar dira. Hain zuzen, horien alboan berri bat dago urte berriarekin batera: erabilitako olioak jasotzeko edukiontzia. Hara eroan behar da etxean erabilitako olioak, dagokion ontzian sartuta.

### Baserrietako plastiko bilketa

Bestalde, Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak 2011ko plastiko bilketaren egutegiaren berri eman du egunotan. Gatzagan ez dute ezarri egun zehatzik; hortaz, baserrietan sortutako plastikoa jaso gura izanez gero, telefonoz deitu beharra dago zenbaki honetara: 943 76 25 47.

## ARAMAIO

# Itur-Zuri emakume elkarteak irteera iragarri du Barakaldoko BECera

Eskularen erakusketa ikustera joango dira; izena emateko epea eguenera arte dago zabalik

### EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Itur-Zuri emakume elkarteak urtarrilaren 29an BECera, Barakaldora, joateko irteera antolatuko du. Hain zuzen ere, *El salón de las manualidades* izeneko feria ikustera joango dira Itur-Zuriko kideak.

Egun osoko irteera izango da. Autobusean aterako dira 10:00etan eta itzulera 19:30erako aurreikusita dago. Bazkaria norberaren kontura izango da. Autobusaren prezioa 10 eta 15 euro bitartekoa izango da eta BECera sarrera 2 eurokoa Itur-Zuriko bazkideendako eta 5 eurokoa gainerakoendako. Izena emateko epea eguenera arte, hilaren 20ra arte, dago zabalik. Ondoko zenbakietara dei dezate

kete interesatuek: 670 43 16 62 (Ana), 618 00 66 81 (Amelia) eta 945 44 52 81 (Ana).

### Emakumeendako ikastaroa

Bestetik, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa antolatuko du Itur-Zurik. Zortzi saio dira, ordu eta erdikoak, eta izenematea urtarrilaren 31ra arte egin daiteke. Argibideak, goiko telefonotan.

### Akatsa Udalaren egutegian

Udalak aditza eman duenez, etxez etxe banatu dituen 2011ko egutegietan akatsa dago: ilbetea eta ilberri ikurrak trukaturik daude, bata besteagatik, eta, ondorioz, egunak ere bai, urte osokoak.



Eskularen ferriaren 5. ekitaldia hilaren 27tik 30era izango da, BECen. | GOIENA

## ANTZUOLA

# Pala jokalariek txapelketa hasiko dute egubakoitzean

Udaberri txapelketako lehenengo lehia izango da egubakoitzean jokatuko dutena, etxean

### ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Federatu mailako udaberri txapelketa hasiko du Olalde datoren egubakoitzean. Pala modalitatean jokatuko dute; hain zuzen, laruzko palekin.

Sei taldek parte hartuko dute lehenengo ligaxka horretan. Txost 1, Txost 2, Urnieta, Gazteleku eta Biarritzarrak izango dira antzuolarren aurkariak hasierako fasean.

Antzuolarren aldetik Iker Manso eta Jon Alberdi izango dira pilotariak. "Beste bi pilotari ere baditugu: Mikel Bargiela eta Gorka Iturbe", azaldu du Balendin Zabalok, Olalde elkartearen arduradunak.

### Partiduen egutegia

Esan bezala, lehenengo lehia egubakoitzean izango da, hilak 21, Urnietaren aurka. Etxean

jokatuko dute antzuolarrek, 20:00etan hasita. Hurrengo lehia hilaren 28an izango da: Biarritzarrak izango da aurkaria. Bigarren lehia ere etxean jokatuko dute.

Hirugarren lehia Gaztelekuren aurka izango da, Andoainen, otsailaren 6an. Otsailaren 13an etxean jokatuko dute berriro, Txost 1 taldearen aurka. Azken lehia Txost 2 taldearen aurka izango da, etxetik kanpo –otsailaren 18an.

### Debarroko txapelketa

Bestalde, aurren, Debarroko txapelketa antolatzeko ardura izango du Olalde elkarteak. Datozen egunotan emango dute informazio gehiago, baina aurreratu dute otsailaren 12an hasiko dela, eta San Isidro inguruan amaitu.



# IRITSI DA GOIENA GIDA 2011

Laster jasoko duzue herriko denda eta enpresen telefonoen gida.

Gida osatuena, erabilgarriena eta berriena.

Eta gogoratu: Goiena Gida <http://goiena.net/gida> helbidean ere badaukazu.

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Bergarak, sasoi betean, lau gol egin zizkion Oiartzuni lehenbiziko zatian

Zortzi jardunaldi daramatzate partidurik galdu gabe eta 623 minutu golik jaso gabe

## EMAITZA

BERGARA  
**4-0**  
OIARTZUN

## FITXA TEKNIKOA

**Bergara:** Lopez, Oregi (Elorriaga, 75. min.), Arruti (Garitano, 77), Arazkonaga, Nafarrate, Agirre, Crespo, Balzategi (Igartua, 63), Macho (Ibañez, 60), Ilzarbe eta Cabanillas (Navas, 56).

**Oiartzun:** Olaziregi, Gorka (Bereziartua, 46), Josu, Loperena (Boada), Beriñat, Enekoitz, Endika, Urtzi (Unai, 46), Aritz (Josu, 51), Eñaut eta Jon.

**Bestelakoak:** Matellanes epailea, Tejero eta Carasa marrazainen laguntzarekin. Oiartzungo lau jokalariri atera zien txartel horia eta etxekoan partetik Oregi, Arruti eta Ilzarberi. 200 ikusle inguru Agorrosinen.

## EDU MENDIBIL | BERGARA

Hainbat daturrekin laburtu daiteke zapatuko partidua: Oiartzunek 10 gol jasota zituen orain arteko 17 jardunaldietan. Bergarak lau egin zizkion 45 minututan.

Lau horietatik hiru Iñigo Machok egin zituen. Esan beharrik ez dago lehen zatian bukatu zela partidua. Bergarak zortzi partidu daramatza galtzeke. Horrez gain, 623 minutu egin ditu honez gero golik jaso gabe. Mondrak egin zion azkena, azaroaren 27an. Zazpigarren postuan dago Bergara, eta ligako partidurik onenetakoa egin zuten zapatuan Oskar Maiztegiren mutilek. Gauzak horrela, Pozik etxeratu ziren zapatuan Agorrosinen batutako zale bergararrak.

## Talde osoa, sendo

Zaila da jokalaria bat edo beste nabarmentzea baina golegilearen lanaz gain (Agirrek egin zuen beste gola), erasoan Ilzarbek eta Crespok lan aparta egin zuten. Atzean zein erdialdean ere sendo, gorako bidean da Bergara.

Esan bezala, bigarren zatia soberan geratu zen zapatuan. Partidu lasaia izan arren, zortzi txartel atera zituen epaileak. 7 euro ordaindu behar dute taldeek txartel bakoitzeko. Federazioaren zerga, dirua batzeko aitzakia, eta egoera ekonomiko larriaren diren taldeei mina egiteko modua bilakatu dira txartelak.



Crespo izan zen partiduko onenetako bat. Irudian erasoko jokaldi baten, Oiartzungo defentsa batekin. | JULIO CALLEJA

## IÑIGO MACHO | BERGARAKO JOKALARIA

## "Igoera lortzea zaila izango da baina aurrean ibiliko gara liga amaieran"

Iñigo Macho (19 urte) izan zen partiduko protagonista. Hiru gol egin zizkion Oiartzuni. Ligan sei daramatza. Pozik zen partiduen amaieran, emaitzagatik eta sartutako golengatik, jakina.

### Lehen mailan eta hat-tricka egiten dutenek etxera eramaten dute baloia, taldekideek sinatuta...

(Barre) Hemen ez dut uste horretarako aukera dagoenik... Dena dela, gauean zelanbait ospatuko dugu, egunero ez dira horrelakoak egiten-eta.

### Oiartzun zuen aurretik dago eta errebaso ona eman diezue gaur...

Bai, ez genuen espero hain erraz irabaztea. Baina



E.M.

lanarekin.

### Lehen mailako jokalaria gustukoan, zeintzuk?

Gehienbat golegileengan jartzen dut arreta: Villa, Messi... Jokalari on asko dago lehen mailan.

batzutan horixe gertatzen da, dena sartzen dela. Beste batzutan, berriz... Bolada onean gara eta sasoiari heldu behar diogu.

### Bigarren itzulia hasi berri, toki onean zaudete sailkapenean.

Igoera lortzea zaila izango da baina lehenbiziko postuengandik borrokatzeko moduan gaude. Liga amaieran hortxe, bosgarren tokiaren inguruan ibiliko gara uste dut. Hurrengo bi partiduak etxetik kanpo ditugu, Berion eta Tolosan, eta ea han ere emaitza positiborik lortzen dugun.

### Eibarko ohorezko gazte mailako taldetik, Bergara.

Bai, iaz etorri nintzen Eibartik eta gustura nabil orain arte egindako

## OHOREZKO ERREGIONALA



Amutxastegi eta Etxeberria azken honen gola, partiduko bigarrena, ospatzen. | JULIO CALLEJA

# Aretxabaletak ez zuen arazorik izan Roteta kolista mendean hartzeko

Jokin Badillok eta Aitor Etxeberriak egin zituzten etxekoan golak; partidu lasaia izan zuen UDAK

## EMAITZA

ARETXABALETA  
**2-0**  
ROTETA

## E.M. | ARRASATE

Aretxabaletak arazorik gabe irabazi zion atzo Roteta kolistari. Lehen zatia hasi eta berehala, 10. minutuan, Jokin Badillok egin zuen aurreko gola. Rafa Barrutiaren jokalaria ziren jaun eta jabe, nahiz eta lehen zatiko azken minutuetan Rote-tak berdinketaren bila zertxo-

bait aurrera egin zuen. Atsedaldiaren ostean, lehen zatian bezala, Aitor Etxeberriak etxekoan bigarren gola egin zuen, 51. minutuan, partidua erabakita utzita. Rotetak ez zuen apenas arriskurik sortu partidu osoan zehar. Joko ikusgarriaren faltan, Ibarrara joandako zaleek UDAREN garaipenarekin gozatu zuten atzo.

### Zumaiara hurrengo astean

Aretxabaleta seigarren tokian dago orain, baina Bergararekin berdinduta, 29 punturekin. Zumaiakori egingo dio bisita UDAK hurrengo jardunaldian.

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Mondrak puntu bat ekarri zuen Trintxerpetik eta Aloñak 3-1 galdu zuen Hernanin

Liderraren etxean 0-1 aurreratu arren, punturik gabe etorri ziren oñatiarrak

E.M. | ARRASATE

Mondrak husna berdindu zuen zapatuan Ordiziaren aurka. Iban Rodriguezen taldeak aukera paregabea galdu zuen Altamiratik hiru puntuak eskuratzeko. Lehen zatia parekatua izan bazen ere, 55. minutuan jokalaria bat gutxia-

gorekin geratu zen etxeko taldea, baina Mondrak punteria eskasa azaldu zuen ate aurrean. Lopezek, Muruak, Oierrek eta Ekainek izan zituzten aukerarik garbienak, baina hutsean amaitu zen neurketa. Azkenaldian ez dabil batere fin Mondra golak egiteko

orduan. Ordizian lortutako puntuaren ostean, sailkapenean 12. tokian dago Mondra, 22 puntuarekin.

Zapatuan Mondra eta Onda-rraoko Aurrera izango dira aurrez aurre Mojategin, 16:30ean. Bizkaitarrak zazpigarrenak dira sailkapenean; zapatuan 3-2 irabazi zioten Real Unioni.

## Aloñak liderraren aurka galdu

Bestalde, Aloñak 3-1 galdu zuen zapatuan Hernaninren aurka. Partidua ondo hasi zen oñatiarren-dako, eta Mikel Palaciosok egin zuen 0-1ekoa, 25. minutuan. Hernanik banakoa penalti eztabaidagarri bati esker egin zuen, handik hiru minutura, eta jokaldi horrek min handia egin zion Aloñari, Hernani hasi zelako nagusitzen. 60. minutuan etxekoen bigarren gola etorri zen eta Aloñakoak nahi eta ezinean ibili ziren, azken minutuan 3-1ekoa etorri zelarik. Hil ala biziko partidua izango dute oñatiarrek hurrengo domekan. Ordizia hartuko dute Azkoagainen. Arerio zuzena da Ordizia, Aloñaren aurretik baitago sailkapenean, puntu bat gehiagorekin. Dena eman behar dute Oruetaren jokalariek garaipena eskuratzeko.



Aloñak hil ala biziko partidua izango du domekan Azkoagainen. | ARTXIBOA

## LIGA NAZIONALA

## UDAren denboraldiko hirugarren garaipena, Sestaoren kontra

Gaszte mailako nazional ligaren barruan, Aretxabaletak 2-0 irabazi zion Sestao Riverri atzo eguerdian, Ibarra. Ligako hirugarren garaipena izan zen atzokoa UDarentzat. Andoni Uribesalgok eta Josu Arizmendiarrietak egin zituzten golak.

## EUSKAL LIGA

## Bergarak hiruna berdindu zuen Danok Bat taldearen aurka

Bergara KEko Euskal Ligako taldeak eta Danok Batek hiru-na berdindu zuten atzo arratsaldean Ipintzan. Partidu bakarra irabazi dute bergarar gazteek orain arte, baina itxura polita erakutsi zuen taldeak atzo. Sailkapenean, azken tokian jarraitzen dute.

## EMAKUMEZKOEN LIGA



JULIO CALLEJA

## Arizmendiko neskek, lider

Arizmendi taldeko neskek 4-1 irabazi zioten atzo Touring taldeari. Jone Agirregabiriak, Susana Santorrek eta Zuriñe Mujikak egin zituzten etxekoen golak. Mondrako neskek, bestalde, 1-0 irabazi zioten zapatuan Amara Berri taldeari. Vanessa Dacostak egin zuen partiduko gol bakarra, atezainaren huts bat aprobetxatuta.



## Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 21 ostirala  
Aramaio Kultur etxean | 19:00



Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

egin zure proposamena!

[www.kirolsariak.com](http://www.kirolsariak.com)

## ANTOLATZAILEAK



## BABESLE NAGUSIA



## BABESLEAK



## HEDABIDE LAGUNTZAILEA



## KOORDINATZAILEA



ESKUBALOIA

# Motorreko indar guztia erabili barik, Ford Mugarri nagusi

- ▶ Derbiaren lehenengo minutuetan Ford Mugarriko mutilak bergarakoen gainetik pasa ziren
- ▶ Bergarak lortu zuen erreakzionatzea, tartea txikitzea, baina ez liderra larritzeko beste

## EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

34-28

SORALUCE BERGARA

## FITXA TEKNIKOAK

## Ford Mugarri Arrasate:

Aranburuzabala, Valle, Alzelai (2), Eskibel (1), Zubiaurre (1), Santos (1), Kuzeta (1), Aldanondo (7), Calleja (5), Isasmendi (12), Herrero (4), Zuloaga.

## Soraluce BKE:

Uribe (1), Etxeberriarteun (2), Sudupe (6), Larrañaga (1), Ugalde (1), Plazaola (7), Lenisoro (2), Manuel (2), Urbina (5), Unamuno (1), Iparragirre, Agirre, Kapelastegi, Vaz.

**Beste:** Iturripeko kantzari jende asko batu zen, urteko sarrera onena.

Bergara taldeko mutilak konturatu zirenerako markagailuak 5-0 erakusten zuen; tarte horretan Arrasateko taldeko Aldanondo eta Isasmendi maila bat gorago ibili ziren.

Liderraren kantzara gauzak ondo egin asmoz joan ziren Bergarako mutilak, baina hasiera hori zigor handia izan zen mahoneroendako: "Gol errentak baino, Arrasatekoek minutu horietan erakutsitako nagusitasunak inpresioa eragin dit", onartu zuen partidu amaieran Josetxo Muniategik. Eta, Ford Mugarriko Jonan Eskibelek azaldu zigun hasiera potente horren zergatia: "Badakigu ez gaudela onenean, Gabonetan ez gara nahi moduan entrenatu, eta partidu hasieran beldur apur bat ere bagenuen, Bergara ezustea emateko gauza zelako. Horregatik, duda horiek uxatzeko topera irten gara, eta gure bertsio onena erakutsi dugu".

## Aldea txikituz, Bergara

Kikildu beharrean, baina, Bergarako Uribe, Ugalde, Sudupe, Urbina eta konpainia lanerako buzoa jantzi eta Arrasatekoen jokoa eteteko lanean jarri ziren buru-belarri: "Minutu horien

ostean konturatu gara euren kontraerasoa geratuz gero, joko estatikoan min handiagoa egiteko gauza ginela, eta horretan ahalagindu gara". Emaitz onak eman zituen horrek (13-10), eta erasoan Mikel Plazaolak hartu zuen aterra jaurtitzeko ardura (7 gol). Lehenengo zatia amaitu orduko, baina, Arrasatekoek berriro ere partidu hasieran eskuratutako bost goleko errenta lortu zuten (19-14).

## Bigarrena hobeto hasi


Bergarakoek oso garbi zuten bigarren zatiaren hasieran lehenengoan pasatakoa errepikatuko balitz ez zutela zereginik izango.

## DATUA

12

GOL

Kepa Isasmendi, Ford mugarriko jokalaria, izan zen partiduko goleatzaile nagusia, 12 gol eginda.



Ford Mugarriko jokalaria Nestor Calleja, jaurtiketa egiteko aukera bila, Bergarako Urbinaren

Horretaz jabetuta, mahoneroak izan ziren lehenengo gola egin zutenak, Arrasatekoek ez zuten -eta lehengo amorrazioa erakutsi. Defentsako lana gogorregia zelakoan, epaileak (Asobal ligako Gudel anaiak ibili ziren epaile lanetan) hainbat penalti adierazi zituen Bergararen alde, eta hortxe egon zen Muniategiren taldea berdinketatik gertuen

(19-17). Baina, ordura arte egin-dako esfortzuaren ordaina jasan zuen orduan Soraluce BKEk (29-20). Edu Orgazen mutilak oso minutu onak izatetik, azken minutuetako erlaxaziora pasa ziren, eta markagailua txukuntzeko aprobetxatu zuten bergararrek (34-28). Baina, Arrasatek kontrolpean izan zuen uneoro derbia; zerbaitegatik dira lider.



**EDU ORGAZ**  
F. MUGARRI, ENTRENATZAILEA

"Uste dut hasierako minutuetan Bergarako taldea ezustean harrapatu dugula, eta abantaila horretaz baliatu gara gero. Igoera fasera sailkatzeko bidean beste pauso bat eman dugu".



**JONAN ESKIBEL**  
F. MUGARRI, JOKALARIA

"60 minututan 40 minutu oso on izan ditugu, baina 20 minututan negargarri ibili gara; igartzen da joko aldetik ez gaudela onenean, baina zorionez, partiduak irabazten jarraitzen dugu".



**JOSETXO MUNIATEGI**  
SORALUCE BKE, ENTRENATZ.

"Lehenengo bost gol horiek min egin digute. Ez markagailuan hartu duten abantailagatik, baina bai gol horiek egiterakoan erakutsi duten azkartasun eta indarragatik; ez da partidu ona izan".



**MIKEL PLAZAOLA**  
SORALUCE BKE, JOKALARIA

"Liderraren kantzara etorri gara, eta erakutsi digute zergatik dauden eurak hor aurrean, eta zergatik gauden gu atzerago. Guk beste talde batzuen kontra irabazi behar ditugu partiduak".

## ESANAK

**"Gure borroka atzean dauden taldeekin dago; gure kontrario zuzenekin"**

JOSETXO MUNIATEGI | SORALUCE BKE

**"Igoera fasera sailkatu nahi dugu aurten, eta ahal bada txapelketa irabaziz"**

EDU ORGAZ | FORD MUGARRI





presiopean; bi jokalariek bosna gol egin zituzten. | JULIO CALLEJA

## SASKIBALOIA

## Sustrai Aloña Mendi eta MU esku hutsik itzuli dira kanpoko hitzorduetatik

Oñatikoek lehenengo postua galdu dute, Gasteizen 67-61 galdu ostean

X.U. | ARRASATE

Sustrai Aloña Mendik lider izateari utzi dio oraingo asteburuan, eta burua galtzeko moduko albiste ez bada ere, taldeko jokalaririk Iagoba Gamarrak onartu digu lehenengo postu hori galtzeak pena eman diela: "Baina hurrengo asteko partidua irabaztea da gure erronka nagusia, ez horrenbeste sailkapenean lehenengo gaudela ikustea. Egia esan, zelan jokatu genuen ikusita, normalena 20 puntuko aldeagatik galtzea izango litzateke".

Izan ere, Oñatikoek, zapatuan, ez zuten jaurtiketetan duten ohiko abilezia erakutsi, ezta gutxiago ere. Gehiago esanda, saskira begira itsu ibili ziren: "Horrelako egunak ere izaten dira, batere asmatzen ez duzuna. Defentsan tarteka makal ibili ginen, baina batez ere erasoan egin genuen kale".

### MUK ezin Leioan

Sailkapenean parean dagoen kontrarioaren kantxan 62-58 galdu zuen Mondragon Unibertsitateak: "Partidu txukuna egin genuen, batez ere defentsan. Uste dut atzealdean egin dugun denboraldiko partidua onena izan zela. Izan ere, fisikoki gu baino gehiago baziren ere ondo geratu genuen euren jokoa". MU ondo aurreratu zen, baina minutuek aurrera egin ahala erasoan geroago eta arazo gehiago izan zituzten". Esperientzia falta igarri genuen, kantxan inprobisatzen jakitea falta zaigu".



Erasoan ez, baina MUK defentsan partidu ona egin zuen Leioan. | ARTXIBOA

## ESANAK

**"Saskira begira oso txarto ibili ginen, kale mordoia eginda; horrelako egunak ere izaten dira"**

IAGOBA GAMARRA | SUSTRAI ALOÑA

**"Defentsan urteko partidua onena egin genuela uste dut; erasoan arazo gehiago izan genituen"**

JOSU LARREATGI | MU

## Justu-justu, baina garaipen garrantzitsua Eskoriatzak

X.U. | ARRASATE

Jokalaririk aldetik justu samar dabilta Eskoriatzako neskek, min hartutako hainbat ordezkari dituzte-eta. Horrekin batera, gazte mailako sei jokalarirekin jokatzeko dabilta, eta ligan aurrealdeko multzoan badaude ere, beste urte batzuetan baino dezente gehiago kosta behar zaie Fernando Rasoren neskei lauko finaleira sailkatzea.

Zapatuan pausotxo bat gehiago egin zuten, BKLren kantxan 46-50 nagusitu ostean: "Ondo sufritutako garaipena izan zen, izugarri kostatu zitzaigun partidua irabaztea, baina aurten horrelakoak izango dira garaipen gehienak", adierazi zigun entrenatzaileak. Hurrengo partidua, Bera Beraren kantxan.



JULIO CALLEJA

## Oñatiko derbia, Bergararendako

Bigarren maila autonomikoan derbia jokatu zuten Sustrai Aloña Mendiko eta Soraluze BKE taldeko mutilek. Orain arte txantxiak hobeto ibili dira ligan. Denboraldia aurrean ibiltzeko asmotan hasi zuen talde bergararrak liga, baina uste baino nahigabe gehiago izan dituzte. Zapatuan, baina, Zubikoan David Urbinaren mutilak gailendu ziren (45-74), erraz, gainera.



Ford Mugarri taldeko jokalariek, partidua hasi aurretik. | XABIER URTZELAI



Soraluze Bergara taldeko jokalariek. | XABIER URTZELAI

MOTORRAK

# Asier Gutierrez Cross Countryan eta Enduroan saritua, beterano mailan

Bergarakoak zapatuan jaso zituen sariak, Elgoibarren egindako ekitaldian

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Euskadiko motor txapelketan egindako lanagatik saritua izan zen zapatuan Asier Gutierrez Gabilondo bergararra. Elgoibarren egindako sari banaketa ekitaldian debagoiendar bakarra igo zen agertoki gainera saria jasotzera. Cross Countryan eta Enduroan izan zen saritua; beteranoen mailan, Cross Country kategoriako txapelketan lehena izan zelako, eta Enduroan, ostera, hirugarren.

Motorzaleen Euskal Federazioak urtero ematen dituen sari banaketa izan zen zapatuan Herriko Antzokian egindakoa. Sari horiek, besteak beste, Motocross, Trial Supermotard eta Enduro modalitateen gainerakoak ziren.

**Gogorra baina polita**

Pozik topatu genuen Asier Gutierrez esandako ekitaldia amaitzean: "Oso pozik nago txapelketan egindako lanarekin. Gogorra izan da, hainbat lekutan oso zirkuitu gogorrek zeudelako. Urte amaierarako ere gogorra izan da, hamabostean behin lasterketa izaten dugulako; baina, aldi berean, oso polita izan da. Hortaz, oso gustura nago".



Asier Gutierrez Gabilondo bergararra, motor gainean. | ASIER GUTIERREZ

**Zirkuitu baten beharra**

Horrekin batera, bergararrak aprobeztatu nahi izan zuen entrenatzeko tokirik ez dutela gogorrazteko, eta horren gainean honako deialdia egin zuen: "Ez

daukagu zirkuiturik, eta laguntza eskertuko genuke. Sariak jasotzen ditugunean jendeak zoriontzen gaitu, errekonozimendua badugu, baina gero entrenatzeko oztipoak baino ez ditugu".

MENDIKO ESKIA

# Letamendi 22. Espainiako Kronoeski igoeran

Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan zituen Espoten egindako frogak, guztira 230 atleta.

ANDER MONEDERO | OÑATI

Sailkapen orokorrean 22. eta senior kategorian 12.a izan da Iban Letamendi oñatiarra Espainiako Kronoeski Txapelketan. Atzo egin zuten txapelketa Lleidako Espot herrian eta Letamendik 36 minutu eta 30 segundutan egin zuen probak zituen 4 kilometroak.

Letamendik Joseba Tobarrekin batera osatu zuen bikotea, euskal selekzioa ordezkatzuz.

**Parte hartze handia**

Espainian kronoeski txapelketa batean inoiz baino jende



Iban Letamendi | GOIENA

gehiago izan zen, guztira, 230 eskiatzaile. Tartean Espainiako, Andorrako eta Franztiako eskiatzaileak izan ziren.

ARETO FUTBOLA

## Eskoriatzak Ortziri taldeari 2 eta 4 irabazi, eta Aretxabaletak Donosalaren aurka 4ra berdindu

Domeka goizean Bilbon lortutako garaipenarekin Euskal Ligako sailkapenean 7. dira Eskoriatzako areto futbol taldeko mutilak. Aurreko astean etxean Lagun Onak taldearen kontra bosna egin ostean, atzoko garaipenak lasaitasuna eman die eskoriatzarrei. Hurrengo astean atsedendia izango dute. Gipuzkoako 2. mailan jokatzeko Aretxabaletak, berriz, 4 eta 4 berdindu zuen Donosala taldearen aurka Donostian jokaturako partiduan. Nahiz eta berdindu, aretxabaltarrek sailkapeneko 5. postuan jarraitzen dute 27 punturekin.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
EMAITZAK	
Bergara-Diartzun	4-0
Anaitasuna-Berio	1-2
Ondarroa-Real Union	3-2
Ordizia-Mondra	0-0
Hernani-Aloña Mendi	3-1
Pasajes-Hondarribia	2-1
Idiazabal-Trintxerpe	0-0
Aretxabaleta-Roteta	2-0
Tolosa-Zumaiako	1-0

SAILKAPENA		
TALDEA	P	J
1 Hernani	39	18
2 Anaitasuna	38	18
3 Pasajes	37	18
4 Real Union	34	18
5 Diartzun	30	18
6 Aretxabaleta	29	18
7 Bergara	29	18
8 Ondarroa	27	18
9 Trintxerpe	25	18
10 Tolosa	25	18
11 Berio	24	18
12 Mondra	22	18
13 Hondarribia	22	18
14 Idiazabal	18	18
15 Ordizia	16	18
16 Aloña Mendi	15	18
17 Zumaiako	11	18
18 Roteta	9	18

HURRENGO JARDUNALDIA	
Real Union-Anaitasuna	
Mondra-Ondarroa	
Aloña Mendi-Ordizia	
Hondarria-Hernani	
Trintxerpe-Pasajes	
Roteta-Idiazabal	
Zumaiako-Aretxabaleta	
Diartzun-Tolosa	
Berio-Bergara	

ERREGIONAL PREFERENTEA	
Antzuola-Urnieta	2-0
Zestoa-Aretxabaleta B	1-3
Mondra B-Orioko	2-0

GAZTEEN LIGA NAZIONALA	
Aretxabaleta-Sestao River Club	2-0

GAZTEEN EUSKADIKO LIGA	
Bergara-Danok Bat C	3-3

LEHEN MAILAKO GAZTEAK KOPA	
Ilintxa-Arizmendi K.E. UDA B	13-0
Urola B-Aretxabaleta B	3-2
Eibartarrak B-Bergara B-Urola B	0-0

OHOREZKO KADETEAK KOPA	
Baskonia-Bergara	3-3
Aretxabaleta Arizmendi-Hondarribia	3-2

KADETEEN LEHENENGO MAILA IGOERA	
Pasajes-Arrasate	2-2
Aloña Mendi-Lengokoak B	5-1

EMAKUMEZKOAK	
Arizmendi-Touring	4-1
Mondra-Amara Berri	1-0

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA	
Ford Mugarrí-Soraluce	34-28

BIGARREN TERRITORIALA	
Aloña Mendi-BKL	36-17

GAZTEAK, GIZONEZKOAK	
Ordizia-Bergara	26-21
Aloña Mendi-Zumaiako	35-20

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK	
Bera Bera- Aloña Mendi A	23-13
Aloña Mendi B-Egia	27-22

KADETE, GIZONEZKOAK	
Arrasate-Leizaran	23-26
Aloña Mendi-Ordizia	31-46
Soraluce Bergara-Urola	22-16

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA	
UPV Alava-Sustrai Aloña	67-61
Askartza-MU	62-58

SENIOR GIZONEZKOAK	
Astigarraga-MU	64-50

SENIOR EMAKUMEZKOAK	
BKL-Eskoriatza	46-50

GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.	
Easo Haizea-Aloña Mendi	85-81

KADETE GIZONEZ. ERRENDI.	
MU A-Easo Haizta	70-64

KADETE GIZONEZ. PARTAID.	
MU B-Ordizia	38-48
Soraluce-Bergara-BKL B	65-30
Aloña Mendi-Bide Bide Take	74-46

KADETE EMAKUMEZ. ERREND.	
Eskoriatza-Iragaz	36-45

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA	
Ortziri-Eskoriatza	2-4

GIPUZKOAKO BIGARREN M.	
Donosala-Aretxabaleta	4-4

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.	
Fortuna-Aloña Mendi	b.b.

ERRUGBIA

SENIOR EUSKADIKO TXAPEL.	
Kanpanzar ART	Atsedena

# GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK  
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



goiena

PILOTA

Aitor Mendizabal | Pilotaria

# "Martinez de Irujok ezker bat gura zuen bere entrenamendurako eta deitu egin zidaten"

- ▶ Aitor Mendizabalek elite mailako Euskadiko lau t'erdikoa irabazi berri du
- ▶ Martinez de Irujori lagundu zion hark Gonzalezen aurka zuen partidua prestatzen

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Euskadiko elite mailako lau t'erdiko txapeldun berria da Aitor Mendizabal (Antzuola, 22 urte). Urte borobila egin du Mendizabalek. Gainera, aukera izan du Martinez de Irujorekin entrentzeko; harekin izandako anekdotak kontatu dizkigu.

**Zorionak, Aitor! Final borrokatua izan zen?**

Partidu parekatua izan zen finala. Ez nuen oso partidu onik egin, baina ondo atera zitzaidan. Hasieran 6-6 joan ginen. Gero, Beitia aurreratu zen 13-7; baina falta bat egin zuen eta 14-14 berdindu genuen. 18raino berdinduta joan ginen eta gero nik hartu nuen aurre. Ez nuen partidu onik egin, lau pasa egin nituen eta beste

**"Urte ona izan da; garrantzitsua izan da Gipuzkoako txapelketa irabaztea"**

**"Orain Euskal Liga jokatzeko gaitza gainerako probintzien aurka"**



Aitor Mendizabal, Antzuolako kanpoko pilotalekuan. | A.E.

hiru pilota kanpora bota nituen; baina behin partidua irabazita gustura geratu nintzen.

**Espero zenuen txapela etxera ekartzeara?**

Aurkariak pilotari garrantzitsu bat kanpoan utzi zuen, Yoldi; hortaz, banekien partidu zaila izango zela. Guztia ez eman arren, irabazi egin nuen.

Bigarren aldia da lau t'erdikoa irabazten dudana. Orain dela hiru urte irabazi nuen Urtasunen aurka eta iaz finala galdu nuen Jaunarenaren aurka.

**Elgetan ere irabazi zenuen lau t'erdikoa. Gustuko duzun neurria da?** Bai, ondo moldatzen naiz lau t'erdid barruan.

**Zure ezaugarrietara ondo moldatzen den neurria da.**

Kantxa osoan indar handiagoa behar duzu eta lau t'erdian teknikoagoa da. Leku txikiagoa denez, nire ezaugarrietara ondo moldatzen da.

**Nola baloratuko zenuke egin duzun denboraldia?**

Gustura nago egin dudana denboraldiarekin. Txapelketa asko

jokatu ditut; batzuk irabazi egin ditut eta beste batzuk ez. Urte ona izan da eta, gainera, eskuek ondo erantzun didate.

Lau t'erdiko txapelaz gain, Gipuzkoako txapelketa irabaztea ere garrantzitsua izan da. Gai-

nera, Zaldibarko finala jokatu genuen Urtezahar egunean.

**Entrenamenduak partiduen arabera egiten dituzu.**

Lehen, prestatzaile fisiko batekin ibili nintzen; baina, azkenaldian, nire aldetik entrenatzen naiz.

Partiduen arabera entrenatzen naiz. Aste bukaeran bi partidu baldin baditut, astean zehar lan gutxiago egiten dut. Astean behin entrenatzen naiz pilotalekuan eta gainerako egunetan gimnasioan egiten dut lan.

**Gainera, Martinez de Irujorekin entrenatzen ibili zara.**

Deitu egin zidaten ezker bat gura zutela esanez. Partidua zeukan Irujok Gonzalezen aurka, eta, hura ere ezker denez, ezker bat gura zuten entrentzeko. Lehenengo, Idoaterekin egon ziren, baina hura bajan zegoenez niri deitu zidaten. Oso esperientzia ona izan zen. Horrelako aukerak gutxi egoten dira eta aprobetxatu egin behar dira.

**Izango duzu anekdotarik...**

Alproja samarra da, berandu etorri zen entrenamendura. Hasierako tantoan, lau t'erditik pasa egin nuen eta Irujok esan zidan buruz burukorako gertu nengoe-la! Oso mutil jatorra da.

**Zertan zabilta orain?**

Euskal Liga jokatzeko gaitza, gainerako probintzien aurka. Zortzi talde gara: denek denek aurka jokatu dugu eta lehenengo laurak sailkatuko dira finalerdiak jokatzeko. Inigo Irueta da nire bikotekidea partiduetan.

## Beitiari nagusitu zitzaion finalean

Urtarrilaren 9an Getxon jantzi zuen lau t'erdiko txapela Mendizabalek. Asier Beitia bizkaitarraren aurka jokatu zuen elite mailako finala antzuolarrak.

Partidu parekatua izan zela azaldu du Mendizabalek. 13-7 galtzen ibili zen Mendizabal; baina, Beitia falta bat aprobetxatu zuen eta partidua 14-14 berdindu zuen. Gero, 18ra arte nahiko parekatuta ibili ziren eta azkenean antzuolarrak aurre hartu eta 18-22 irabazi zuen lehia.



Aitor Mendizabal, txapela jasotzen. | AITOR MENDIZABAL

# Nerabeen artean kezka handia sortzen du zorigaiztoko akneak

Lehen pikortak agertu orduko dermatologoarengana joatea da gomendioa

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE  
Adituen esanetan, nerabeen %75ek dute aknea. Garai horretan hormonetan izaten diren aldaketan ondorioz sortzen den arazo der-

matologikoa da. Horregatik, eta lesio larriagoak eta iraunkorragoak ekiditeko, lehen pikortak sumatu bezain pronto dermatologoarengana joan behar da.

## Sendabideak

Nerabezaroen gorputz eta itxura polita edukitzea funtsezkoa da. Hala, akneak lesio fisikoak eragiteaz gain, eta oso agresiboa bada, lesio psikologikoak ere eragin ditzake. *Consumer* aldizkarian irakurri dugunez, jokabide okerra da gaitza sendabidean jarri barik irtenbidea denboraren esku uztea. Sendabide dermatologikoak, kosmetikoak eta naturalak daude. Lehenengo biak profesional baten oniritziarekin hartu behar dira. Sendabide naturalen artean, adituek gorostia, intxaurrendoa, sagarmina eta ziapea aholkatzen dituzte. Gorostiak eta intxaurrendoa kezka eta tristezia kentzen laguntzen ei dute. Sagarmina eta ziapea, berriz, oso onak ei dira azala garbitzeko. Kasu guztietan, ebitatu egin behar dira elikagai eta kosmetiko gantzatsuak.



Neska gaztea, aurpegia pikortaz betea. | CALLIOPE 1



Umeak, eskolan, ordenagailu aurrean. | MARIA JESUS C. HISPANIA

## Irakasleek esperientzia pedagogikoak truka ditzakete sarean

Teknologia berriek gero eta baliabide gehiago eskaintzen dituzte hezkuntzan ere

**L.Z.** | ARRASATE

Ordenagailuak, arbel interaktiboak, baliabide digitalak... teknologia berriek gero eta presentzia handiagoa dute ikastetxeetan. Irakasleei teknologia berrietara azkar egokitzeko premia sortu diete berrikuntza hauek guztiek, eta prozesua ez da erraza. Ahalegin berezia egin behar izan dute eta askorendako zeregin latza da.

Teknologia berriek, baina, aukera handiak zabaldu dituzte. Ez soilik eskola orduak arinagoak egiteko, baizik eta irakasleek esperientzia ezberdinak elkar trukatzeko. Sareari esker, proiektu berritzaileak aplikatzeko interesa duten irakasleek aukera dute beste lankideek arrakastaz martxan ipinitako esperientzia eta ideia pedagogikoak ezagutzeko.

### Askotariko edukiak

Informazio baliotsu hori esku-garri dago sarean. Martxan ipinitako hainbat proiektu pedagogikoren helburuak, metodologiak eta emaitzak Interneten daude eta material digitalak deskargatzeko aukera ematen dute hainbat ataritan. *EducaRed*, *docentes innovadores*, *buenas practicas 2.0*, *rincones didacticos*, *redtic*, *profes.net*, *aulablog* eta *eduteka* dira horietako batzuk. Sortuta dauden lantaldeak, erreminta teknologiko berriak, aholkuak, hausnarketak, ikas-

gaika antolatutako edukiak, irakasleendako ikasgela birtuak... Denbora eta ikasteko nahia eskatzen dute sarean eskuragarri dauden baliabide berri horiek guztiek. Denbora eta irakasleen interesa! Espero dezagun denborarekin euskarzko edukiak ere sarean agertzen joatea.

### Lehenengo neurketak

Espainiako Hezkuntza Ministerioak txosten bat argitaratu berri du hainbat ikastetxetan egindako neurketen emaitzekin. Datu horien arabera, irakasle gehienek -%78,7- ikasgelan emandako ahozko azalpenak ilustratzeko erabiltzen dituzte teknologia berriak. Zertxobait gutxiago dira -%62,3- teknologia berriak edukien aurkezpenak prestatzeko erabiltzen dituztenak, eta datua nabarmen jaisten da -%57,5- ikasleei informazio iturri gehigarriak eskaintzeko sarea erabiltzen duten irakasleak zenbatzen badira.

Gauza bat argi dago: gero eta gehiago dira teknologia berriek eskaintzen dituzten aplikazio didaktikoak. Gehienak beste irakasle batzuek euren ikasleekin abian ipinitako esperientzietan oinarrituta daude, gainera. Esperientzia horiek lokalizatzeko bilatzaile egokiak aurkitzean dago gakoa.

## Umeei txikitatik erakutsi behar zaie euren gauzak ondo zaintzen, garrantzitsua da

Jostailu berriak jaso dituzten honetan, aukera baliatu behar dugu ordena eskatzeko

**L.Z.** | ARRASATE

Norberaren gauzak zaintzen ikasi egiten dute umeei eta erakutsi egin behar zaie. Lehenengo eta behin, argi eduki behar dugu umeei ikusitako hura egiten dutela; gurasoak ordenatuak izatea, beraz, garrantzitsua da.

Gainera, ondo antolatuko ditugu jostailuak gordetzeko apalak eta kutxak. Umeak argi eduki behar du jostailu bakoitza non gordetzen den. Kutxak eta apalak eskainiko dizkiogu horretarako, eta, behar izanez gero, etiketa edo marrazki ilustratzailekin markatuko dugu kokapen hori. Pieza txikiak kutxa berezietan gordetzen erakutsiko diogu; hala, ez ditu galduko edo nahastuko. Gainera, goiko apaletan ipiniko ditugu, anai-arreba txikiak har izan ez ditzaten.



Jostailu multzoa. | HIRIAN ALDIZKARIA

## OHARRAK

### GIDA BERRIA KALEAN

Familia etorkinen eta eskolen arteko harremanetarako jardunbide egokien gidaliburua kalerratu berri du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Sailak. Atzerriko jatorria duten ikasleen familiek ezaugarri jakin batzuk dituztela kontuan hartuta egin dute gida. Partaidetza-dinamikak sortzea du helburu gida berriak.

### TXANTXIKU IKASTOLAN

Oñatiko Txantxiku ikastolatik jakinarazi dute hainbat ekintza antolatu dituztela datozen egunotarako. Bihar, martitzena, haur masajean gainera tailerra egingo du Miren Galdosek. Eguenean, lau hilabetetik aurrerako umeen elikaduraz ariko da Amaia Diaz de Monasterioguren eta barikuan ate irekiak egingo dituzte.

### TXIKILANDIAKO ARGAZKIAK

Txatxilipurdi elkarteak urtarriaren 2an, 3an eta 4an Musakolan egindako Txikilandiako argazkiak ikusgai dituzue *guraso.com* webgunean. 79 argazki aurkituko dituzue. Bertan, aurtengo Gabonetako parkean egindako tailerrak eta zabalduko guneak ikusiko dituzue, eta, nola ez, Txikilandiako protagonistak: umeak!



# KULTURA



Xarma taldeak gozoz defendatu zituen bere abestiak agertoki gainean. | JULIO CALLEJA

## DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA

# Abesti onekin eta zuzeneko biziarekin, Xarma irabazle

- ▶ Ondarruko laukoteak, gozatuz eta gozaraziz, konbentzitzea lortu du
- ▶ Finaleko hiru taldeek eman zuten maila, aurreko aldiko saioak finduz

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Dezpreziokoengandik freskotasuna eta jarrera asko espero zen, hori eta saio landuagoa egin zuten; Xarmakoengandik abesti on sorta eta intentsitatea, horixe eta saio neurtu eta gogotsua egin zuten eta, azkenik, Lord Witchekoengandik, fintasun teknikoa eta heavy zale amorratu eta zorrotzena asetzeko moduko *show* erraldoia eta ez zuten hutsik egin, hazita irten ziren-eta ilunpeetako lordak Espaloira.

### Hobeto eta osoago

Saria azkenean Ondarrura joan da, agertokia batere arrotz ez zaion talde batentzat izan da, Xarmarentzat, abestiekin, erritmoekin eta intentsitate biziarekin, Lord Witchekoen ikusgarritasun eta eszenaratze demasakoaren

gainetik primerako abestiak eta rock tinko baina eramangarridun emanaldi batentzako. Osorik bete zuten agertokia, baxu jolea ia kabituz ezinka eta talde osoa ere itzel. Abantaila daukate garapen handiko abestiak dituztelako eta horrek berez dakarren indarrak, ez du hutsik egiten. Ahalegina ere handia egin zuten ondo girotu eta agertokiaz gain aretoaz ere jabetzeko. Kutsatu zuten azkenean euren xarma hori tinkotasun tematiz.

### Lana eta giroa

Hiruek ekarri zuten finalera taldearen bertsio findu eta landuagoa ze Lord Witchekoek ikuskizuna aberastu zuten, Xarmakoak gogo betez etorri ziren eta Dezpreziokoek, finalera freskotasunarengatik iritsita ere, azken

saioan kontzentratuago eta arreta handiz jardun zuten euren inguruko zalantza guztiak uxatzeko intentzioarekin bezala. Maila altuko finala izan zen talde guztien partetik.

### Girorik onena, Lord-ena

Hori bai, musika kontuez gain, giro eta ikuslegoaren saririk balego, zalantza barik Lord Witchekoek j@asoko lukete saria. Ikusleentzako kartel, animo eta oihuek eta taldeak lehen segundotik emandakoarekin, estiloa ezta urrundik ere ez gustatuta ere, saio gozagarri eta gogoangarria ekarri zuten. Heavy zaleak ei dira ikuslerik finenak, ez? Ba Lord Witchekoek ez zuten sari nagusia jaso baina sekula ez da ikusi Danbakan halako ikuslego eta giro gogotsu eta beroa.

## Epaimahaiaren balorazioa

### IRABAZLEA

XARMA (DISKOA GRABATUKO DUTE)

"Kantu oso onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariek; gai dira instant batean melodia itsaskorrenetik tarte metalero gogorrenera igarotzeko. Euren emanaldiak intentsitate handia du, ikusle-entzulea erabat harrapatzen duena. Instrumentuekin eta euren presentziarekin soilik, agertokia ederto betetzen dute".

### DEBAGOINEKEKO TALDERIK ONENA,

LORD WITCH (BIDEOKLIPA GRABATUKO DUTE)

"Bergarrek aurreko kontzertuan ere emanaldi landua eta zaindua egin zuten arren, finalerako "ikuskitzuna" espreski prestatu dute, detaile askorekin eta oso mimatuta, ikaragarria. Bestalde, taldea dira, bat eginda daude, oso konpenetratuta, eta hala aritzen dira agertokian. Erabat sinisten dute egiten dutena eta hori entzuleari heltzen zaio".



JULIO CALLEJA

## Dezprezio | Bergara eta Soraluze

**ADITUAK ESANA** | AITOR URIARTE

"Euren estilo *punky*aren barruan bai, baina iruditu zait finalerako maila eman dutela, zalantza barik. Finalera iristea saria ere bada, hein baten, eta lan txukuna egin dute. Niri gustatu zait".

**ENTZULEAK ESANA** | BAKARTXO SEGUROLA

"Gazteak eta gogo handiarekin, horrela ikusi ditut. Hala ere egiten duten musikarengatik eta kantengatik, agian, apur bat hotzak iruditu zaizkit. Agian abestiak motzegiak iruditu zaizkit, denbora aldetik, baina bestela, orokorrean gustatu egin zaidan saioa izan da".

**KAZETARIAK ESANA** | JON BEREZIBAR

"Taldea kontzentratuta baina,aldi berean, gozaten ikusi da, seguritate handiz jo dute, euren buruengan sinistuz. Maila igo dute aurreko saiotik finalera".

**TALDEKIDEAK ESANA** | AINHOA ARRUABARRENA

"Hasieran oso urduri geunden baina aurrera egin ahala eta berotu ahala, lasaitzen joan gara. Finalera sailkatzeko esperantzarik ere ez geneukan eta horregatik ere nahiko bitxia izan da. Ondo joan da azkenean. Lagundu digu baita ere, aurrekoan baino jende eta lagun gehiago etorri izana".



JULIO CALLEJA

## Xarma | Ondarru

**ADITUAK ESANA** | AITOR URIARTE

"Aspaldiko ezagunak ditut nik taldean, Keikeren garaietatik ezagutzen ditut Jon eta Itsaso eta banekien lan ona egingo zutela. Pozten naiz eurengatik ze oso zuzeneko ona egin dute eta lehiaketa honen irabazle izateak bultzada emango diela iruditzen zait".

**ENTZULEAK ESANA** | BAKARTXO SEGUROLA

"Hauekin geratzen naiz. Abestiez gain ipini duten giroa oso ona izan da. Talde guztia dena ematen ibili da, batez ere baxu jotzailea. Giro aldetik gustatu zait taldea gehien".

**KAZETARIAK ESANA** | JON BEREZIBAR

"Talde heldu baten aurrean gaude, zuzenean bikain eta abesti onekin. Aldeko ezaugarri guztiak zeuzkaten irabazteko eta hala izan da".

**TALDEKIDEAK ESANA** | ITSASO GUTIERREZ

"Gaurkoan oso gustura ibili gara; gogokin gentozen Elgetan berriz ere jotzeko. Ordu erdi, halere, oso motz egiten da! Jendea ere gustura zegoela ikusten zen eta horrek asko lagundu digu. Aurrekoan arazo teknikoengatik zapore gazi-gozoa geratu zitzaigun baina oraingoan dena joan da ondo".



JULIO CALLEJA

## Lord Witch | Bergara

**ADITUAK ESANA** | AITOR URIARTE

"Lord Witchekin gure *heavy* garai haierara itzuli gara eta oso ondo egon da, polita izan da, inondik ere. Talde honi buruz azpimarratu beharra dagoena da exekuzioaren eta jendearen giroaren aldetik bikain ibili direla; ezin zaie gehiagorik eskatu".

**ENTZULEAK ESANA** | BAKARTXO SEGUROLA

"Erabat harrিতuta geratu naiz talde honekin, zur eta lur utzi naute. Egia da ez nagoela ohituta musika horretara eta arraroa egin zait baina giro aldetik ikaragarria izan da".

**KAZETARIAK ESANA** | JON BEREZIBAR

"Lord Witchekoek exijentzia guztiak betetzen dituzte bai teknikoki zein ikuskizun aldetik. Kontua da euren estiloa oso espezializatua dela, "*heavy-heavy*". Zaletu horientzat sekulako kontzertua izan da; taldea oso ona da".

**TALDEKIDEAK ESANA** | IKER NARBAEZ

"Sekulako berotasuna eman digute gaur jarraitzaileek. Gu gogotsu atera gara baina jendearen erantzuna ikusitakoan hazi egin gara guztiz; haiek emandako energia eta indarrarekin guztia eginda geneukan".



"Gargantuan Melee", taldearen azken lana, aurkeztu zuen Atom Rhumbak. | JULIO CALLEJA

## Dantzarako rockaren eromen gozoa

Txapeldunen poza areagotzera eta esku hutsik etxeratu zirenen animoak suspertzera, azkenik Atom Rhumbakoak atera ziren Espaloiko agertokira. Soinu bikaina, rocka, dantza eta profesional itzelak oholza gainera igota, gau guztian pilatutako tentsioa askatu eta uxatzea lortu zuen talde itzel honek.

Kritikaren bermea eta jarraitzaileen berotasuna du Bilboko taldeak eta, hori horrela, lehen momentutik ipini zuten eszenatokia sutan, rock-and-roll dantzagarriarekin eta harritzeko moduko maisutasunez. Jendea ere dantzan eta giroa bero ordu txikiak arte.

Disko eta formazio berria aurkeztera etorri ziren Elgetara Joseba Irazoki aspaldiko lagunaren gitarrak aberastutako zuzeneko zanzapagarriarekin. Abesti berriak bai baina *Chasin' the Onagro* edota *Backbone Ritmo* disko ia mitikoetako abestiak jotakoan eromena izan zen. Kontzertu laburra eta abesti ikaragarri kondentsatua izan zen, ia arnasarik hartzeko denbora barik utzi gintuzten. Amaiera bikaina eta kontzertu txukunak. Laburra izanagatik gogoz utzi zuten bat baino gehiago, hala ere. Aurki etorri beharko dute, beraz, atzera ere gurera.



Xarma taldeko Itsaso Gutierrez.



Lord Witch taldeak zale amorratuak eraman zituen Espaloira.



Lord Witchekoek koreografiak ere egin zituzten.



Desprezioko Manzana.



Atom Rhumbaren kontzertuak boroboildu zuen gaua.



Xarmako Josuha bateria abintzen.



Xarmako Jon Kirru.



Desprezioko izu.



Despreziokoen zale ugari ere egon ziren kontzertuan.



Lord Witcheko Jordan.

## IXILPEKOAK

XARMA  
SORRARAZTEN  
DIDAZUEMAIDER  
ARREGI

OPI-en eta musikariaren gaua izan genuen barikukoa. Danbakako finala aurpegi ezagunez bete zen. Musika munduan eta telebistan lan egiten duten asko ikusi genituen: **Oihan Vega, Maider Segurola, Mikel Kazalis, Aitor Uriarte, Juan Sangre, Yago Goronaeta, Mery May, Ines Osinaga...** denak ezin aipatu zutabe txiki honetan!

**Desprezio, Xarma** eta **Lord Witch** finalistak dena ematera irten ziren. Eszenatokiak sua ere ia hartu zuen hiru taldeen emanaldiekin. Bereziki azkenarekin, izan ere **Lord Witch**-eko mutilek *arteria* guztia atera eta konfietekin lagunduta, sekulako ikuskizuna eman zuten. Gogoia, ilusioa, indarra eta presentzia eszenikoa hiru taldeek dutela uka ezina da. Bakoitza bere estiloan trebea da; Baina, batek eraman behar du saria eta onenak eraman zuen. Aupa **Xarma!**

Ondarrutarren **rock** xarma berezia dauka eta gainera originalak ere badira. Bukaera ezin hobea **Atom Rhumbaren** rock-and-roll doinuekin. Lau urteren ostean, lan berriarekin datoz eta *Gargantua Melee* lanak aho bete hortz utzi gintuen. Zuzeneko gordina eta indartsua daukate eta bikain moldatzen dira eszenatokian. **Joseba Irazoki** gitarra-jotzaile berria eroso ikusi genuen, taldearekin guztiz integratuta. Gitarra maite du Irazokik, horren eredu etxeko hormetan dituen 15 gitarrak dira!

Bukatzeo, **eskerrik asko** musikarekin dar-dar eginarazi nauzuen guztiei. hiru hilabete hauetan.

MAIDER SEGUROLA  
KAZETARIA

"Oso talde diferenteak ikusi ditut, eta hori positiboa da: ez da musika estilo bati zuzendutako lehiaketa; anitza eta irekia baizik. Ondo iruditzen zait sarietako bat bideoklipa izatea: musika zabaltzeko beste modu bat da".

MARY MAY  
ABESLARIA

"Hiru taldeak ikusita pozik nago epaimahaiaren erabakiarekin: uste dut Xarma izan dela gehien landu duena. Finala era berezian bizi izan dut, nire edizioan Normaneokoin harreman estua lortu nuen, eta gaur hemen elkartu gara".

MIKEL ALVAREZ  
ABY KEM TALDEKO KIDEA

"Desprezio txukun ikusi dut, aurrekoan baino hobeto; Xarmari zerbait falta izan zaio eta Lord Witchekoek, onena eman ez arren, oso ondo jo dute. Irabazleendako aholkua? Estudioan sartu aurretik asko entseatzea".

OIHAN VEGA  
KAZETARIA

"Ezin izan dut aurtengo edizioaren jarraipena egin, baina finalean ikusitakoak ikusita, esan behar dut hiru estilo guztiz ezberdinak ikusi ditudala, bakoitza kalitate itzelarekin. Ez nuke epaimahaiaren lekuan egon nahi!".

MIKEL KAZALIS  
ANESTESIA TALDEKO KIDEA

"Ikusi dudaren arabera talde bakoitzak bere estiloan sinistu egiten du, eta niretzako hori da garrantzitsua. Zarauztarra izan arren, saiatu izan naiz tarteka bada ere Danbakaren jarraipena egiten".

**Xarma** | Danbakaren IV. edizioko irabazleak

# "Batez ere kantu berriak egiteko ilusioarekin gaude, lokalean lanean hasteko gogoz"

- ▶ Ondarruko taldeak disko bat grabatu ahal izango du lehiaketa irabazi ostean
- ▶ Disko berrira begira, abesti berriak egiteko asmoa dutela iragarri dute

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Itsaso Gutierrezek, Josuah Froufek, Christian Martinek eta Jon Kirru Iparragirrek osatzen dute Xarma laukotea eta eurentzat izan da Danbakaren IV. edizioko sari nagusia. Egubakoitzeko garai-penaren ostean zapatuan Soraluzen jo zuten eta han izan genuen eurekin berba egiteko aukera.

**Nola gogoratzen duzue bart Danbakako irabazle zinetela iragarri zuten momentua?**

**Itsaso Gutierrez:** Poz handiarekin, urduri, eta nik neuk behintzat, emozio nahasi pila batekin. Ez genuen espero, hiru taldetako edozein izan zitekeen irabazlea, eta geuri tokatu zitzaigun; ezustekoa izan zen.

**Irabazleak zinetela iragarri zutenean, ikusleen zati batek euren desadostasuna argi utzi zuten. Zer iruditu zitzaizuen erreakzio hori?**

**Christian Martin:** Finalisten lagun eta senide asko bildu ziren bertan, eta halakoetan, zuk babesen duzun taldeak irabazten ez badu, euren alde egiten duzu.

**Jon Kirru Iparragirre:** Dena den, gu Lord Witch eta Desprezio taldeekin egon gara, eta elkar zoriondu dugu. Izan ere, Lord Withek ere ez du sari makala irabazi. Nik uste dut denok gaudela pozik egoteko moduan.

**I.G.:** Hala ere, gu gora igo ginen eta ni nire emozio guztia eutsita berba egin guran nenbilerela beste talde baten izena oihukatzen egotean, nik neuk gaizki pasatu nuen, sufritu egin nuen eta errespetu falta handia iruditzen zait.

**Egubakoitzeko gaua, orokorrean, nola joan zen?**

**J.K.I.:** Aurreko egunean baino gusturago jo genuen, izan ere orduan arazo teknikoak izan genituen. Beste talde finalistekin harreman sanoa izan genuen; lehiaketa bat izan arren naturaltasunez eraman genuen. Musikari gonbidatuak ere etorri ziren jaira.... Nire ustez, jai eta egun gogoangarria izan zen.

**Zer uste duzue ikusi duela epaimahaiak sari nagusia Xarmari emateko?**

**C.M.:** Hori ez dakigu... Azkenean egiten duguna da atera eta guk geuk gozatu: ez dakigu teknikoki zelan gabiltzan, ez dakigu transmititzen dugun.

**Danbakan izena eman zenutenean, zer zenuten buruan? Zein zen asmoa?**

**I.G.:** Kuriosoa da, izan ere kontzertuak emateko leku bila genbiltzan, Espalaira deitu genuen eta han proposatu ziguten Dan-



Danbakako laukote irabazlea, Soraluzen eskainitako kontzertuaren aurretik. | JULIO CALLEJA

bakan parte hartzea. Eta halaxe egin genuen: diskoa hartu eta aurkeztu egin ginen.

**Behin Danbakaren gorpila barrutik ezagutua, zer iruditu zaizue?**

**J.K.I.:** Gu ez gara oso lehiaketa zaleak, baina ezin da ukatu eskaintzen duen saria ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Egun musikaren industriak bizi duen krisia ikusita gainera, disko bat grabatzeak izugarritzko esfortzu ekonomikoa suposatzen du eta aprobetxatzen saiatuko gara.

**Danbaka irabazteari esker grabatuko duzuen diskora begira, baduzue buruan ze abesti sartuko dituzuen, abesti berririk egingo duzuen?**

**I.G.:** Asmoa da abesti berriak egitea. Bere momentuan grabatu genituen abesti batzuk, eta diskora begira, nahiago dugu zerbait berria atera eta aire berriak hartzen hasi.

**Gogoz estudioan sartzeko?**

**I.G.:** Batez ere kantu berriak egiteko ilusioarekin gaude, lokaleko lanetan jartzekoarekin. Studioko lanarekin baino, aurreko lanarekin hasteko gogoz gaude.

**Abestiak konposatzeko orduan, lanak banatuta daukazue ala denok egiten duzue denetik?**

**J.K.I.:** Abestiak egiteko orduan, Itsasok edo nik egiten dugu kantaren oinarria edo hasierako hazia; baina kanta gero benetan lokalean sortzen da: lehenengo musika eta melodia lantzen ditugu eta gero musikak iradokitzen duenaren arabera, letra moldatzen dugu.

**Disko berria, Danbakanentzundugun Xarmaren ildotik joango da?**

**"Letrekin jolastea dugu gustuko: ez oso zuzenak, ez metaforikoegiak"**

**"Guretzat, jotzea bera saria izan da, ezagutzera emateko balio izan digu"**

**I.G.:** Kantak barrutik ateratzen zaizkigu eta bakoitza dagoen unearen arabera izaten dira. Baina Xarma lehen kantuetatik hona bere nortasuna eraikitzen joan da, eta nortasun bereko abestiak izango dira.

**J.K.I.:** Kantak egiteko orduan ibilbide bat dugunez, elkarren arteko kimika ezagutzen dugunez, badakigu konposatzerakoan zein abestik funtzionatzen duen eta zeinek ez. Horrek geure buruari, geure gaitasunei neurria hartzeko balio digu, eta ilusioarekin gaude guretzat bigarrena izango den disko honekin hasteko.

**Zuen musika inoiz entzun ez duenari, nola deskribatu zer den Xarma?**

**I.G.:** Ez dakit zer erantzun, ez dakit etiketak jartzen...

**J.K.I.:** Rocka hartzen dugu ardatz, baina metal eta zenbait kasutan pop zertzelada batzuekin.

**I.G.:** Denok ere oso musika ezberdina eta anitza entzuten dugu; batzuetan gauza lasaiak, bestetan gauza gogorrak. Horiek azkenean, sortzen hasten zarenean, nonbaitetik ateratzen dira.

Letrak bai direla beraien artean ezberdinak: batzuk barnerakoak, beste batzuk ados ez gauden hainbat gauza aldarrikatzen dituzte. Horrekin jolastea gustatzen zaigu: ez izatea ez oso zuzenak, ezta oso metaforikoegiak ere.

**Zer eman dizue Danbakak?**

**C.M.:** Esperientzia oso polita, talde berriak ezagutzeko aukera... Eta guretzako, jotzea bera sari handia da. Jendearen artean ezagutarazteko aukera izatea izan da politena guretzat.

**I.G.:** Horri esker, atera zaizkigu kontzertuak: bai bideoak jarrita daudelako *youtube*-n, baita ikusleen artean norbaiti gustatu eta deitu egin digutelako kontzertua emateko.

**Nola planteatzen da Xarmaren etorkizuna?**

**I.G.:** Oraingo, oraina oso polita, eta etorkizunean etor dadila etorri beharrekoa. Baina nik nahia-go dut orainean pentsatu: gaur (zapatua) kontzertua dugu Soraluzen, eta atzo bezainbeste gozatu dugu; hurrengo kontzertutan ere hori izango da asmoa.



Lord Witch | Debagoieneko talde onena

## "Ez dakigu bideokliperako buruan duguna egiteko gai izango diren..."

- Landutako ikuskizunarekin, jarraitzaile sutsuz bete zuten egubakoitzean Espaloia
- Lortu duten sariari esker, bideoklip bat grabatzeko aukera izango dute bergararrek



Irabazteko asmo gabe joan arren, ibarreko talderik onena izendatu zuten Lord Witch. | JULIO CALLEJA

TXOMIN MADINA | BERGARA

Bigarren aldia izan da Lord Witch taldeak Danbakan parte hartzen duena. Oraingo honetan, Debagoieneko talde onenaren saria eskuratuta, Mondragon Unibertsitatearen eskutik bideoklip bat grabatzeko aukera izango dute. Iker Narvaezek eta Ugek erantzun ziguten finalaren ostean.

**Finala bukatuta, Debagoieneko talde onenaren saria eskuratuz. Nola hartu duzue saria?**

Ondo, pozik. Ez gara irabazteko asmoarekin etorri, ondo pasatu eta kontzertu on bat ematera baizik: jendeak gure musikaz eta gure zuzenekoaz gozatzea gura genuen.

**Zuen zaleek ez dute ondo hartu Xarmak irabazi izana...**

Erabakiak ez dira inoiz denen gustukoak... Jende asko etorri da gu ikustera, eta normala da jendea ados ez egotea. Dena den guk bideoklipa irabazi dugu, eta pozik gaude.

**Zuei zer iruditu zaizue Xarmaren garaipena?**

Ondo, zuzeneko oso ona egin dute, sendoa, eta oso ondo jotzen dute. Hiru talde ezberdin izan gara, nola baloratzen dituzu hiru talde? Eurek gainera euskaraz abesten dute, eta hori asko baloratu dela uste dugu; akaso guk ere euskaraz abestu izan bagenu, emaitza beste bat izango zen...

**Eskaini duzuen kontzertua, ikusgarria behintzat, izan da.**

Bai, guk asko baloratzen dugu bai musika eta baita kontzertuan ematen dugun irudia ere. Uste dugu garrantzitsua dela ikuskizuna eta soinuaren arteko oreka. Ondo jotzea garrantzitsua da, baita transmititzea ere; horretarako prestatzen dugu gure ikuskizuna, dekoratuak eta koreogra-

fiak bezalako detaileekin. Horrela bizi dugu guk, horrela sentitzen dugu musika, eta horrela saiatzen gara jendeari adierazten ere. Uste dugu modu horretan ikusleek gehiago konektatzen dutela gurekin. Prestatu dugun ikuskizuna gainera, ez dugu prestatu finala delako, gu beti gara horrelakoak: gustatzen zaigu, eta musikalki eta bisualki horrelakoak izan behar gara uste dugu.

**Bideoklip bat grabatzea izan da irabazi duzuen saria. Ba al duzue zerbait buruan?**

Ez dakigu buruan izan dezakeguna egiteko gai izango diren, baina tira (barreak)... Horrelako gauzetarako oso zorrotzak gara;

baloratu egin beharko da zer eskatzen dugun guk eta zer eskaini ahal diguten. Imaginatzen dut bi aldeak neurtu beharko ditugula.

**Zein izango da aurrerantzean Lord Witchek hartuko duen bidea?**


Orain arte izan duen betiko bidea, egurra ematea eta kito! Gu ez gaitu lehiaketa bat galdu edo irabazteak baldintzatzen, gu musikak mugitzen gaitu. Lehiaketa batera joan eta galdu egiten dugula? Besteentzat hobe, gu gurera goaz... Bide luzea du oraindik taldeak; Lord Witchek jotzeko agertoki bat badu, haraxe joango gara, gure gazteluekin, barkuekin edo hegazkinekin!

**"Prestatutako ikuskizuna ez da finalerako izan, beti gara horrelakoak"**

## goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

# Opari ederrak zure esku!



### Oparitu txartela

- Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu.

### Zozketa bereziak 2011n



#### Irabaz itzazu 350 €

- 2011rako oparien artean 350 euro zozketatuko ditugu.
- Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten direnen artean egingo dugu zozketa.



#### Home Cinema zuretako

- 2011n bazkide izaten jarraitzen dutenen fideltasuna sarituko dugu.
- Otsailaren 14an Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartzen dutenen artean.
- Ezaugarriak dira: Panasonic SC-PT350W DVD Home Theater Sound system.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | 2011 urteko bazkideetza: 48 euro.

[www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)

**1. ETXEBIZITZAK**

**101. SALDU**

**Antzuola.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Bi logela, sukaldea, komuna eta egongela. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 615 73 87 01 edo 943 76 22 56

**Aramaio.** Aukera paregabea. 2001eko etxebizitza salgai. 70 metro karratu. Garaje itxia. Ganbara. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. Aita Gabirel kalean kokatua. 177.300 euro. Deitu telefono zerbaki honetara: 656 -73 13 21

**Bergara.** 98 metro karratuko etxebizitza salgai toki eder plazan (espoloia). Lau logela, bi komun, igogailua, ganbara eta garajea. Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki hauetara: 628-62 45 75688 -64 71 73

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altxariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriatuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers gal-dara), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 215.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki honetara: 607-71 53 53

**Durango.** Atiko zoragarria salgai durangoko alde zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriatuta. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Informazio gehiago nahi baduzu, deitu: 659-42 58 90

**Eskoriatza.** 47 metro karratuko apartamentua salgai. Logela bat. Sukaldea jantzia. Garajearekin. Hiru urteko eraikuntza. 21:00etatik aurrera deitu, mesedez. 650-95 56 44

**Oñati.** 60 metro karratuko etxebizitza salgai San Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Jantzia eta berriatua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. Deitu telefono zerbaki honetara: 699-78 47 49

**Oñati.** Kalebarrian 71 metro karratuko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna guztiz hornituta. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. Harremanetarako: 665-71 77 98

**102. EROSI**

**Azpeitia.** Azpeitian 100 metro kuadroko etxea erosi nahi da. Terraza eta garaje handia edukitzea beharrezkoa da. Kontakurako deitu 619-41 79 47 telefono zerbakira.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Inarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Informazio gehiago nahi baduzu, deitu: 639-96 01 21

**Arrasate.** Arrasaten Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. Deitu telefono zerbaki honetara: 656 75 00 94

**Debagoiena.** Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata Aramaion eta bestea Arrasaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647-22 09 38

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela

eta sukaldea. Harremanetan jartzeko deitu: 650-56 62 06

**Zarautz.** Zarautzen gela bat alokagai. Baina pribatua du. Argiäffilano inguruan eta oso baldintza onetan. Nahi izanez gero, autoa aparkatzeko lekua ere eska daiteke. Kontakurako telefona: 690-73 11 39

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Arrasatear neska langile eta arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. Harremanetarako telefono zerbaki honetara: 606-74 42 37

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartu nahi dut Arrasaten, gehie- nez 550 euro ordainduta. Intere- sa duzenok deitu telefono zerbaki honetara. (Nabit). Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki honetara: 667 -84 47 94

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelarekin nahikoa gureku. Hilean 500 -550 euro ordaintzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki honetara: 647 -22 35 87

**Bergara.** Etxebizitza baten bila nabil alokairuan hartzeko. Hiru logela izatea beharko nuke. Gil- berto da nire izena. Deitu 654 -24 13 27 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 2 edo 3 logelarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki honetara: 677-77 22 31

**105. ETXEAK OSATU**

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 695-72 79 55

**Arrasate.** Ikasleendako logela ematen dut errentan, komun partikulararekin. Unibertsitate- tik gertu, Erquin auzoan. Harre- manetarako telefono zenba- ki: 648-19 10 38

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetan jartzeko dei- tu: 666-68 00 04

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu zerbaki hauetara: 650-62 12 94 edo 943-08 22 60

**Bergara.** Gela bat alokatuko nuke. Harremanetan jartzeko deitu zerbaki honetara: 652-74 67 15

**Bergara.** Etxebizitza osatzeko pertsona behar da, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. Deitu telefono zerbaki honetara: 670-85 86 68

**Donostia.** Donostiako Amara auzoan, topo eta autobus gelta- ki artean, gela bat alokatzen dute neska euskaldun batentzat, etxe partekatuta batean. Berdin ikasle edo langile. 619-77-28-02 edo 943-65 16 92.

**3. LOKALAK**

**301. ESKAINTZAK**

**Iurreta.** Pabilioia alokatzen da Arriaundiko industriagunean. 150 metro karratuko beheko solairua. 120 metro karratuko goiko solairua. Harremanetarako telefono zerbaki honetara: 657 -79 45 52

**Lazkao.** Lazkaon karabana gordetzeko lekua alokatzen da. Harremanetarako telefono zenbaki 629-24 70 30

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:**

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.** Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

<p><b>1. ETXEBIZITZAK</b> 101. Saldu 102. Erosi 103. Errentan eman 104. Errentan hartu 105. Etxeak osatu 106. Bestelakoak</p>	<p><b>2. GARAJEAK</b> 201. Saldu 202. Erosi 203. Errentan eman 204. Errentan hartu 205. Bestelakoak</p>	<p><b>4. LANA</b> 401. Eskaintzak 402. Eskaerak 403. Bestelakoak</p>	<p><b>6. MOTORRA</b> 601. Saldu 602. Erosi 603. Alakatu 603. Kompondu 604. Bestelakoak</p>	<p><b>8. DENETARIK</b> 801. Saldu 802. Erosi 803. Eman 804. Hartu 805. Trukatu 806. Galdtu 807. Aurkitu 808. Bestelakoak</p>	<p><b>9. HARREMANAK</b> 901. Agurrak 902. Harremanak 903. Deiak 904. Bestelakoak</p>	<p><b>10. RELAX</b></p>
<p><b>3. LOKALAK</b> 301. Saldu 302. Erosi 303. Errentan eman 304. Errentan hartu 305. Bestelakoak</p>	<p><b>5. IRAKASKUNTZA</b> 501. Jasotako 502. Eman 503. Bestelakoak</p>	<p><b>7. ANIMALIAK</b> 701. Saldu 702. Erosi 703. Eman 704. Bestelakoak</p>				

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web guna honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

**4. LANA**

**401. ESKAINTZAK**

**Debagoiena.** Emakume euskalduna behar da emakume heldua zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 46 03 85

**ARRASATE**  
Ile-apaintzaile ofiziala behar da. Ilea. 943 79 87 62

**ARETXABAETA**

Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. 688 68 54 65

**Oñati.** Emakume edo neska behar da arratsaldean hiru ume euskaldun zaintzeko. Lanegunetan 13:00etatik 16:00etara edo 20:00etatik aurrera. Interesatuok deitu 665 71 22 15 telefono zerbakira.

**BERGARA**

Zerbitzaria behar da. 943 76 56 41

**Itsasondo.** Pertsona bat behar da umeak ikastolara eramane eta etxeko lanak egiteko. 688-62 61 46

**402. ESKAERAK**

**Anoeta.** Emakume euskaldun bat naiz eta arratsaldean lan

egiteko prest nago tolosaldeen. Edozein lan mota egiteko prest nago. 626-71 48 07

**Aretxabaleta.** Eskarmentudun emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Egunez zein gauzez. Deitu 943 53 33 92 telefono zerbakira.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketala lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. Deitu 699 54 17 27 telefonora.

**Arrasate.** Bergara edo Arrasate. Neska gertu orduka lan egiteko sukalde laguntzaile edo garbiketala lanetan. Nagusiak

zaintzen ere bai, etxean bizitzeko aukerarekin. Esperientziaduna. Legezko paperak daukat. 659-37 41 95

**Arrasate.** Asteburu eta jai-egunetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketala zein plantxa lanetan. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny Salvatierra. 682 31 97 37

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketala lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu: 699-54 17 27

**Arrasate.** Bergara edo Arrasate. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketala edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperarekin. 634-84 41 94

**Arrasate.** Asteburu eta jai-egunetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketala zein plantxa lanetan. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny Salvatierra. Harremanetan jartzeko telefono zerbaki honetara deitu mesedez: 682-31 97 37

**Arrasate.** Hemengo neska prest etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako; orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate.** Nagusi eta umeak zaindu eta garbiketala lanak egingo nituzke. Gauzez zein egunez. Informazio gehiago gertu telefono zerbaki honetara deitu: 618-14 71 34

**Arrasate.** Neska euskalduna, haur hezkuntza ikasketak burututakoa, umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 615-76 19 82

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, hurrekin lanean esperientziaduna bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldean haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 606-42 64 14

**Beasain.** Lorezain bat prest dago interesa duten lursail, lorategi edo enpresentzat mantentze eta zainketa lanak egiteko. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 616-63 65 19.

**Bergara.** Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 665-75 41 32

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Haurtzaintza titulua eta esperientzia daukat. 688-65 30 62 (Arantzazu)

**Bergara.** Orduka lan egingo nuke. Geriatría titulua daukat. Esperientziaduna. Informazio gehiagorako jarri harremanetan telefono zerbaki hauentz bidez: 650-62 12 94 943-08 22 60

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeko lanak egiteko. Deitu 943 76 28 12 telefono zerbakira.

**Bergara.** Garbiketala lanetarako eta pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu nago. Deitu 691 03 25 02 telefonora.

**Bergara.** Bertako neska gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 637 18 07 23

**Bergara.** Orduka lan egingo nuke. Geriatría titulua daukat. Esperientziaduna. Deitu 650 62 12 94 edo 943 08 22 60 telefono zerbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ile-apaindegian lan egiteko edo garbiketala zein nagusien zainketa. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 619-23 37 30

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketala egiteko. Interesatuok deitu zerbaki hauetara. Finkora arratsaldean edo gauzez deitu, mesedez 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zerbakietara.

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 646-27 70 46

**Debagoiena.** Gizona gertu eraikuntzan jarduteko (erakuntza ofiziala naiz) edota garbiketala lanetarako. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 639-41 68 38

**Debagoiena.** Mutila gertu gabonetan edozein lanetan jarduteko. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 654-98 69 14

**Debagoiena.** Neska gaztea gertu eta erdiko esperientziaduna, garbiketala lanak (etxeak, atariak eta abar) eta ume zaintzaile. 664-37 49 85

**Debagoiena.** Neska gaztea, lanerako gogo handiz, gertu etxeko lanak egin, ume edo nagusiak zaindu edota bestelako lanetan jarduteko. Ana maria. Harremanetan jartzeko erabili telefono zerbaki hauetara: 943-79 90 21 edo 620-83 59 50

**Debagoiena.** Emakume batek garbiketala lanak egin edo nagusiak zainduko lituzkeen asteburuetan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki honetara: 699-09 46 26

**Debagoiena.** Geriatría laguntzaile pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixoak ospitalean zaintzeko ere, guak arne. 08:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik 08:00etara egingo nuke lan. Deitu 646-05 58 88 edo 943-79 79 49 telefono zerbakietara eta Mirianengatik galdetu.

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketala lanetan jarduteko prest nago. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 638-89 98 60

**Debagoiena.** Neska bolibiarra gertu nagusiak zaindu zein garbiketala lanetarako. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eta esperientzia daukat. Informazio gehiagorako telefono zerbaki honetara deitu: 618-14 71 34

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko, garbiketala lanetan, sukalde laguntzaile moduan edo pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako deitu telefono zerbaki hauetara batera: 645-67 82 24 edo 943 -08 11 07

**Debagoiena.** Garbiketala lanak zein pertsona nagusien zainketa lanak egiteko gertu nago. Possible baltiz Bergaran, baina auto propioa daukat bailara osoan mugitzeko. Gilberto da nire izena. Harremanetan jartzeko deitu zerbaki honetara: 654 -24 13 27

**Debagoiena.** Gazte arduratsua, paperekin eta gidatzeko baimenarekin lan egingo luke. Informazio gehiagorako jarri harremanetan: 677-77 22 31

**Debagoiena.** Soldatzaile, margolari, mekanikari edo mendietan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zerbaki hauetara batera mesedez: 645-67 82 24 edo 943-08 11 07



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokroستي.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**  
• Masterreka 92 m2. 237.399  
• Masterreka. 88 m2. Igogailuarekin.  
• Artekale 40 m2. Berritua.  
• Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.  
• Zabalotegi 60m2. Oso ondo  
• Mekolalde 110 m2. 90.000  
• Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258  
• Ibargarai 54 m2. Garajearekin.  
• Lorentxoko 73 m2. Eraikitako.  
• Burdinete 53 m2. Prezio ona.  
• Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin.  
• Ibarra 47 m2. 146.888  
• Bolu 96 m2. Garajearekin.  
• Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.  
• Zabalotegi 54 m2. 154.761  
• Aranerreka 80 m2. 189.319  
• San Lorenzo 68 m2. Berritua.  
• Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.  
• **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**  
• Artekale. Logela bat. Berritua.  
• GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**  
• Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.  
• Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

**Elgeta:**  
• **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.  
• **PREZIO EZIN HOBEAK:** 249.210 tik hasita.  
• **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

**Soraluze:**  
• Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.



Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**  
• Arizuri, 97 m2, garajearekin.  
• Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.  
• Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.  
• Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.  
• Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.  
• Burdinete, 104 m2, oso ondo.  
• Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.  
• Justo Garate, 80 m2, oso ondo.  
• Herri Lagunak, 60 m2.  
• Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.  
• San Pedro, 88 m2, ondo.  
• Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.  
• Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.  
• Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.  
• Eloorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.  
• Toki Eder plaza, 98 m2, oso ondo.  
• Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.  
• Zurratero, 81 m2, oso ondo.  
• Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.  
• Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.  
• Iparragirre, 190 m2.  
• San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.  
• Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.  
• Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzon.  
• San Lorentzon aukera ona.  
• Basarte, 69 m2. Oso ondo.  
• Toki Eder plaza, 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.  
• Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.  
• Arizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

**SORALUZE**  
• Baltegieta, 83 m2, berria.  
• Sagarerreka, 58 m2, aukera ona.

**ANTZUOLA**  
• Euzki auzoa. Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu auto edo kamoi-gidari, eta mekanikari lanak egiteko. Beste edozein lan egiteko ere gertu. Informazio gehiagorako telefono zenbaki honetara deitu 671-15 97 13 telefono zenbakira eta Juanengatik galdetu.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 13:30etik 19:30era. Informazio gehiagorako telefono zenbaki honetara deitu: 677-81 10 00

**Debagoiena.** Emakume eskaldun bat behar da emakume heldu bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Informazio gehiagorako deitu zenbaki honetara: 696-46 03 85

**Debagoiena.** 27 urteko mutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein lan egiteko, sukaldetan eta obretan zein margotzen esperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere behar bainago. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki hauetara: 689-68 56 81 edo 606-74 42 37

**Durango.** Asteburuetarako lan bila nabil durangon edo bilbon. Erreferentzia onak. Informazio gehiagorako telefono zenbaki honetara deitu: 699-77 57 21

**Durango.** Egun osoz edo interina moduan aritzeko lan bila nabil, persona nagusien zaintza edo garbiketan. Erreferentzia onak. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 650-61 01 94

**Emakumea.** gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 13:30etik 19:30etara. Interesatuok deitu telefono honetara: 677 81 10 00

**Ikasi eta antolatu.** Ingelesa ikasi gura? Eskolako lanekin laguntza behar? Zer bait antolatu behar duzu (ezkontza, bidaia, afaria)? Esperientzia daukot eta lagundu neike. Deitu lasai eta daukote zalantzak argituko dotzute. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79

**Lan bila nabil.** 27 urteko mutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein lan egiteko, sukaldetan eta obretan zein margotzen esperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere behar bainago. 689 68 56 81 edo 606 74 42 37.

**Lan egiteko prest.** Esperientziadun neska umeak edo nagusiekin zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 665 70 37 83 (Rakel)

**Mutil gaztea** gertu auto- edo kamoi-gidari, eta mekanikari lanak egiteko. Beste edozein lan egiteko ere gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 15 97 13 (Juan).

**Oñati.** Emakume edo neska behar da arratsalde hiru ume eskaldun zaintzeko. Deitu lanegunetan 13:00etatik 16:00etara edo 20:00etatik aurrera zenbaki honetara: 665 -71 22 15

**Tolosa.** Sukaldaritzan esperientzia handia duen emakume eskalduna, jate txerren batean lan egiteko eskaintzen da. Interesatuok, deitu 688-68 21 36 edo 688-68 12 57 telefono zenbakira.

**Zarautz.** Gizon eskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 658-73 08 08

**Zarautz.** Gizon eskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 658-73 08 08

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Gitarra eskolako jaso-ko nituzke Arrasaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 657-71 74 82

### 502. EMAN

**Arrasate.** Neska eskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrak emateko gertu. 679-97 76 46

**Arrasate.** Neska gazte eskalduna lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616-32 73 08

**Azpeitia.** Laguntza behar duten ikasle edo gurasoek deitu dezatela 615 793 770 telefonora.

**Bergara.** Goizez etxera joanda ingeleseko eskolako ematen ditut. Gurasoei zuzendutako eskolak, ohiko maila lortzeko. Pazientzia handia daukat. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 679-74 00 61

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 618-91 32 89

**Debagoiena.** Eskola partikularrak. Lehen Hezkuntzako irakaslea eskola partikularrak emateko prest. Rakel. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 665 70 37 83

**Donostia.** Klase partikularrak lehen hezkuntza eta dbhko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan: 628-04 15 26.

**Durango.** 4. mailako telekomunikazio Ingenieritzako ikasle eskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Epezialitatea matematika klaseetan. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 635-74 61 76

**Gasteiz.** Ingeleseko aparteko eskolako gasteizko alde zaharrean edo etxean. Zientzietan eta itzulpen gintzan lizentziaduna naiz; DBH-ko, batxilergoko, lanbide heziketako eta eredu hirueleduneko mailak ematen ditut. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 650-80 76 72.

**Gasteiz.** Ingeleseko aparteko eskolako gasteizko alde zaharrean edo etxean. Zientzietan eta itzulpen gintzan lizentziaduna naiz; DBH-ko, batxilergoko, lanbide heziketako eta eredu hirueleduneko mailak ematen ditut. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 650-80 76 72.

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoako mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituladuna. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara 664-16 02 68 edo idatzi mezu bat posta elektronikora [continental56@hotmail.com](mailto:continental56@hotmail.com) helbide elektronikora

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Renault Laguna.** Grand Tour 1.9DCI. 130 ZP. 2007koa. 88.000km. Extra guztiak. Egoera oso onean. 10.800 euro. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 652 72 35 83

**Opel Vivaro.** Lo egiteko pres-tatuta dagoen Opel Vivaro furgoneta salgai. Gutxi erabilia eta extra ugariekin (berokuntza, 2. Bateria, toldoa, bizikletak eramateko, isoteremoak, 3 pertsonendako ohea, eserleku-giratorioa, komuna...). Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 665-70 75 35

**VW multivan 2500 tdi salgai.** Vw multivan 2500 tdi salgai 15.000 euro negoziagarriak. 647-91 93 56

**Yamaha jog scooter bat salgai.** Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Betei egon da garajea. stratolnformazio gehiagorako deitu 650-1722 85 telefono zenbaki ra edo idatzi mezu bat [kaster@gmail.com](mailto:kaster@gmail.com) helbidera.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 656 -77 29 94

**Bi indoiar ekologiko salgai.** Bi indoiar ekologiko salgai. 18-20 kilokoak. 200 euro. Interesa baduzu jarri harremanetan: 669-41 69 46

**Zaldi arabiarra eta moxal emea salgai.** Zaldi arabiarra eta moxal emea salgai, euren dokumentazioarekin. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 675-70 85 74

### 703. EMAN

**Artzain txakurra** 4 urte dituen artzain txakurra oparitzen da, ezin dugulako zaindu. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 615-73 22 89

**Cocker zuri-beltza.** Cocker zuri-beltza ematen da arrasaten. 5 urtekoa. Emea. Ondo hezitakoa. Oso polita. Interesa baduzu deitu: 637-72 66 73

**Hamsterkume erusiarrrak opari.** Hamsterkume erusiarrrak opari. Etxean jaiok, 2 hilabete besterik ez. Oso ondo zainduta. Interesatuok deitu telefono honetara: 943-79 09 52 edo 600-77 05 56

**Katuak Gasteiztik.** Katu abandonatuak kale gorritik atera, zaindu eta pertsona arduratsuei bakarrik ematen dizkiegu.

Benetan maitagarriak eta ondo hezitak; bizitza ezituko dizute, dudu barik. Gasteizen gaude, baina beste lekuetara ere ermaten ditugu. Gure jarduerak ezagutzeko sartu [www.esperanzafelina.com](http://www.esperanzafelina.com) webgunean edo deitu 650-80 76 72 telefonora.

**Txakur oso polita ematen da opari.** 11 hilabeteko txakur meztzua da. Setter gorputzarekin baina golden retrieverren kolorearekin. Oso polita eta maitagarria. Oso esanekoa. Oparitzen da ezin dugulako eduki etapena handiz oparitu behar dugu. Bakarrik ondo zain dezakeen pertsona bati emango diogu. Umeekin egon da beti. Deitu zenbaki honetara: 679-23 27 93

## 704. BESTELAKOAK

**Katu eme txuria galdu da Aramaion.** Katu eme txuria galdu da. Ikusi edo aurkitu baduzu mesedez deitu telefono hauetara. Eskerrik asko. Kontakurako telefono zenbakia: 699 -40 73 35/

**Setterra galdu Bergaran.** Goiko estazio inguruan, azaroaren 20ko eta 21eko asteburuan. Setter ingeleza, arra, zuri-beltza. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu, mesedez, telefono zenbaki honetara: 688-62 84 25

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Aulkia eta kapazoa. Arrue.** Arrue derby modeloa. Etxerako sehaska, koltxoi eta guzti, eta bidaiatzeko sehaska. Komun musikala. Dena 250 euroan. Harremanetarako deitu 652-74 85 82 zenbakira.

**Bi ohe salgai, koltxoi eta somierrarekin.** Bi ohe salgai, koltxoi eta somierrarekin. 1,5 neurrikoa. Gau-mahaia eta idazmahaia, apalekin. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 650-62 61 78

**Bikien karroa salgai.** Aulkitxoak, kapazoa, maxi-cosia eta bakoitzaren zakutuak barne. Deitu 669-08 18 82 edo 943 -79 76 75 zenbakira.

**Bizikleta salgai.** Conor bizikleta saltzen dut. Egoera onean, bizikleta oso ona omen da eta garestia. Baina saltzea beharrezkoa da. Deitu 606744237 telefono zenbakira datu gehiago jasotzeko.

**Egongelako altzariak.** Estilo klasiko-rustikoa. Armairua, ontzitegia eta erdiko mahaitxoak. Egoera oso onean. Debagoienan. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu. Negatik. 653 70 45 47

**Errepideko bizikleta.** Orbea onix. 2009koa. Karbonozko

tijaduna, 54 neurrikoa. Shimano 105 aldagailuarekin eta compact sistemarekin. 645-00 56 81

**Eskiatzeko botak salgai.** Estreinatzeke. Nordica etxekoa, easy move sx modeloa, neskendako, 24,5 neurrikoa. Prezio interesgarria. 626-64 63 34

**Gitarra akustikoa eta Midi teklatura.** Takamine (G-series 530 etc.. urdina) salgai, berri-berria eta gutxi erabilia. Berri, 530 euro balio ditu eta nik 350 euroan eskaintzen dut. Teklatua Oxigen 49 hirugarren generazioko saltzen dut, hau ere berri-berria. Erosi berri 125 euro balio ditu eta nik 75 euroan eskaintzen dut. Olentzeroren hankazartzeak beste batentzat onuragarri izan daitezten. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 677 78 31 56

**Hohmer etzeko trikita salgai.** mexikoko tex-mex berezia. Hiru ilarakoa. Bost erregistro. Prezioa adostu aurretik, probatzeko aukera. Egoera oso onean. 696-37 91 79

**Izozkailu bertikala salgai.** Izozkailu bertikala salgai. 125 euro tan saltzen dut. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 679-38 23 69

**Kapazoa eta aukia salgai.** Grupo 0 kapazoa eta aukia salgai. Baita autorako aukia ere. Otik 18 kiloraino. Deitu 659-24 01 52 telefonora.

**Kotxeko lau gurpil salgai.** Gutxi erabilia. G. Grip 185 /60r1482h. 1000km. Harremanetarako telefonoa: 627-10 25 12

**Llantak eta gurpilak salgai.** Llantak eta gurpilak salgai. 16 pulgadako llantak salgai eta euren gurpilak. 195x50x16. Aukerazkoa llantak bakarrik edo gurpil osoa erostea. Harremanetan jartzeko telefonoa: 600-04 40 23

**Ordenadore pantaila salgai.** Samsung. 75 euro 17, egoera onean. Harremanetan jartzeko 680-61 96 99 telefono zenbakira deitu.

**Ordenagailua eta home cinema.** Packard bell ordenagailua eta home cinema, philips etxekoa, salgai. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 943-79 60 89

**Ohe berria salgai.** 1,35eko forjako ohea, 2 gau-mahai, 2 lanpara, nordikoa, izarak, koltxoia, somiera... Dena estreinatzeke, oso-oso polita da. Etorri ikustera konpromisorik gabe. Furgonetarik ez badaukazu, galde egidazu! Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 606 -21 37 18

**Patinetea.** Bigarren eskuko patinetea salgai, merke. Harre-

manetan jartzeko telefono zenbakia: 679-74 00 61

**Ping-pongeko mahai profesionala salgai, Antzuolan.** Egoera oso onean, berri dago. Prezioa, adosteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-52 11 48

**Snow taula burton custom.** 1,56 + burton fijazioak (m). Egoera onean. 190 euro. Informazio gehiagorako deitu: 630-65 04 03

**Snow taula salgai.** Atomic tika modeloa, neskendakoa. 1,44 neurrikoa. Behin bakarrik erabilia. Egoera oso onean. Harremanetarako deitu: 679 -09 33 34

**Umearendako osagarriak.** Kapazurako zakua salgai. Berdea eta berrea. 35 euro. Jane markako Maxi-cosierentzat zakua salgai, gris kolorekoa, 25 euro. Pardelak aldatzekoa, erruberekin 35 euro. Esnea ateratzeko Advent markakoa 40 Euro. Idatzi mezu bat [marysea15@hotmail.com](mailto:marysea15@hotmail.com) e-postara edo deitu 653 72 22 54 telefonora deitu.

**Umearendako osagarriak.** Aulkia eta kapazoa. Arrue Derby modeloa. Etxerako sehaska, koltxoi eta guzti, eta bidaiatzeko sehaska. Komun musikala. Dena 250 euroan. Deitu 652 74 85 82 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Elurretako erraketak.** Bigarren eskuko elurretako erraketak erosiko nituzke. nteresatuok deitu zenbaki honetara: 628512278.

**Inkubadora.** Bigarren eskuko inkubadora bila nabil, txitak eta galeperrak ateratzeko. Deitu 686 50 06 92 zenbakira.

### 803. EMAN

**Armairua.** Hiru ateko armairua ematen dut opari. Arrunta da baina berri dago. Emateko baduzu deitu 653 70 84 09 telefono zenbakira eta Gaizkarengatik galdetu.

**Sofa.** Egoera onean dagoen sofa, hiru plazakoa, ematen da opari Arrasaten. Interesatuok deitu 943 79 88 83 telefono zenbakira.

### 804. HARTU

**Besaulki txukun bat** kentzeko moduan bazaude, mesedez abisatu eta gustura hartuko nuke. Deitu 618 80 09 32 telefono zenbakira.

**Sofak hartuko genituzke doan.** Arrasateko Gazte Txoko-koek botatzeko dituzuen sofak hartuko genituzke zuen etxean. Deitu 688 68 49 44 telefono zenbakira

## 806. GALDU

**Arrasate.** WESC markadun beroki beltza galdu nuen abenduaren 31n Arrasateko Ekaitz tabernan. Aurkitu duenak eraman dezala, mesedez Ekaitz tabernara.

**Kartera gorria galdu da.** Urtarrilak 9 eguerdian kartera gorri txiki bat galdu zen, Ametsa taberna edo inguruetan. Diru dexentekin. Mesedez, deitu 618-04 96 62ra.

**Irakurtzeko betaurrekoak galdu.** Abenduaren 9an, eguena, irakurtzeko betaurrekoak galdu nituen Bergarako industrialdetik kiroldegirako bidean. Aurkitu badituzu, deitu telefono zenbaki honetara, mesedez. 943-76 28 35

**Pultsera galdu.** Joan zen azaroaren 25ean perla urdindun urrezko pultsera galdu nuen Arrasateko Kontzetzio eta Erguin kaleen artean. Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez zenbaki hauetara: 675-71 75 14 943-79 42 65

**Txamarra beltza galdu.** Azaroaren 6an orly (azken bazer) tabernan ante itxurako gizona zkoendako txamarra beltz bat galdu nuen. Aurkitu duenak deitu dezala telefono zenbaki hauetara, mesedez. Eskerrik asko. 680-44 91 61 699-72 48 91

## 808. BESTELAKOAK

**Bergara.** Azaroaren 29an etxeko atetik bizikleta hartu ziguten, Zubiaurren. Eraman baduzu edo nonbait ikusi, deitu, mesedez. Laranja kolorekoa da, mota zuriekin. la berria da. Deitu 943 76 0130 telefono zenbakira.

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Gasteizera egunero debagoienatik.** Egunero gasteizera autoan joaten naiz. 09:00etan gasteizen egoten naiz eta 13:00etan bueltatzen naiz. Joateko bakarrik, edo bueltatzeko aukera. 690-19 82 79

**Zarautza lanegunetan.** Zarautza lanegunetan. Tolosaldeetik edota Goierritik Zarautza autoz joateko jende bila. Irten, 7:00etatik 8:00etarako tartean; eta handik buelta, 15:00-16:00 bitartean. Deitu 688-60 67 15 telefono zenbakira.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaietara eta proba egin! Deitu zure herriko jai edo ikusizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Idatzi mezu bat alde zaharrekojoaldunak@gmail.com helbidera.

[www.inmosalbide.com](http://www.inmosalbide.com)

**SALBIDE**  
Higiezin zerbitzuak

**Aia.** Eraikuntza berria, 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 41.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi, 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Egoera eta prezio onean. 46.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren, 3 logela, bainugela eta aseoa. Terraza handia hegoaldera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.

**Zestoa.** Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz  
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

# DANBAKAKO FINALA

GOIENA TELEBISTA  
EGUBAKOITZA 21, 22:15



goiena™

## 'Goiena.net' atariko bisitek %34 egin dute gora 2010ean

Inoiz baino bisitari gehiago izan genituen 2010ean *Goiena.net* atarian. 2009ko datuekin alderatuta %34 egin dute gora bisitek. Hauek dira iazko datuetako batzuk: bisitari bakoitzak, batez beste, 4,44 web orri ikusi zituen eta hiru minututik gora egin zituen gure atarian; eta 2010eko martxoaren 1ean izan genituen bisitari gehien: 5.130.

## Josemari Velez de Mendizabal "burutazioak", blogean

Josemari Velez de Mendizabal historialari arrasatearrak bloga estreinatu zuen urte bukaeran. Helbidea hau da: [txemax.blogspot.com](http://txemax.blogspot.com).

Velezek berak dioen moduan: "Nire burutazio eta lanetarako tokitxo bat izango da espazio hau. Konpartitzez badaukat, hobe". *Etorkezuna etorkizun* izena ipini dio blogari.

## E-bookek liburuek baino irakurle gehiago AEBetan

Liburu digitalek paperezkoek baino erabiltzaile gehiago dituzte, lehen aldiz, AEBetan. Gehien saldutako sei liburuen bertsio digitalak paperekoen aurretik daude; tartean, Stieg Larssonen trilogia. 50 liburu salduen artean, 19ren bertsio digitalak daude eskuko liburuen aurretik. Espainiako Estatuan ez dute halako arrakastarik eduki.

## Sexu gehiago praktikatzan dute iPhone erabiltzaileek

2010eko udan argitaratutako ikerketa baten ondorioztatu zuten iPhone erabiltzaileek beste multimedia telefono mugikorren erabiltzaileek baino sexu gehiago praktikatzan dutela. Blackberry edo Android sistema eragiledun telefonoen erabiltzaileek baino gehiago. *Gaztelaniaz Tiramillas*-ek eman zuen albistearen berri.

## Skype-ek erabiltzaile errekor berria ezarri du une berean: 27 milioi

Skype plataformak bere errekorra gainditu du: une berean, 27 milioi erabiltzaile konektatu dira. VoIP deiak egiteko Skype-en plataformak ez ditu mugak ezagutzen. Badirudi Apple-en iOS sistema eragileen bideo-deien aukerak eragin duela errekor berria. Telebistetan jarri berri diren bideo deien plataformek ere lagun du dute kopurua handitzen.

# Blog, telebista eta sare sozialek lekua dute MUren webgune berrian

CodeSyntax enpresak berri du ataria unibertsitate osoko ordezariekin, eta diseinu argiagoa du: zuria eta berde korporatiboa dira kolore nagusiak

**U.AGIRRE/M.BIKUÑA** | ARRASATE  
Mondragon Unibertsitateak berri egin ditu unibertsitatearen webgunea eta haren barruan dauden subsite edo azpiwebguneak, zortzi guztira. Webgune berriua hobeto egokitzen da egungo pantailatara, diseinu garbiagoa du eta lekua egin die blog, telebista eta sare sozialei.

2010eko uztaila ezker, batzorde bat lanean ibili da CodeSyntax enpresarekin batera, diseinu berria egiten. Batzorde horretan unibertsitate osoko ordezkariak egon dira.

### Berrikuntzak

Webgune berriak hainbat berrikuntza ekarri ditu, batzuk begi-bistakoak eta besteak ez hain nabarmenak. Zuria eta berde korporatiboa nagusi dira MUren oraingo atarian. Webgunearen eremua zabalagoa da lehen baino, hobeto egokitzen delako gaur egungo erabiltzaileen pantailatara. Horrek pantaila garbiagoa egiten du.

Informazioa, berriz, bi eremu nagusitan banatzen da orain: erabiltzaile arruntak zerrenda beltz baten aurkituko du informazioa; bertan ikasi nahi duenak, berriz, eremu berde bat izango du, han informazioa bilatzeko. Gainera, ezkerrean lauzpabost informazio nabarmenduko dituz-

te. Bestalde, uneoro albisteak erakutsiko dituzte. Eta eskuinean *MUkomunitatea* joango da.

Edukiari dagokionez azken hori da berrikuntza nabarmena. Komunitate horren barruan, elementurik nabarmena *MUtelebista* izango da, hura beti egongo da eta ikusgai unibertsitatearen webgunean. Horrekin batera, bi blog mota egongo dira: alde

batetik, korporatiboak direnak eta unibertsitateko lanekin lotura dutenak; eta, beste alde batetik, *MUren lagunak* delakoa. Unibertsitateko langileen blogak dira, unibertsitateari lotutakoak, baina ez daude zuzenean.

Sare sozialek ere izango dute tokia komunitatean: atarian jasoko dira unibertsitateak dituen Twitter, Facebook, Youtube eta

Tuenti kontuak. *MUkomunitatea* Mondragon Unibertsitatearen webgunean bakarrik agertuko da, baina fakultateetako enetan ere sarbideak izango dituzte.

### Plone 4.0

Webgunearen diseinu berria baliatu dute hura kudeatzeko duen sistema ere eguneratzeko, alegia, *Plone*: edukiak kudeatzeko sistema librea. Aurrerantzean, bada, webguneak erabiliko du *Plone*-ren azken bertsioa, 4.0.

Berrikuntza asko MUren ataria erakargarriagoa, modernoagoa eta garbiagoa egiteko. Informazio guztia [www.mondragon.edu/eu](http://www.mondragon.edu/eu) helbidea aurki daiteke; besteak beste, unibertsitateak eskaintzen dituen ikasketak.

The screenshot shows the Mondragon University website with a new design. At the top, there is a search bar and language options (english, español). Below that is a navigation menu with items like Sarrera, Ikasketak, Ikerketa, Zerbitzuak, Guri Buruz, Aktualitatea, and MU Komunitatea. The main content area features a large image of a person reading a book, with a sidebar titled 'Gurekin ikasi nahi duzu?' containing links for GRADUAK, GRADUONDOKOAK, and HEZIKETA IRAUNKORRA. Below this, there are sections for 'IKASLE BERRIA ZARA?' and 'Albisteak' (news), including a recent article about the Basque Culinary Center. The footer includes 'MU PLUS Professional Learning' and 'MONDRAGON UNIBERTSITATEA'.

Mondragon Unibertsitatearen atari berriua. Zuria eta berde korporatiboa dira kolore nagusiak. | GOIENA

# Wikipediak hizkuntza askotariko 278 edizio argitaratu ditu hamar urtean

Sareko entziklopediak hamargarren urteurrena bete zuen hilaren 15ean

**M.B.** | ARRASATE

Wikipedia sareko entziklopediak ([es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada](http://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada)) hamar urte bete zituen hilaren 15ean. Egunean 400 artikulua berri sortzen dira Wikipedian, eta 225 kolaboratzailek hartzen dute parte. Hizkuntza askotariko 278 edizio argitaratu ditu dagoeneko eta 410.000 irakurletik gora ditu.

Hizkuntza ezberdinetan ditu bertsioak. Euskarazko bertsioa ([eu.wikipedia.org/wiki/Azala](http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala)) apurka-apurka osatzen dihardute, erabiltzaileen laguntzarekin. Oraingoan, 63.282 artikulua ditu. Aldiz, gaztelaniazkoak 700.000 sarrera ditu.

12,3 milioi euroko dirulaguntza jaso berri du Wikipediak sareko entziklopedia osatzeko lanean jarrai dezan. Artikuluak bozkatzeko aukera aztertzen dihardute. Oraingoan, proba fasean daude, baina laster jarriko dute martxan. Hori azaldu dute sareko entziklopediaren arduradunek.

### Miloi bat artikulua 2004an

2001eko urtarrilaren 15ean sortu zuten Wikipedia. Hasieran, AEBei, Uruguairi eta Britainia Handiari buruzko hiru erreportajetarako loturak zituen. Orduetik hona, baina, bilakaera izugarria izan du. Horren adibide dira datu hauek: Wikipediak 26 hizkuntza zituen 2002an, 2003an 46 hizkuntza, eta 2004aren bukaeran 161. Urte hartako irailaren 20an milioi bat artikulura heldu zen.

Wikipedia entziklopediaren erabiltzaileen etengabeko gorakada ikusita, eta erabiltzeko erraza denez, *wiki* berba Oxfordeko ingelesezko hiztegian sartzea onartu zuten.

# Euskarazko webguneen rankinga egiteko modua

**M.B.** | ARRASATE

Euskaraz Interneten zer ikusten dugun hobeto ezagutzeko asmoz, *ebizi* proiektua sortu dute. Han, nabigatzaileek euskaraz gehien ikusten diren webguneak zeintzuk diren jakin dezakete.

Orain arte ez da euskaraz dauden webguneen rankingik egon. Cybereuskadi izan zen horrelako ranking bat egiten lehena, baina han gaztelania hutsezkoak ere agertzen ziren, eta *ebizi*-n ez.

Zerrenda osatzeko hartu den irizpidea euskaraz egotea izan da. Hura ikusteko bi era daude: rankinga, arlokakoan 12 mota bereizi dira, eta batez beste 35 webgune ikusi daitezke bakoitzean: kultura, kirolak, erakundeak, enpresak, hezkuntza, aisialdia-bidaiak, hedabideak, zerbitzuak, euskara, politika, gizartea eta teknologia.

## TELE-BEGI

AMAIA PAVON  
'twitter.com/#!/amaiapavon'



## Kulechov efektua

X. mende hasierako aurkikuntza izan zen Kulechov efektua, izen bereko zinegile sobietarraren esperimentuen harira sortua. Aurkikuntzaren berritasuna izan zen muntaiak zuen garrantziaz ohartzea: irudi berberak erabilia, orden desberdinetan jarri zituen Kulechov, eta mezua esanahia nola aldatzen zen ohartu zen.

Urtarrilaren 10eko ETBko albisteak ikusten ari nintzenla ohartu nintzen Kulechov efektuaren interesaz. 23 minutu bete zituen su-etenaren gaiak egun hartan. Informazioaren objektibotasuna baloratu barik, ETBk su-etenaren gainean transmititu gura izan zuen mezua antzeman nuen argi eta garbi, soilik albisteen hurrenkerari erreparatuta.

Patxi Lopezen adierazpenen ondoren etorri ziren Rubalcabarenak, eta politikari ugariaren desfilea amaitu zen ezker abertzalekoen hitzekin. Horren ostean azaldu zituzten honakoak: ezker abertzalearen ilegalizazio eta izen aldaketak, ETAK aitortutako eta hautsitako su-etenak eta, amaitzeko, terrorismoaren biktimen elkar-goaren idatzia ETB1en eta elkargoko Pueyesen elkarrizketa ETB2n. Kulechov efektu perfektua.

## ASTEA GOIENAN

## GOENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 17

Kirol kontuak  
'Harmailatik'-en

20:45

Aste bukaera ibarrekiko kirol talde eta kirolariak egindakoak ekarriko ditu *Harmailatik* saiora Xabier Urtzelai kazetariak.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Berbetan

14:45 Berriak

15:15 Onein

16:45 Berriak

17:10 Marrazki bizidunak

17:45 Antzerki topaketak

18:15 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Goiena Magazinea

22:30 Harmailatik

23:15 Gipuzkoa Kultura

23:45 Goiena Magazinea.

MARTITZENA, 18

'Magazinea'-n  
elkarrizketa

19:45

Eneko Azkaratek eta Arritxu Barrusok Mikel Intxausti Kutxa fundazioko kidea elkarrizketatuko dute magazineko tartean.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Harmailatik

16:00 Kulturzulo

16:30 Herriz-herri

16:45 Berriak

17:15 Marrazki bizidunak

17:45 Harmailatik

18:15 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Danbaka

21:30 Goiena Magazinea

22:30 Iragana gogoratzuz

23:00 Goiena Magazinea

EGUAZTENA, 19

'Ander eta Yul'  
filma GOIENAN

21:45

Zinema tertuliaren ondoren *Ander eta Yul* filma eskainiko dute. Ana Diezen filma da aipatutakoa, 1989an egindakoa.

13:15 Marrazki bizidunak

13:35 Kantari

14:00 Harmailatik

14:45 Berriak

15:15 Onein

15:45 Bitartean

16:45 Berriak

17:10 Marrazki bizidunak

17:35 Harmailatik

18:20 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Tertulia

21:45 Filma

23:15 Goiena Magazinea

EGUENA, 20

Barandiaranen  
museoa

22:15

*Gipuzkoa Kultura*-n Jose Migel Barandiaranen museoaren gaineko monografikoa egingo dute. Ataunen izan dira.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Nire herria

15:45 Bitartean

16:45 Berriak

17:15 Marrazki bizidunak

17:45 Ipupomamua

18:15 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

20:45 Danbaka

21:15 Goiena Magazinea

22:15 Gipuzkoa kultura

22:45 Danbaka

23:25 Goiena Magazinea

EGUBAKOITZA, 21

Danbakako  
irabazleak

22:15

Danbakako laugarren edizioako irabazlearen kontzertua eskainiko dute; eta baita Deba-goieneko talde onenarena ere.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Ur eta Lur

15:45 Kulturzulo

16:00 Danbaka

16:45 Berriak

17:15 Marrazki bizidunak

17:45 Gipuzkoa Kultura

18:15 Ipupomamua

18:45 Berriak

19:15 Kantari

20:45 Gipuzkoa Kultura

21:15 Goiena Magazinea

22:15 Danbaka

23:15 Goiena Magazinea

## ARRASATE IRRATIA

Txakolinaz eta  
sagardoaz jardungo  
dute irratian

Gaur, astelehena, aurkeztuko dute ibarreko txakolina. San Antonio egunez egiten dute aurkezpena urtero. Bada, irratiko lankideek gai hori izango dute hizpide gaurko irratsaioan. Gainera, egue-nean, txotx denboraldiaren berri emango dute *Igo autobusera* saioan.

Jarraipen berezia  
egingo diote  
Danbakako finalari

Danbakako laugarren edizioak eman duena izango dute hizpide irratian. Jarraipen berezia egingo diote egubakoitze-ko finalari: irratiko uhinetan jasoko dituzte finalak eman zuena, eta baita protagonisten berbak ere. Besteak beste, talde irabazlearekin egongo dira irratiko lankideak.

'Irrien lagunak' DVDa  
zozketatuko dute  
egubakoitzean

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Irrien lagunak* DVDa zozketatuko dute egubakoitzean *Igo autobusera* saioan. Zozketa 11:15ean izango da. Parte har daiteke aste osoan zehar, 943 25 05 05 telefonora deituta edo [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidean. Irabazleek pailazo ezagunen azken lana eramango dute.

## TELE-ALBISTEAK

Goiena Telebista ikusteko  
arazoak dituztenek berriro  
sintonizatu beharko dute

Muruko antenan hainbat egokitzapen egin dituzte azkenaldian; horregatik sortu da arazoa

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Hainbat aldaketa eta egokitzapen egin dituzte Muruko antenan azkenaldian; hori dela eta, baliteke Goiena Telebista ikusten zuten hainbat etxetan orain ez ikustea, edo arazoak izatea Goiena Telebista ondo ikusteko. Kasu horietan, telebista berriro sintonizatu beharko da Goiena Telebista. Hau da, telebista berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela eskuz) Goiena Telebista.

## Lurreko Telebista Digitala

Seinalea Lurreko Telebista Digitalaren bitartez jasotzen duten etxeetan egin beharko dute ego-

kitzapen hori. Antenetan egindako egokitzapenak eragina dauka herri hauetan bakarrik: Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Aramaion eta Oñatin.

Hortaz, berriro sintonizatu beharko dute telebista ondorengoek: aurrez aipatutako herriretan bizi direnek; telebista LTD bitartez ikusten dutenek; eta orain arte Goiena Telebista ikusten zutenek, baina azkeneko egokitzapenen ondoren ikusten ez dutenek.

Aipatutako egokitzapenak egin ondoren ondo ikusi beharko litzateke Goiena Telebista Deba-goieneko etxe guztietan.

Kerman  
mintzalagun  
bila dabil  
Bergaran

A.E. | BERGARA

Jende bila dabilta Bergaran urtarrilaren 25ean, martitzena, *Kerman mintzalagun* bila saiorako grabatuko dituzten ataletarako. Hiru lagun behar dituzte. 18 urtetik gorakoak izan behar dute. Berdin dio neska edo mutil, baina euskaraz jakin behar dute.

Ordutegia honako hau izango da: 09:00 inguruan mintzalagun bat, 11:30 inguruan beste mintzalagun bat eta 15:15ean hirugarren mintzalaguna. Hau guztia zehaztu eta gero, gidoia bidaliko zaie saioan parte hartu nahi dutenei. Informazio gehiago 94 423 33 02 edo 638 299 994 telefonon; edo bidali mezua [kermanetb@gmail.com](mailto:kermanetb@gmail.com) helbide elektronikora.



Goiena Telebista ikusteko arazoak izanez gero, berriz sintonizatu behar da. | XU

## ZORION AGURRAK



**ARRASATE**  
**Luken Ormaetxea Artola**  
Urtarrilaren 23an, 5 urte. Zorionak, Luken! Iritsi da azkenean zure eguna. Patxo handia familia guztiak eta batez ere Elenek!



**ESKORIATZA**  
**Serafin Sanchez Donoso**  
Urtarrilaren 23an, 46 urte. Zorionak etxekoan partetik eta patxo handi bat.



**ESKORIATZA**  
**Aimar Ortiz Esnaola**  
Urtarrilaren 21ean, 3 urte. Zorionak, preioxo! Egund polita pasa dezazula opa dizugu familia guztiak. Merendola ona prestatu eh? Hiru muxu txokolatezkoak bereziki amatxo eta aitaxoren partetik.



**ARRASATE**  
**Malen Artetxe Arregi**  
Urtarrilaren 20an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Izaro, amatxo eta aitaxoren partetik.



**OÑATI**  
**Joane Arkauz Corrales**  
Urtarrilaren 18an, 4 urte. Zorionak, printzesa. Ondo pasatu zure egunean! Muxu pila bat etxekoan partetik.




**ELGETA**  
**Amets eta Aratz Olasolo Mendizabal**  
Ametsek urtarrilaren 4an, 4 urte eta Aratzek 17an, urte bi. Etxekoan partetik patxo pila bat eta zorionak!



**ARETXABALETA**  
**Alin Cabeza Davila**  
Urtarrilaren 17an, 2 urte. Zorionak etxekoan partetik!



**ARETXABALETA**  
**Ane Samaniego Urbarren**  
Urtarrilaren 17an, urtebete. Zorionak, preioxoa zure lehenengo urtebetetzien, batez be mordo bat guretzun zure lehengusu Beñatek. Pa.



**ARRASATE**  
**Gaizka Arizabaleta Rodriguez**  
Urtarrilaren 16an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon, eta batez ere, Amalur, aitaxo eta amatxoren partetik!



**BERGARA**  
**June Arando Salaberria**  
Urtarrilaren 16an, 7 urte. Zorionak, txori txiki! Ondo-ondo pasatu egun berezi honetan eta jaso etxeko guztion patxo potolo-potolo asko, batez ere Malenenak.



**OÑATI**  
**Irati Mugarza Aurre**  
Urtarrilaren 14an, 2 urte. Zorionak, txikitina! Eneko, aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.



**ARRASATE**  
**Alazne Canales Losa**  
Urtarrilaren 14an, 3 urte. Zorionak, pitxintxote, Ama, aita eta Aitortxuren partetik. Ondo pasatu zure festan Makatzenan eta muxu handi bat Porrotxen partetik!



**ARRASATE**  
**Irati Zaitegi Manzanaz**  
Urtarrilaren 13an, 4 urte. Zorionak eta patxo handia familia guztiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Haizea Duandikoetxea Otxoa**  
Urtarrilaren 13an, 4 urte. Zorionak! Zorionak, aitaxo eta amatxoren eta etxekoan partetik.



**ARRASATE**  
**Jakes Sarabia Mendia**  
Urtarrilaren 12an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ikastolara bizkotxo goxoa eraman, eta handi-handia. Ondo pasatu eguna eta zorionak bereziki familia guztiaren partetik Julene, aitaxo eta amatxoren eta familia guztia, denekin merendola egin!



**OÑATI**  
**Garazi Gredilla Etxaburu**  
Urtarrilaren 12an, 5 urte. Zorionak, polittori! Oso ondo pasatu eguna eta muxu potolo-potolo bat laguntxo eta etxekoan partetik.



**OÑATI**  
**Miren Ugarte**  
Urtarrilaren 12an, 15 urte. Zorionak, ugarsunn! Lagun danan partetik! Primeran pasatu eguna! Eta 15 patxo danon partetik!



**ARRASATE**  
**Julen Ugalde Gorosabel**  
Urtarrilaren 11n, 5 urte. Zorionak, mutikote. Dagoeneko eskua bete duzu. dOndo pasatu zure egunean, familia guztiaren partetik. Aupa bakero.



**ARETXABALETA**  
**Aritz Lizarriturri Etxenausia**  
Urtarrilaren 11n, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Txokolatezko patxo goxo goxo bat zure ahizpa Doltza eta familia danan partetik.



**OÑATI**  
**Eneko Mugarza Aurre**  
Urtarrilaren 10ean, 4 urte. Zorionak kariñito, familia guztiaren partetik eta muxu handi bat, Irati, aitaxo eta amatxoren partetik!



**ARRASATE**  
**Alaine Roa**  
Urtarrilaren 10ean, 23 urte. Zorionak guapisima, Malen eta zure kutxurren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetzea.



**ARRASATE**  
**Gorka Armendia Zallo**  
Urtarrilaren 9an, 7 urte. Zorionak, Gorka! Gure mutikote handiari 1000 kilo zorion eta patxo handi handiak Oier, aitaxo, amatxo eta etxeko guztion partetik. Urrengoan baietz Errealak 7-0 irabazi!



**BERGARA**  
**Aitziber Plazaola Oregi**  
Urtarrilaren 7an, 24 urte. Zorionak ez zara txarto bizi, hala zuen argazkiak adierazi; zeralako indarreko hazi, ia gure poza ahal dizuten helarazi. Zorionak Tiolai!

## OROIGARRIA

**Carlos Larringan Aranzabal**

Larringan autoeskolakoa

2011ko urtarrilaren 11n hil zen, 65 urte zituela.



*Joan zinen  
gu hemen utzita  
baina, jakin ezazu,  
inoiz ez zaitugula ahaztuko.*

Zure lankideak: Malu, Eukene, Juanito eta Iñaki.  
Aretxabaletan, 2011ko urtarrilaren 17an.

## ESKER ONA

**Blanca Eguren Urkiola**

Antonio Urzelaireren alarguna

Bergaran hil zen 2011ko urtarrilaren 7an, 83 urte zituela.



Hileta-elizkizunera etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2011ko urtarrilaren 17an.

**GOIENAN ESKELA JARTZEKO  
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.  
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.**



Eskelaren prezioa: 122,50 euro.  
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 163 euro.  
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

**ARRASATE**  
Goiena: Oñalora lizentziaduna 31.  
943 25 05 05.

**BERGARA**  
Goiena: Ibarra kalea 6.  
943 25 05 05.

**OÑATI**  
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.  
943 78 10 65.

**ARETXABALETA**  
Goiena: Durana 11.  
943 79 86 21.  
edo: Basabe poligonoa E05.  
943 25 05 05.

**ARAMAIO**  
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.  
945 44 50 22

**ELGETA**  
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.  
943 76 80 98

**ANTZUOLA:**  
Itzar liburu denda: Kalebarren 1.  
943 76 60 62.

JAIOTAKOAK



**Izei Ferrero Pagaldai**

Elorrio 3,010Kilo. Urtarrilaren 7a. Gurasoak: Karmele eta Remi. Argazkian, Izei gurasoekin.



**Alana Dieguez Santos**

Eibar 3,170 Kilo. Urtarrilaren 9a. Gurasoak: Naiara eta Igor. Argazkian, Alana izeko Mainerrekin.



**Malen Medina Castro**

Bergara. Urtarrilaren 7a. Gurasoak: Naiara eta Oscar. Argazkian, Malen izeba Marijorekin.



**Haizea Pablos Dominguez**

Arrasate 3,460Kilo. Urtarrilaren 12a. Gurasoak: Usue eta Iban. Argazkian, Haizea gurasoekin.



**Helene Uzin Lazkano**

Bergara. Urtarrilaren 11. Gurasoak: Maite eta Aritz. Argazkian, umea aitarekin.



**Nahia Blanco Uribesalgo**

Esakoriatza 2,930Kilo. Urtarrilaren 13a. Gurasoak: Agurtzane eta Juanan. Argazkian, umea aitarekin.



**Oinatz Otadui Aranbarri**

Arrasate 3,310Kilo. Urtarrilaren 13a. Gurasoak: Belen eta Igor. Argazkian, umea gurasoekin.



**Aimar Andres Martin**

Arrasate 2,880Kilo. Urtarrilaren 14a. Gurasoak: Maite eta Jorge. Argazkian, umea gurasoekin.

**BABESLEA**

**IKUSI MAKUSI**  
Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA


HITZ GEZIDUNAK

	Azaleko lagun	... baterako, adibidez	Pl. eguerdiko otordua
	* Bergarako auzoa	Oroitzeko ahalmena	Nafarroako herria
	Oso-oso garbi		
	Eraikin mota		
Bahe	Toka, diote		
Sumeriako hizkuntza	Eragile		
Gurtza-gai			Gramoa
Batekoa			Behar
		Enara	
		Islandia	
Zilindro kiribildua			Bokala
Esatekoak			Bokala

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	A	N	A	S	R	E	Z
A	A	N	A	B	O	B	B
I	A	E	L	A	T	A	B
R	G	M	T	E	M	T	S
A	R	E	R	I	E	M	S
K	E	T	Z	I	O	T	Z
Z	A	R	A	T			
A	U	S	A		E	L	O
B	E				E		

4	2	7	5	8	9	6	1	3
8	9	6	3	1	2	4	5	7
3	5	1	4	7	6	8	2	9
1	6	5	9	3	8	2	7	4
9	7	4	2	5	1	3	8	6
2	3	8	7	6	4	1	9	5
5	8	2	6	9	3	7	4	1
7	1	3	8	4	5	9	6	2
6	4	9	1	2	7	5	3	8

X	X	E	T	E	J	O	L	R	I	A
A	L	I	A	U	R	O	R	U	A	P
										K
										G
										X
										A
										E
										A
										A
										H
										J
										B
										L
										P
										K
										A
										Z

SUDOKUA

			1		7			8
						9		
5			6	9				
2	3	8	7					
		4		5		3		6
1	5	9	3				7	4
3						8	2	9
						4	5	7
		7	5		9			

HIZKI SALDA

Bost barazki.

Z	A	I	N	Z	U	R	I	A
J	I	G	Z	D	X	T	K	A
L	P	K	M	O	B	B	J	H
T	O	M	A	T	E	A	A	A
Z	K	L	O	Z	L	B	T	X
L	K	Z	T	H	E	A	E	A
T	U	H	K	O	K	P	G	X
P	O	R	R	U	A	I	L	A
J	O	L	R	T	E	X	A	X

HIEROGLIFIKOA

Zer ehizatu zenuten asteburuan?



Hieroglifitkoa: Bi ahate.

## AI, ENE!

### Umeak bizikletan eramateko

Guraso asko jo eta sua dabilta umeak bizikletan eramateko tramankulu bila; bada, hemen beste proposamen bat.  
[www.sarda.es](http://www.sarda.es)



## AHOBERO

### "Jose Mourinho, cachemirako jertseak jantzi arren, zakarra eta lotsagabea da"

FRANZ BECKENBAUER | BAYERN MUNICH

Atal honetara behin baino gehiagotan ekarri ditugu Real Madrilgo entrenatzaile mediatikoaren adierazpenak. Hona hemen, baina, hari buruz Franz Beckenbauer Alemaniako Bayern Munich taldeko ohorezko presidentek esandakoa.  
[www.as.com](http://www.as.com)

## EGURALDIA



Max. 15°

Min. 4°

Astlehenean zerua ez da erabat garbi egongo, fronte bat hurbilduko zaigu-eta.  
[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2011-01-17

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Aiora Renteria** Une ezta da Zea Mays taldekoek gaur egun bizi dutena. *Era* diskoa kalera atera berrian, aretoak betetzen eta forma bikainean daude. | JON BEREZIBAR

## "Bizitzak aurrera egiten duela ikusten da gure diskoetan"

### 1. Asko aldatu da zuen soinu azken urteotan. Zer gertatu da?

Etengabeko garapenaren ondorioa da, bizitzak aurrera egiten duela ikusten da. Musika asko entzuten dugu eta gorputzak une bakoitzean zerbait desberdina eskatzen digu.

### 2. 13 urte bete ditu taldeak kide berberekin.

Taldea lagunak mantentzea bezala da. Bizitzak eraman gaituen momentu ezberdinetara moldatu da taldea.

### 3. Sarriesan izan da Euskal Herriko ahotsik politenetakoa duzula.

Ni saiatzen naiz neure ahotsa izaten. Gauza natural bat da eta hautsiz gero ez da gitarra bezala, soka alda diezaioketuz. Gainera, asko zigortzen dut, irakasle izateaz gain erretzaile ere banaiz -eta. Nahiko historiko jartzen naiz ahotsarekin, asko zaintzen dut, oso urduri jartzen naiz.

### 4. Musika irakaslea izanda, ipiniko diezu ikasleei Zea Maysen musika, ez?

Ez. Ez dut uste gure musika eskola batentzako denik. Hala ere, enteratzen dira eta komentatzen didate Youtuben-eta entzun dituztela gure abestiak.

### 5. Zein da disko berria entzuteko "era"?

Zabaltasunez eta ahal den bolumen handienarekin. Disko entzungarri eta dantzagarria da. Baina bakoitzak jakingo du zelan.



LEXURI DOYAGE

### LEHENDAKARIA BANINTZ

### "Ez nintzateke inola ere izango!"

"Ez nintzateke inola ere lehendakari izango. Ze esango dizut ba! Mundura bakea ekartzen saiatuko nintzela?"

Ez dut erabaki orokorrak hartzeko balio. Ez dut nire burua inola ere lehendakari moduan ikusten eta burura datozkidanak ere ez nituzke esango."

### 6. Zeuk ere hala entzuten duzu musika.

Bolumen betean, bai. Etxean berandu bada ezin duzu entzun, baina autoan, adibidez, topera. Musikak daukan onena da zure beharrianetara moldatzen dela eta zure egoeraren arabera aukera oso zabala dela.

### 7. Zuzenean bertsio asko egiteko ohitura duzue. Zein da faboritoa?

Bertsio bakoitzak bere momentua izan du. Gogoan dut Soulwax taldearen bat, guk oso gustura jotzen genuena, baina jendeak ezagutzen ez zuelako jotzeari utzi geniona, hotz geratzen zen-eta.

### 8. Abesti eskaera asko izaten dituzue zuzenean?

Batzuetan, aspaldiko abesti bat eskatzen dizute eta ez da posible, guri oso urrun geratzen zaigu -eta. Nik, adibidez, lehenengoko diskoko *Gauak 1* abestia ezin dut, arrazoit pertsonalengatik.

### 9. Aurreko urtea amaitu berri dugu. Zeintzuk izan ziren zure disko eta zuzeneko faboritoak?

Burura datorkit Split77, oso ondo dago disko berria eta baita Ama Sayrena ere. Kontzertuetan BBK Live aipatuko nuke eta bertan Pearl Jam eta Faith No More.

### 10. Kontzertuetan ematen du leher eginda amaitzen duzuela.

Nik oso nekatuta amaitzen dut: gauzak batu, lekura joan, muntatu, kontzertua, gero jaso, furgoneta... Gehi kontzertua.

## BIHARAMUNA

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



### Liburu elektronikoa

Urte berriak gripe eraso batekin agurtu ninduen. Eta gaixotasunak utzi ohi duen gorputz makalduaren zuzeneko sentsazioa arindu nahian, Miguel Delibes nire idazlerik atseginenetakorekin eman ditut orduak, *La sombra del ciprés es alargada* liburua berreskuratu dudalarik. Avilako bazter elurtuetatik barrera ibili naiz Pedro eta Alfredo haur protagonistekin batera, eta haien modura Adaja ibaian busti ditut oinak udako arratsalde sargoritsuetan. Liburu on batek lortu behar duena gertatu zait bere irakurketarekin: parte sentitu naiz eta barrutik bizi izan dut istorioa, lehen aldiz -duela 45 bat urte?- irakurri nuenean bezala.

Oraingo irakurketak desberdintasun txiki bat izan du aurrekoarekin alderatuta: euskarria. Garbiago esanda: liburu elektronikoa erabili dut. Aitortu behar dut ekin aurreko errezeloa banuela, elektronikoaz oraintsu ez ziren fikziozko literatura ez ziren gaietarako bakarrik baliatu bainaiz. Baina orrietan aurrea egiten nuela, eleberriaren indarrak abstrakzioa tiratzen ninduen, esku artean neukana ahaztuaraziz. Inportanteena fikzioan zegoen. Urte berriak, beraz, albiste on bat ekarri dit: liburu elektronikoa ere sentsazioak piztu ditzake.



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13



Argazkia: Kiñin